

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

BBVA Fundazioa

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

LOIOLAKO SAN IGNAZIOREN
GOGOJARDUNAK

SAN IGNAZIO

Loiolako
San Iganazioaren
Gogojardunak



Jatorrizko izenburua:
Exercicios espirituales de San Ignacio de Loyola
Euskaratzailea: *Patxi Altuna*
Berrikuslea: *Pello Esnal*
Hitzaurregilea: *Pello Esnal*

Lehen argitalpena: 2003ko abenduan

© Itzulpenarena: Patxi Altuna
© Klasikoak, 2000
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2004-I-24

ISBN: 84-88303-08-04
Lege gordailua: BI.-3267-03

Fotokonposaketa: L&A Diseinua.
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

Oraindik ere galdezka ari natzaio neure buruari zergatik eskaini zidan Patxi Altunak hitzaurre hau idaztea, noiz eta aldamenean dituenean, Loiolan bertan, Ignacio Cacho, *Iñigo de Loyola. Ese enigma*¹ liburu argitaratu berri bikainaren egi-lea, eta Patxi Olariaga, duela hamabi urte *Gogojardunak* itzuli zituen.

Agian, *Gogojardunak* liburua ezagutzen ez zuen norbait nahiko zuen eginkizun honetarako; aurreiritzirik gabea-edo. Eta horretan, liburua ezezaguna izate horretan, bete-betean asmatu zuen. Ez baitut orain arte *Gogojardunak* eskuetan izan, ez gaztelaniaz (jatorrizko hizkuntzan) eta ez euskaraz (orain arte egindako sei itzulpenetako batean²). Horrek ez du esan nahi, ordea, aurreiritzirik ez nuenik liburuarekiko. Izan ere, adin batetik gorako gutako nork ez ditu noizbait gogojardunak egin? Eta gogojardun horiek egin genituenean, zer gogojardunek ez zuen oinarrian Ignazio Loiolakoaren *Gogojardunak*? Erlijio-gaietan aurrerago ibili gineno, gainera, oroimenaren kutxan gelditu zitzaizkigun gogojardunetako zenbait esapide, jasotako erdal moldean: «principio y fundamento», «las dos banderas», «los dos binarios» eta antzekoak. Gero, politikaren

zurrunbilotik iritsi zitzaigun «en tiempo de desolación nunca hacer mudanza» esaera hura, geroztik tarteka entzun behar izan duguna. Ustez, Ignazioren esapideak eta esaldiak ziren denak. Eta orain, haren liburua eskuetan, halaxe direla baieztatzeko aukera dugu.

Baina, *Gogojardunak* hizpide, bada munta handiagoko gairik, azaleko kontu horietaz gain. Izan ere, geure bihotz-erraietan ikusten eta ikasten ari gara zer esan nahi zuen Koldo Mitxelenak, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriri sarrera idatzi zionean. «Gaur badakigu –dio erreteriarrak 1957an– astindu gaituzten lur-ikarak sortuak zirela ordu-rako [Lizardiren garairako], eta ez direla berehalakoan baketu-ko»³. Ia berrogeita hamar urte geroago konturatzen ari gara zer-nolako eragin sakona izan duten gudan, besteak beste, Marx, Nietzsche eta Freud-en pentsaerek, ia dena –Ignazio Loiolakoaren eta haren *Gogojardunak* barne–susmagarri bihurtzeraino. Zerbaitengatik dira hirurak, Paul Ricoeur filosofoaren hitzetan, susmoaren maisu handiak.

Ez. Ez dut uste Patxi Altunak hitzaurregile akritikorik edo susmoaren arragoatik pasatu gabekorik nahiko zuenik *Gogojardunak* liburuaren atarirako. Zertarako? Aldi berean, ordea, hitz eraikitzaileak nahiko zituen, noski: Ignazioarekiko maitasunez edo halako atxikimenduz idatziak, behintzat. Eta ezagunak baititu nire *Ai, ene Jainko!* bertsoak⁴, Ignazioren jaio-tzaren bosgarren mendeurrenean jarri nituenak «Loiola'91» ospakizunak zirela-eta, begiz joko zuen nonbait bertso haien egilea, hitzaurre egokia egin zezakeelakoan.

Baina lehen ere aitortua dut zenbat zor dioten bertso horiek *Ignacio de Loyola, solo y a pie* liburu zoragarriari⁵ eta Telletxea Idigorasek orrialde horietan isuritako jakinduria oparo eta sakonari. Ez da, ordea, hor agortzen, inola ere, iturrendarrarekiko dudan zorra. Liburu horretan ikasi nuen, izan ere, oraintsu arte *Gogojardunak*-i buruz nekien gehiena. Besteak beste, honako pasarte gogoangarri honek dioena⁶:

En la lista de «libros que cambian la historia» le corresponde un puesto singular. No sólo por el hecho de haber sido editado más de 4.500 veces con un promedio de una edición por mes durante cuatro siglos y en las más diversas lenguas, sino aún más por haber sido actuado o puesto en práctica su mensaje por parte de millones de personas. El éxito de este libro compuesto sin pretensiones literarias o estéticas y no para ser leído, sino para ser vivido, estriba precisamente en su fecundidad operativa. De él decía hace siglos san Francisco de Sales que había producido más conversiones que letras tenía. Un hombre extraño al catolicismo como H. Boehmer lo sitúa entre los libros que «han marcado la historia de la humanidad». Un enconado denostador del mismo como Fülöp-Müller, que lo califica de «libro fatídico de la humanidad», reconoce la magnitud de su influjo cuando escribe: «Ninguna otra obra de la literatura católica se le puede comparar en cuanto a influencia histórica ejercida. La fuerza conquistadora de los Ejercicios trascendió pronto a toda la Iglesia católica».

Hori eta gehiago dio Telletxea Idigorasek *Gogojardunak* liburuaz. Batez ere, ordea, Loiolakoaren bizitza azaltzen –biziarazten– digu sakon-sakonetik, gizon handi haren erraie-tara joz, haren jokabidearen sustraien bila. Eta, hala ere, liburu bikain hau irakurrita ere, susmatzen duenak susmatzen jarraituko du. Are gehiago: susmatzen jarraitu beharko du, eta lanean; besteak beste, susmoak berak ere susmagarri bihurtzeraino. Edo, egokiago esanda, susmoei dagokien –eta ez dago-kien– tokia eta egitekoa aurkitu arte. Susmoek ere bai baitute beren tokia –eta destokia, jakina–.

Baina Patxi Altunak, agian, euskararen alderdia ere jorratuko zukeen hitzaurregilea nahiko zuen; dirudienez, euskal filologia egin gabea eta euskal klasikoak gutxi ezagutzen dituenen bat eta, euskararen egokitasunaren ikuspegitik-edo, itzulpena bera ere aurkeztuko zuena. Agian. Ez dakit.

Dena den, eta usteak uste, bi gai horiek behintzat azaldu beharko ditu hitzaurre honek. Batetik, *Gogojardunak* liburua zer den. Eta, bestetik, nolako itzulpena eskaintzen den orain-

goan, Patxi Altuna maisuaren eskutik. Horretara doaz ondorengo lerroak, ahalik eta laburren.

Lehenik eta behin, aipa ditzadan Ignazio Loiolakoaren bizitzaren zenbait data; batik bat –baina ez soilik–, *Gogojardunak* liburuaren idazketarekin lotura dutenak?; izan ere, pixkana-pixkana idatzi baitzuen liburua.

1491: Loiolan jaio.

1521: Iruñean zauritu.

1522: Konbertsioa, Loiolan.

1522: Manresa: *Gogojardunak* liburuaren muina idatzi, berak izandako esperientzia oinarri hartuta.

1528-1535: Parisen. Hemen idatziak izan daitezke *Gogojardunak* liburuaren zenbait atal: «Hiru bikoteak» [149-157], «Hiru apaltasun-moduak [164-168], «Maitasuna iristeko kontenplazioa» [230-237], gogojardunen hartzaileak nolako jarrera izan behar duen esaten duten «oharpenak» [3, 5, 11, 12, 13, 16, 20], «Eranskinak» [73-90] eta «Elizarekin sentitzeko arauak» atalaren puntu batzuk [352-365].

1536-1539: Italian. Garai honetakok izan daitezke gogojardun-emaileari zuzendutako «oharpenak» [1, 2, 4, 6-10, 14, 15, 17, 18, 19], «Sustraia eta oinarria» atalaren behin betiko idazketa [23], «Kristoren bizitzako misterioak» [261-312] eta «Arauak neurritsuak izateko jatean» [210-217].

1539-1541: Erroman. Liburuaren zenbait atal osatzen ditu. Hemen burutuak izango dira «Arauak espirituaren bereizketa handiagoz» [345-351] eta «Elizarekin sentitzeko arauak» atalaren behin betiko idazketa [366-370].

1544-1545: *Diario Espiritual* idatzi.

1548: *Ejercicios Espirituales* liburuaren lehen argitalpena, Erroman; baina egilearen izenik gabe eta jesuitentzat bakarrik.

1553: *Autobiografía* idatzi Gonsalvez Cámara-k, Ignaziok berak kontatua papereratuz. Ez zen 1904a arte argitaratu.

1556: Erroman hil.

Eta zer esan *Gogojardunak* liburuari berari buruz? Harridura. Lehen momentuan, sentipen hori eragin diezaioke askori liburuaren irakurketak, nahiz eta aldez aurretik jakin dezakeen, Telletxea Idigorasi esker-edo, zenbait gauza funtsezko. Esaterako, asmo literariorik gabe idatzia izan zela liburua, gogojardunen emaileentzat eta ez hartzaileentzat. Gainera, inori irakurri gabe ere, pentsa dezake zer-nolako ikuspegia –ikuspegi soziologikoa, psikologikoa, filosofikoa edo teologikoa– aurkituko duen liburuan, kontuan izanda, batetik, duela ia bostehun urtekoa dela eta, horretaz gain, Luteroren Erreforma hasi berritan idatzia dela. Eta, hala ere, harridura sortuko dio seguruenik. Gehiago espero izango zuelako, noski. Liburu mardulagoa-edo, nolabait esateko; edo trinkoagoa eta beteagoa. Besteak beste, eskuetan duelako –eta hau ere Telletxea Idigorasi irakurrita jakin lezake– historia aldatu duen liburu horietako bat. Azken batean, ordea, uste zuena ez baina, ohar-bilduma baten antzeko liburua.

Baina, hain zuzen, *Gogojardunak* liburuaren izaera apal horrek eskaintzen digu abiapuntua, egiten has gaitezen obra egoki ulertzeko eta irakurtzeko egin beharreko bidea. Hemen, hiru norabide urratzen saiatuko gara, apunte moduan, bestelako asmo handirik gabe. Lehenengo urratsa edo hurbilpena, hizkuntzalaritzaren eskutik egingo dugu. Bigarrena, erlijioaren fenomenologiarenetik. Eta hirugarrena, teologiaren ildotik.

Gaur egun, hizkuntzalaritzari esker, gero eta argiago ikusten dugu zer-nolako aldea dagoen hizketaren eta testu idatzia-
ren artean. Hala, gaur badakigu testu idatzia ez dela hizketaren transkripzio hutsa, eta funtsezko aldea dagoela bien artean. Izan ere, batetik, hizketa erabat lotua dago hitz egiten duenarekin eta hizketaren noiz-nongoekin eta hartzailearekin. Testu idatzian, aldiz, ahulagoak dira ezaugarri horiek, batzuetan ia erabat ezkutatzeraino. Beste horrenbeste gertatzen da erreferentearekin ere. Hizketan, aurrean egon ohi da, edo era-

kusteko moduan edo era eskuragarrian. Idatzian, ordea, ezku-tuago, batzuetan fikziozko bihurtzeraino. Beste era batera esanda, testu idatzia autonomoagoa da hizketa baino; eta bizirik segitzen du hasierako ekoizpen-egoera erabat aldatuta ere.

Horretaz jabetzeko, nahikoa dugu ebanjelioekin gertatu-takoari erreparatzea. Hasieran, ahozko kontaketak izan ziren: norbaitek kontatuak, tradizio baten baitan, leku eta momentu jakin batean, halako xede baten arabera. Gero, idatziz jartzean, bizitza autonomoagoa hartu zuten, pixkana-pixkana. Eta gaur, nahiz eta tradizio baten (Elizaren tradizioaren) baitan eskuratu ditugun, urrun gelditzen zaizkigu denboraz eta kulturaz. Eta, hala ere, neurri batean zein bestean, irakurri eta geuregana ditzakegu testuak. Edo, denboraz eta kulturaz horrenbeste urrundu gabe, halatsu gertatzen zaigu, aldeak alde, Axularren *Gero* obrarekin ere. Hasieran, hizketaren oso gertuko zena –leku, garai, hartzaile, gai eta xede jakin batzuei oso lotua– gaur testu idatzi autonomia dugu.

Antzekoa gertatzen da, noski, *Gogojardunak* honekin ere. Baina ñabardura funtsezko batekin. *Gogojardunak* liburu-a, izan ere, erreferente eta guzti iritsi da guganaino; hau da, gogojardunekin batera. Bestela esanda: jardun eta ekintza batzuei (gogojardunei) lotuta jaio zen, eta gogojardun horien zerbitzuan. Areago: lehenagokoak dira gogojardunak, *Gogojardunak* baino. Hain zuzen, gogojardunak nola egiten ziren eta nola egin behar ziren esateko idatzi zuen Ignaziok *Gogojardunak* liburua. Hau da, gogojardunak baziren libururik gabe ere. Eta izaten jarraitu zuten, *Gogojardunak* idatzita gero. Eta liburuarekin batera iritsi zaizkigu, belaunaldiz belaunaldi-ko ibilbidea egin ondoren.

Ez. *Gogojardunak* ez da narrazio-liburua, ebanjelioak diren bezala; edo azalpen-liburua; edo argudiozko liburua, *Gero* den moduan. Instrukzio-liburua da: gogojardunak ematen dituenari gogojardunak nola eman esaten dion liburua. Horregatik hartzen dute horrenbeste toki arauak eta oharrek.

Horregatik da estiloz soila; esaterako, apenas erabiltzen duen modalizaziorik: *komeniko litzateke, beharko genuke* eta antzeko leungarririk. Zuzen dihardu, zeharbiderik eta itzulingururik gabe, eta inolako apaindurarik gabe. Hona zer dioen Telletxea Idigorasek⁸:

El pequeño cuaderno de los Ejercicios –Iñigok Manresan idatzitako lehen muinaz ari da hitz hauetan, baina liburu osoarentzat balio dute– es más que otra cosa una reglamentación de procedimientos y temas, que importa al que da o al que recibe los Ejercicios, esto es, a los interesados en el juego. Árido como cualquier reglamento, su valor y mérito estriba en la eficacia que acompaña a la práctica; y esto explica que sea tan pesado y meticuloso como un método de piano para hacer dedos, aburrido para quien no tiene interés en aprender, y maravillosamente eficiente y absolutamente necesario para quien aspira a concertista. El pequeño librito del peregrino –Loiolako erro-mesarena, alegia– figura con méritos objetivos en la selección de «Libros que cambian el mundo», pero difícilmente obtendrá un puesto en el más arrinconado escolio de manual de literatura.

Beraz, horixe da *Gogojardunak*: gogojardunen instrukzio-liburua. Eta eskuragarriagoa gertatuko zaigu, gogojardunak berak ezagunak ditugun neurrian. Berdintsu gertatzen zaigu kirol baten araudiarekin ere. Zenbat eta ezagunagoa izan kirola bera, hainbat eta ulerterrazagoa izango dugu araudia. Hain estu lotuta doaz elkarrekin instrukzioak (arauak, oharrak, aginduak...) eta erreferentea. Horren harian, merezi du itzultzea Telletxeari bitan irakurritako «historia aldatzen duten liburu» hitzetara, eta zertxobait egokitzea. Izan ere, dagokigun kasu honetan, zein dira aldaketa-eragile: liburua (*Gogojardunak*) ala gogojardunak berak; instrukzioak ala jardunak; euskarria ala mamia?

Lehen hurbilpen horrek, horrela, beste hurbilpen baten atarian uzten gaitu. Izan ere, berez, ikuspegi askotatik irakur dezakegu *Gogojardunak*: ikuspegi filologikotik (jatorrizkoa: gaztelaniazkoa), soziologikotik, psikologikotik, filosofikotik... Irakurketa guztiak dira zilegiak. Eta denak beharrezkoak.

Baina motz geratuko litzaizkiguke, gogojardunen muinera iritsiko ez bagina. Eta muinera iristekotan, dagokion esparrura jo behar eta bertan mugitu behar. Esparru hori erakusten saiatuko gara bigarren hurbilpen honetan, nahiz eta erakuste soilean geratu, ezinbestean.

Hain zuzen, esparru erlijiosora garamatza hurbilpen honek. Esparru horretan ematen, hartzen, gauzatzen eta bizi-tzen baitziren (eta baitira) gogojardunak. *Gogojardunak* liburuak esparru erlijioso du bere. Baina zertaz ari gara esparru erlijiosoaz ari garenean? Luze joko liguke horretaz jarduteak, batez ere gure hitz soilez arituko bagina. Hobe izango dugu, hortaz, gai honetan jantziago den baten hitzez baliatzea, nahiz eta aukeratutako pasarteak ere luzeak izan, laburtzen saiatu bagara ere. Martín Velasco adituak dio⁹:

Para designar este primer momento de nuestra descripción de lo religioso nos serviremos del término clásico de «lo sagrado» introducido en la ciencia moderna de las religiones por R. Otto en su célebre obra *Das Heilige* [*Lo santo*]. [...] Lo sagrado designa, para nosotros, el ámbito en el que se inscriben todos los elementos que componen el hecho religioso, el campo significativo al que pertenecen todos ellos; lo sagrado significa el orden peculiar de realidad en el que se inscriben aquellos elementos: Dios, hombre, actos, objetos, que constituyen las múltiples manifestaciones del hecho religioso. Tal orden de realidad no existe separado del hecho religioso como una parte del mismo, pero sin referencia a ese orden de realidad ninguno de los elementos del hecho religioso sería religioso. Dios, por ejemplo, para referirnos a la realidad que parece más claramente religiosa «en sí misma», sólo pasa a ser realidad religiosa cuando la relación con ella es inscrita en el «orden de lo sagrado». [...] La designación de lo sagrado como «orden de realidad» tiene consecuencias importantes para la comprensión de lo religioso y para la justificación de su realidad y de su valor. Por ello [...], nos detendremos a precisar su condición de ámbito o de orden de la realidad.

Beraz, horra hor gaztelaniaz «ámbito» edo «orden de realidad» izenez deitua guk lehenago «esparru» deitutakoa.

Eta horra, aldi berean, zer-nolako garrantzia duen kontzeptuak argi izan eta gauzak dagokien tokian ondo kokatzeak. Martín Velascok berak jarraitzen du aurreraxeago:

Tal vez aclare el sentido de esta noción de orden o de ámbito de realidad aplicado a lo sagrado la referencia a otros casos semejantes de orden de realidad más fácilmente asequibles. Cualquier realidad puede, sin dejar de ser lo que es, recibir una transignificación artística cuando es puesta en relación con una intención estética. Todo es así posible objeto estético, es decir, todo puede ser inscrito en el orden de ser definido por la belleza. Cualquier ente puede ser considerado desde su condición de ser y dar lugar a una consideración filosófica que lo inscriba en un orden de ser diferente del orden, del ámbito en el que ese ente está inscrito como tal ente para una consideración que se reduzca a ese nivel.

Hortaz, laburbilduz bigarren hurbilpen hau, zilegi da –eta beharrezkoa– *Gogojardunak* ikuspegi psikologikotik edo soziologikotik aztertzea, baina azterketa horiek motz geratzen dira, kontuan hartu ezean ikuspegi erlijiosoak –liburuari berez dagokiona–. Are gehiago, liburua ez da ulertuko, ez bada ikuspegi erlijiosoaz irakurtzen eta esperientzia erlijiosoaren eremuan kokatzen. Merezi du, berriro ere, Telletxea Idigorasen hitzak irakurtzea¹⁰:

El libro de los Ejercicios es un [...] código abstracto y quintaesenciado, pero que mirado al trasluz, nos deja ver tantas veces el alma de su autor, sus experiencias vividas, más que conocimientos librescos. Si bien se mira, bajo la fronda de sus normas, la atención está centrada en el hombre, en el rescate de su libertad y de su interioridad, en el cuidado escrupuloso de las condiciones que la hacen posible o imposible. Se supone, con reminiscencias autobiográficas, que quien se decide voluntariamente a entrar por tales caminos, lo hace «con grande ánimo y liberalidad con su Criador y Señor», y se cree firmemente que a todos ilumina y mueve la gracia divina.

Esperientzia erlijiosoaz esan berriak berdin balio du, noski, edozein erlijiotarako. *Gogojardunak*, ordea, kristautasunaren –zehatzago: katolizismoaren– baitan sortu eta bizi ohi da. Eta teologia katolikoaren jantzia du. Beraz, beharrezkoa

dugu hirugarren hurbilpen bat ere egitea: jantzi hori kontuan izango duen hurbilpena. Ahalegin handia eskatuko digun hurbilpena. Izan ere, gaurko gizakioi arrotza egiten zaigu, zahar-
kitua, liburuaren jantzia, nahiz eta duela gutxi arte –zeinen hurbil eta zeinen urrun!– gurea ere izan zitekeen. Horregatik egin beharko dugu ahalegin handia *Gogojardunak* geureganatzeko, azalean gelditu gabe.

Seguruenik, *paradigma-aldaketa* kontzeptua izan deza-
kegu egokienetakoa, baldin eta gaurko geure munduaren eta Ignazioren munduaren arteko alde, tarte eta jauzi handia hobetu ulertu nahi badugu. Kontzeptua erruz erabiltzen da gaur egun, 1962tik honantza; orduan idatzi baitzuen Thomas S. Kuhn-ek *Iraultza zientifikoen egitura*¹¹; eta, hain zuzen, kontzeptu hori baitarabil, azaltzeko zer-nolako sakoneko aldaketak gertatzen diren, non eta itxuraz hain aldagaitza den zientzien munduan ere. Izan ere, sakoneko eta sustraizko aldaketa adierazten du *paradigma-aldaketa* kontzeptuak: elementu bati ez baina, erreferentzi marko orokor osoari dagokion aldaketa, egitura osoaren aldaketa, historiaren aldi osoa markatzen duena; azken batean, den-dena ulertzeko kultura berria. Horregatik, paradigma-aldaketak eskatu ohi du kulturaren elementu guztien berrantolaketa eta birmoldatzea. Iraultza kopernikarra dugu, esaterako, paradigma-aldaketaren adibiderik esanguratsuena. Kopernikoren teoriaren eta hipotesiaren arabera, Lurra Eguzkiaren inguruan ibiltzen da, eta ez alderantziz –ordu arte uste zen bezala–. Aldaketa sakonago eta handiagorik!

Hans Küng-ek bost paradigma bereizten ditu kristautasunaren historian¹²: 1) hasierako paradigma judu-apokaliptikoa, 2) Antzinateko ekumeniko-helenista, 3) Erdi Aroko kataliko-erromatarra, 4) Erreformako ebanjeliko-protestantea eta 5) Modernitateko arrazionalista eta progresista. Horien aurrean, berehala ohartzen gara, (kristautasunaren) historiak asko jakin gabe ere, zenbaterainoko denbora behar duen paradigma-aldaketa batek eta zer-nolako aldateka sakonekoa dakarren.

Are gehiago: gauzak polikiago ikusita, konturatuko gara nola bi paradigma ezberdin batera bizi daitezkeen, zein bere aldetik. Hain da aldagaitza paradigma. Adibidez, hirugarren paradigma –Erdi Aroko katoliko-erromatarra– Erdi Aroan jaio zen eta, gure inguruan behintzat, azkeneko kontzilioraino –Vatikano II. eraino– iraun du nagusi.

Andrés Torres Queiruga filosofo eta teologo galiziarra, hala ere, arreta berezia eskaintzen dio Modernitateak dakarren aldaketari; hain da sakona! Azken batean, bitan banatzen du Mendebaldeko historia. Hauek dira haren hitzak¹³:

Sería tópico insistir una vez más en la *radicalidad y profundidad* del cambio cultural que, iniciado en el Renacimiento, florece en la Ilustración y abre la Edad Moderna. Comparable al tránsito del Paleolítico al Neolítico, supuso una reestructuración tan profunda de la sociedad y de la cultura occidental que todo lo anterior queda definido como *pasado* y suspendido por principio en su validez. No en vano Kant definirá este tiempo como la «época de la crítica», en la que *todo* –desde la ciencia a la filosofía, desde la religión a la política– ha de demostrar su verdad posible ante el tribunal de la razón en su nueva etapa histórica, so pena de perder irremediabilmente su legitimidad. Cambio tan profundo que, en realidad, nos mantiene todavía hoy dentro de su radio; de modo que hablar de «pos-modernidad» sólo aparece justificado cuando tomamos esta denominación no como el fin de la modernidad, sino, más modestamente, como un episodio *dentro* de ella (aunque con toda seguridad muy importante, puesto que la relativiza mediante una crítica inmanente de sus excesivas pretensiones).

Paul Ricoeur-en hitzak ez dira leunagoak¹⁴:

Para nosotros, los modernos, la entrada en la cultura es inseparable de un desgajamiento que nos hace ajenos a nuestros propios orígenes. En este sentido, la enajenación en la tradición ha devenido un componente ineluctable de toda nuestra relación con el pasado transmitido. De aquí en más, un factor de distanciamiento funciona en el corazón de toda pertenencia a cualquier herencia cultural que sea.

Horregatik guztiagatik, filosofiaren arlotik teologiarena etorrita, Modernitatearen aurreko kristautasunaren amaieraz

mintzo da Torres Queiruga, izenburu esanguratsu horixe duen liburuan¹⁵:

La teología necesita pensar muy en serio el hecho de que la crisis que da origen a la Modernidad consistió justamente en eso: en poner en cuestión, desde sus más hondos fundamentos, todo el marco en que la experiencia cristiana se había moldeado y configurado. Cuando Descartes se propuso «dudar de todo», no obedecía a un capricho, sino que constataba el hecho de que todo un mundo cultural se había venido abajo y que era preciso reconstruirlo desde la base.

Kontuan izan behar da, besteak beste, 1637an argitaratu zuela Descartesez *Metodoari buruzko Diskurtsoa*; hau da, Ignaziok *Gogojardunak* idatzi eta ehun urtera. Bestela esanda, Modernitatearen aurreko paradigmatikoa da Loiolakoaren obra. Eta ezagun du. Bertan ez da ageri zalantzarik, inondik ere, ordu arteko kristau esperientziaren moldeak kolokan jarriko duenik, nahiz eta molde hori pitzatzen hasia zegoen. Jaiotzen ari baitzen, Lutero (1483-1546) katalizatzaile zuela, Hans Küng-ek laugarren paradigma deitua: Erreformako paradigma ebanjeliko-protestantea. Aldaketa teologiko sakona eragingo zuen Europako Iparraldean. Hegoaldeak, berriz, aurka egingo zion, Kontrarreforma abian jarritz, Trentoko kontzilioa eragile (1545-1563).

Erreformaren eta Kontrarreformaren eragina nabarmentzen hasi aurrekoa da, ordea, Ignazio Loiolakoaren berrikuntza. Ignaziok ere berrikuntza baitzekarren, beste zenbait gizon-emakume prestuk bezala. Hiru aipatzen ditu Küng-ek: Ignazio Loiolakoa bera, Teresa Avilakoa eta Felipe Neri. Eta honela dio¹⁶:

Por mencionar sólo a tres de la mayor irradiación reformista: Ignacio de Loyola, cuyos *Ejercicios espirituales*, con su espiritualidad activa de cara al mundo, ejerció y ejerce todavía hoy una tarea formadora más allá de la orden jesuítica; luego Teresa de Ávila [...]; y por último Felipe Neri [...]. Por cierto que los tres fueron muy sospechosos para la Inquisición como «alumbrados». Pero los contenidos de su predicación pastoral y pedagogía apenas eran novedosos (Ignacio, de

orientación práctica, y fijado por completo en la Teología de Tomás, apenas leyó algo de Lutero). Novedosos eran las formas y los métodos de acción.

Bai. Gure Ignaziok berrikuntza zekarren; baina ez teologikoa, praktikoa eta eragilea baizik. Ignazioren teologia Erdi Arokoa da: Tomas Aquinokoarena (1225-1274), Modernitatearen aurrekoa. Horregatik, Europako Hegoaldekoai –eta Euskal Herria Hegoaldean geratu zen, Albreteko Joana (1528-1572) eta Joannes Leizarragaren (1506-1601) urratsak gorabehera– aha-lerin handia eskatzen digu gaur *Gogojardunak* geureganatzea. Azken batean, paradigma-aldaketa. Edo, bestela esanda: sakon-sakoneko berrirakurketa.

Berrirakurketa hori dela-eta, esanguratsuak dira, adibidez, Torres Queiruga teologo aipatu berriak idatzitako zenbait libururen izenburuak, hauen mamiaren adierazle. Behin eta berriro darabil, hain zuzen, *ber-* aurrizkia: *Recuperar la salvación*, *Repensar la Cristología*, *Recuperar la creación*, *Repensar la resurrección*¹⁷. Gogora dezagun, gainera, arestian aipatutako liburuaren izenburua; hain du esanguratsua lehen erdia: *Fin del cristianismo premoderno*, eta ez amutsagoa bigarrena: *Retos hacia un nuevo horizonte*¹⁸.

Desafioz desafio eta urratsez urrats, honaino ekarri gaitu, hain zuzen, *Gogojardunak* irakurtzeak sortutako lehen harridurak. Hiru hurbilpen soil izan dira, apunte moduan emanak. Balio izango ahal digute, beren soilean, Ignazioren obra egoki ulertzeko!

Baina, liburuaren edukira mugatu gabe, Patxi Altunaren itzulpenak ere merezi ditu beste bi hitz, nahiz eta oraingoan apunte-izaera nabarmenagoa izango duten.

Eta berriro ere *harridura* hitza erabili behar, hasteko. Harridura –eta ez nolanahikoa– sortzen baitu Patxiren itzulpenak. Ez, noski, maisu-lana egin duelako. Harrigarria, izan ere, Patxi ezagutu eta maisu-lana ez eskuratzea izango zatekeen, jakinda zer-nolako begi zorrotzez irakurtzen dituen jatorrizko

testuak eta zer-nolako zorroztasunez juzgatzen euskal testuen zuzentasuna eta jatorrizkoarekiko leialtasuna, eta, horretaz gain, zer-nolako ezagutzaz eta trebeziaz erabiltzen duen euskara. Izan ere, gure hizkuntzak ba ote du ezkutukorik azpeitiarrarentzat?

Hala ere, Loiolakoaren jatorrizko testuaren jite korapilatsua eta barrokoa ezagutzen duenak izan zezakeen zalantzarik, batez ere jakinda Patxi ez dela berez itzultzaile¹⁹. Itzultzaile arituenak eta trebatuenak ere gorriak eta senperrenak ikusi beharko baitzituzkeen, jatorrizkoa itzultzeko. Eginkizun bihurriagorik! Eta badakigu Patxiri ere ez zaiola batere samurra gertatu zenbait pasarte itzultzea. Dena den, zailtasunik handiena, berak aitortu duenez, jatorrizkoa behar bezala ulertzean izan du, hori euskarara behar bezala bihurtzen baino.

Bada, ordea, zailtasun eta traba guztiak gainditzen erakutsi duen maisutasunak baino harridura handiagoa sor lezakeenik. Hain zuzen, gaur egungo ohiko prosa-moldeari eragindako aldaketaz ari naiz. Joskerari erreparatuta, perpausen osagaien ordenan dago aldaketa; izan ere, behin eta berriro darabil Patxik itzulpen honetan SAO (subjektua, aditza, osagarriak) ordena –ordena markatua omen dena–, noiz eta Patxik berak, «galdegaia»ren legeari jarraiki, bere idatzietan SOA ordena –ordena ez-markatua omen dena– darabilenean nagusiki. Hala ere, nahiago dut, aukeran, doinu-aldaketaz hitz egin, joskera-aldaketaz baino. Aldaketa bera da, baina beste ikuspuntutik ikusia.

Bai: berriro ere, *aldaketa* hitza dugu gako eta giltzarri. Gauzak hobeto ulertzeko, ordea, ehun urte egin beharko dugu atzera. Luis Villasantek idatzitako pasarte bat izan dezakegu abiapuntu. Hona hemen²⁰:

«Gure artean euskarari lege bat, disziplina bat emateko egin den saiorik eta ahaleginik handiena joan den mende [XIX.aren] azkenean eta gurearen [XX.aren] aitzinaldean egin da. Denok ditugu gogoan horretan saiatu direnen izenak: Arana, Azkue, Txomin Agirre, Lizardi, Altube, Orixe, eta abar.

Halako aro berri bat sortzen da orduan euskal literaturan. Lanean ari diren langileok badute gogoan ideal bat, jomuga eta xede bat, eta berek amestutako lege horren arabera lantzen dute euskara. Ez dira idazleak bakarrik. Badira gramatikalaria ere, bada Euskaltzaindia, badira irakasleak, etab.»

Paradigma-aldaketaz mintzatu behar ote dugu, berriro, nahiz eta orain euskararen eremuko paradigma-aldaketa izan? Agian. Dena den, itzul gaitezen Villasanteren hitzetara. Orain, beste hitzaurre batetik hartuko dizkiogu²¹.

«Bada prosa egiteko era internazional bat, behintzat sartaldeko herri eta kultura denek onartua (zenbait xehetasunetan hizkuntza bakoitzak bere erara etxekotuz). Euskal literatura zaharra ere bide horretan barrena zebilen, gramatikariek sintaksi era hoiek galera zuten arte. Eta orduan zer gertatu zen? Euskerari bideak idiki beharrean, hertsu egin zaizkiola. Hizkuntza bera besoz eta zangoz kati-gatuta gelditu zaigula.

Zorionean Ipar Euskal Herrian neurritz kanpoko gehiegikeriok eta iraultzok ez dira horrenbestera heldu. Han hemen baino goizago hasi ziren euskeraz idazten; literatur tradizioa hemen baino sendoagoa eta umotuagoa zegoen, eta hemen bezalako etenik ez da han gertatu.»

Paradigma-aldaketa, ez dakigu. Baina aldaketa sakona bai, behintzat –«etena» dio Villasantek–; nahiz eta orokorra ez izan. Izan ere, «hemen [Hego Euskal Herrian] bezalako etenik ez da han [Ipar Euskal Herrian] gertatu».

Baina zer aldaketaz eta etenez ari da Villasante? Prosa-moldearen aldaketaz, noski. Tradizioak modu batera eratu zuen prosa-moldeaz, eta joan den mendearen hasieran aldatu nahi izan zenaz, eta Hegoaldean behintzat aldatu zen prosa-moldeaz.

Aldaketa horren historia ere azal daiteke, oso zirrimarra handiz bada ere. Hemen, lau pasarte baliatuz egingo dugu. Txomin Agirrerena da lehenengoa, Orixerena bigarrena, Koldo Mitxelena hiruugarrena, eta Patxi Altuna berarena azkenekoa.

Txomin Agirreren pasartea 1901ean argitaratua da lehenengo aldiz. *Kresala* eleberriaren hitzaurrean idatzi zuen ondarrutarrak, eta honelaxe dio²²:

Autortuten dot, begian aurrean daukagun egia da ta, danok era batean izkiratutea askozaz dala garbi, obe ta errazagoa, ta orren bearrean gagozala; baña nik badakit irakurleak eurak daukezela erru andiak (parkatu, baña olango egia edozeñi esan bear jako), irakurlerik geienak erbesteko izkira-legeai lotuegiak dagozala, euren nagitasunak eta ezer ikasteko gogorik ezak ekarri eutsezala illuntasunik, nasterik eta okerrik andienak; bada euskeraz oitu izan diran *izkirakinde edo izkiralege* [ortografi arau] guztiak ordu erdi baten ikasi leikez edozein, gura izan ezkerro. Laster eukiko dogu danontzat lege bat, al danik errezena, garbiena ta onena, ta orduan ikusiko da irakurlien esate ori euren alperkeria estalduteko akiakula bat zan edo ez.

«Laster eukiko dogu danontzen lege bat» iragartzen du Agirrek 1901ean. Hamazazpi urte geroaro –1918an–, «Acento vasco» artikulua plazaratzen du Orixek²³. Lan horretan dugu honako pasarte hau, «Gernikako arbola» kanta ezagunaren hasiera hizpide hartuta idatzia (Gernikako arbola / da bedainkatua):

Queriéndonos decir el bardo Iparraguirre que el árbol de Guernica era bendito, nos dijo: «el árbol de Guernica es el que ha sido bendecido». Solo por no haber puesto el *da* al fin, con lo cual alteró no solamente la sintaxis, sino también el acento; ó por mejor decir, no solamente alteró el acento, sino también la sintaxis; que lo uno y lo otro son inseparables en nuestra lengua.

Hementxe dago, nire ustez, Txomin Agirrek iragarritako legearen muina eta oinarria: doinua eta joskera bereizezinak (omen) dira euskaran. Bestela esanda: nolako doinua, halako joskera (hitz-ordena); eta alderantziz: nolako joskera (hitz-ordena), halako doinua. Azken batean, Orixeren oinarritzko lege horren garapena besterik ez da, funtsean, Altuberren *Erderismos* obra ospetsua, hamar urte geroago –1929an– argitaratua; ahaztu gabe, jakina, *El acento vasco*, hiru urte geroago plazaratuko dena²⁴. Are gehiago: Orixeren prosa-moldea

ere oinarritzko lege horren ondorioa da. Horregatik idatziko du Koldo Mitxelenak, 1961ean, Orixe hil berritan²⁵:

Orixez geroztik doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal-prosak, atsegin bazaigu eta ez bazaigu.

Laudoriozko hitzak dirudite. Patxi Altuna begi-zorrotzari, ordea, zalantza sortzen diote. Horregatik idatziko du, 1988an²⁶:

[Mitxelenak] behin Orixez aitortu zuen [...]: «Doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal prosak, atsegin bazaigu eta ez bazaigu». Azken hitz misteriozko horiek dudan jartzen gaituzte berari atsegin zitzaion ala ez. Ez gara nor bai ala ez esateko.

Zalantzak zalantza, ordea, hor dago aldaketa: doinu-aldaketa eta joskera-aldaketa. Orain, hobeto ulertuko ditugu, seguruenik, goian aipatutako Luis Villasanteren hitzak. Baita aldaketa horren ondorioa ere, agian. Gogora dezagun gernikarrrak esana: «Eta orduan zer gertatu zen? Euskerari bideak idiki beharrean, hertsu egin zaizkiola. Hizkuntza bera besoz eta zangoz katigatuta gelditu zaigula».

Euskaraz zertxobait idatzi duenak badaki, probatua eta frogratua baitu, zer esan nahi duen hizkuntza besoz eta zangoz katigatua egoteak. Horregatik, ez da harritzekoa gai honen inguruan Villasanteri sarritan sumatzen zaion ezinegona, edo Mitxelenari dariona. Harrigarriagoa da, noski, zer-nolako zuhurtasunez mintzo diren horretaz: jakin zenbaiterainoko traba eragiten duen gaur egungo euskal prosa-moldeak, jakin nondik datorkion traba... eta, hala ere, zuhur hitz egin; eta, batez ere, suhar lan egin. Horretan eragina izango zuen, zalantzarik gabe, bizi izan zuten egoerak. Eta, jakinaren gainean ala oharkabea, gidari izan zuten Ignazio Loiolakoarena: «en tiempo de desolación nunca hacer mudanza»; edo, nahi bada, Patxi Altunaren itzulpenaren arabera esanda: «Lehorraldi garaian aldakuntzarik ez egin».

Premia, ordea, hor zegoen: premia larria. Hitz gordina-goaz ere mintzatu zen horretaz Luis Villasante²⁷:

«Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrene-tako bat. Hori duen egunean, euskara bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.

Euskara hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.»

Baina, premia aldarrikatzeaz gainera, zer egin ere esan zuen. Hain zuzen, goian aipatutako bigarren pasartearen jarraian: «Esanik dago honekin euskal sintaksiaren eremu hau bir-ikusi eta bir-estudiatu beharrean dela»²⁸. Hitz egin ote dai-teke argiago eta ozenago? Oraindik ere, ordea, urte batzuk beharko dira gaia berraztertu eta bideratzeko²⁹.

Hala beharko zuen, nonbait. Baina horra hor berriro *ber-aurrizkia*³⁰, oraingo honetan Villasanteren luman. Alegia: eskuetan dugula berrirakurketa sakona behar duen obra bat (Ignazio Loiolakoarena), prosa-molde zaharberritu batean Patxi Altunak itzulua. Itzulpen-irizpide egokiagorik!

Dena den, ez dut uste horren ibilaldi bihurria egingo zuenik Patxik, bere herrikidearen *Gogojardunak* itzultzeari ekin aurretik, zer-nolako prosa-moldea erabili behar zuen erabakitzeko. Hori baino laburragoa zuen, izan ere, beste honako hau: «obra klasiko bat itzultzeko, zer egokiago prosa-molde klasikoa erabiltzea baino?». Bestalde, badakigu zeinen ondo, zeinen maisuki, ezagutzen dituen gure idazle klasikoak. Hala ere –ez dakit zergatik–, halako irribarre pikaroaz jarduna izan-go dela iruditzen zait, pikardia egiten ari den ume koskor baten antzera. Izan ere, azkena plazaratu den Patxiren liburuan ere, *Haizeak ez eramango!* lan-bilduman³¹, uste baino sarriagotan atzemango dugu aipatutako doinu-aldaketa, nahiz eta itzulpen honetan baino bakanago erabili. Ez ote zaio gertatu, agian,

aspaldi bihurrikeria hau egin nahian ibili eta azkenean, aukera izan duenan, akzioa egin? Egingo nuke, gainera, ia-ia batere nekerik gabe atera zaiola doinu zaharra itzulpen honetan. Pena, lehenago ez egin izana!

Doinua, agian, ohartu gabe irtengo zitzaion. Ez, ordea, itzulpena bera, lehen aurreratu dudanez; nahiz eta euskueran izan dituen, beti erabiltzeko prest, bere aurretik Loiolakoaren obra hau euskaratu dutenen lanak. Patxiren aurretik, sei itzul-tzaile izan ditu liburuak: Kandido Basabe, Erraimun Olabide, Jorke Agirre, Juan Atutxa, Luis Egia eta Patxi Olariaga³². Patxi Altunak aurrean izan eta eta erabiliko zituen, noski; baina beti molde –eta doinu– zaharberrituan urtuz.

Ez. Ez dut uste lan hau ere haizeak eramango duenik. Geroak esango!

Pello Esnal
Zarautzen, 2003ko irailaren 25ean

Oharrak

¹ Ignacio Cacho, *Iñigo de Loyola. Ese enigma*, Bilbao, Ediciones Mensajero, 2003.

Liburuaren sarreran, lehen oin-oharrean (9. or.), Cachok dio nola Iñigo izenez bataiatu zuten Loiolako txikia, eta nola izen hori erabili zuen, harik eta 1535ean, Parisen, Ignacio hartu zuen arte, nahiz eta etxekoei eta lagunei bidalitako gutunetan beti Iñigo edo Inigo izenpetu. Cachok, liburuan, Iñigo deitzen dio 1535 baino lehenagoko gertaeretan eta agirietan; eta Ignacio, ondorengoe-tan. Irizpide horri jarraiki, ia beti Ignazio izena erabiliko dugu hitzau-rre honetan.

² Ikus, 32. oharrean, euskal itzulpe-nei buruzko xehetasunak.

³ Koldo Mitxelena, «Sarrera hitz batzu», *Euskal idazlan guztiak V: Literaturaren inguruan II*, Euskal Editoreen Elkarte, Klasikoak, 25, 1988: 142.

⁴ Pello Esnal, «Ai, ene Jainko!», *Itzuliko naiz*, Oiartzun, Auspoa Liburutegia, 229, 1995, 271-296.

⁵ José Ignacio Tellechea Idígoras, *Ignacio de Loyola, solo y a pie*, Madrid, Ediciones Cristiandad, 1986.

⁶ Aip. lib.: 335-336.

⁷ Batez ere, Cándido de Dalmases-i hartutako datuak dira: Ignacio de Loyola, *Ejercicios Espirituales*, Santander, Sal Terrae, 1987, 11-16.

⁸ Aip. lib.: 151.

⁹ Juan Martín Velasco, *Introducción a la fenomenología de la reli-gión*, Madrid, Ediciones Cristiandad, 1993⁵: 86-89.

¹⁰ Aip. lib.: 150-151.

¹¹ Thomas S. Kuhn, *The Structure of Scientific Revolutions*, University of Chicago Press, 1962. Gaztelaniaz: *La estructura de las revoluciones científicas*, México, Fondo de Cultura Económica, 1971. Euskaraz: *Iraultza zientifikoen egitura*, Donos-tia, Elkar, 1990.

¹² Hans Küng, *El cristianismo*, Madrid, Editorial Trotta, 1997.

¹³ Andrés Torres Queiruga, *Repen-sar la Cristología. Sondeos para un nuevo paradigma*, Estella, Editorial Verbo Divino, 1996, 303-304 (egile-arenak dira azpimarrak). Torres Queiruga, teologoa ez ezik, filosofoa ere bada. Eta esanguratsuak dira, Modernitateaz ari garenez, idatzi dituen filosofiako bi libururen izen-buruak ere, besteak beste: *La consti-tución moderna de la razón religio-*

sa. *Prolegómenos a una filosofía de la religión*, Estella, Editorial Verbo Divino, 1992; eta *El problema de Dios en la modernidad*, Estella, Editorial Verbo Divino, 1998.

¹⁴ Paul Ricoeur, *Del texto a la acción. Ensayos de hermenéutica II*, México, Fondo de Cultura Económica, 2001: 232.

¹⁵ Andrés Torres Queiruga, *Fin del cristianismo premoderno. Retos hacia un nuevo horizonte*, Santander, Editorial Sal Terrae, 2000: 16.

¹⁶ Aip. lib.: 499-500.

¹⁷ *Recuperar la salvación. Para una interpretación liberadora de la experiencia cristiana*, Santander, Sal Terrae, 1995. Gallegoz (jatorrizkoa): *Recupera-la salvación*, Vigo, Sept, 1977.

Repensar la Cristología. Sondeos hacia un nuevo paradigma, Estella, Editorial Verbo Divino, 1996².

Recuperar la creación. Por una religión humanizadora, Santander, Sal Terrae, 1997. Gallegoz (jatorrizkoa): *Recupera-la creación. Por unha relixión humanizadora*, Vigo, Sept, 1996.

Repensar la resurrección. La diferencia cristiana en la continuidad de las religiones y de la cultura, Madrid, Trota, 2003. Gallegoz (jatorrizkoa): *Repensar a resurrección. A diferencia cristiá na continuidade das relixións e da cultura*, Vigo, Sociedade de Estudos, Publicacións e Traballos, 2003.

¹⁸ Ikus 15. oin-oharra. Bide batez: merezi du erreparatzea filosofo eta teologo honen gainerako liburuen izenburuetako bigarren atalei ere.

¹⁹ Hala ere, Patxi Altunak badu eskarmenturik itzulpengintzan. Itzuliak baititu bi idazlan: «Hilen aldeko mintzaldia», Donostia, *Mundaiz*, 16, 1980, 101-103; eta *Kristoren imitazioa*, argitara gabea. Lehenengoa, Periklesen hitzaldi ospetsua da, Tuzididesek (K.a. 460 - 395) kontatua; bigarrena, Tomas Kempis-ek (1379 / 1380- 1471) idatzi omen zuen liburua, oso zabalkunde handia izandakoa.

²⁰ Luis Villasante, «Seigarren edizioari aitzinsolasa», Pedro Axular, *Gero*, Oñati, Jakin, 1976: XIV.

²¹ Luis Villasante, «Hitzaurre gisa», Seber Altube, *Erderismos*, Bilbo, Indauchu (Orain Sorta, 1), 1975: XII.

²² Txomin Agirre, *Kresala*, Euskal Editoreen Elkarte, Klasikoak, 19, 1988: 42 (letrakera etzana egilearena da; azpimarra, nirea).

²³ Nicolás Ormaechea, «Acento vasco», *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, IX, 1918: 8 (berriro ere, egilearena da letrakera etzana, eta nirea azpimarra). Berrargitalpena: Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969.

²⁴ Seber Altube, *El acento vasco (en la prosa y en el verso)*, Bermeo, Gaubeka, 1932.

²⁵ Koldo Mitxelena, «Orixerren heriotzean», *Euskal idazlan guztiak V: Literaturaren inguruan I*, Euskal Editoreen Elkarte, Klasikoak, 25, 1988: 119.

²⁶ Patxi Altuna, «Aurkezpena», Koldo Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak I: Bertso berriak, berriketan, zinea eta adabakiak*, Euskal Editoreen Elkarte, Klasikoak, 21, 1988: 20.

²⁷ Luis Villasante, *Euskararen auziaz*, Oñati (?), «Luis Eleizalde» saila, 1988: 142.

²⁸ Ikus 21. oin-oharra.

²⁹ Ez da hau tokia, noski, horretaz mintzatzeko. Baina aipagarriak dira, besteak beste, galdegaia abiapuntu izan duten bi doktore-tesi: Eusebio Osaren *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*, Leioa, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua, 1990; eta Bittor Hildagoren *Hitzen ordena euskaraz*, Donostia, argitaratzailearen izenik gabe, 1994 (bi liburuki).

³⁰ Euskaltzaindiaren *Hiztegi batua*, *bir-ikusi* ez baina, *berrikusi* dio.

³¹ Patxi Altuna, *Haizeak ez eraman - go!*, Donostia, Deustuko Unibertsitate

tatea, 2002. (Testu-paratzaileak: Elixabete Perez Gaztelu eta Esther Zulaika Ijurko.)

³² Kandido Basabe, *San Iñazioaren Ejertizietako Gogartiak*, Durango, Florentino Elosu, 1912; Erraimun Olabide, *Loyola'tar Eneko deunaren Gogo-Iñardunak*, Bilbao, Grijelmo, 1914; Jorke Aguirre, *Loyola'tar Iñazio Deunaren Gogo Jardunetako (Ejertiziotako) Gogorakizunak*, Bilbao, Mensajero; Zarauz, Ed. Vasca, 1928; Juan Atutxa, *Gogo-Yardunak*, Bilbao, Mensajero, 1969; Luis Egia, *Ejercicios Espirituales de San Ignacio de Loyola*, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1970; Frantzisko Olariaga, *Espiritu Ejertizioak (Gogo-Ihardunak)*, Bilbo, Ediciones Mensajero (Gero), 1991.

EXERCICIOS SPIRITUALES DE SAN IGNACIO DE LOYOLA

JHS

ANNOTACIONES

- [1] ANNOTACIONES PARA TOMAR ALGUNA INTELIGENCIA EN LOS EXERCICIOS SPIRITUALES QUE SE SIGUEN, Y PARA AYUDARSE, ASI EL QUE LOS HA DE DAR, COMO EL QUE LOS HA DE RESCIBIR.

1ª anotación. La primera anotación es, que por este nombre, exercicios espirituales, se entiende todo modo de examinar la consciencia, de meditar, de contemplar, de orar vocal y mental, y de otras espirituales operaciones, según que adelante se dirá. Porque así como el pasear, caminar y correr son exercicios corporales; por la mesma manera, todo modo de preparar y disponer el ánima para quitar de sí todas las afecciones desordenadas y, después de quitadas, para buscar y hallar la voluntad divina en la disposición de su vida para la salud del ánima, se llaman exercicios espirituales.

- [2] **2ª** La segunda es, que la persona que da a otro modo y orden para meditar o contemplar, debe narrar fielmente la historia de la tal contemplación o meditación, discurriendo solamente por los puntos con breve o sumaria declaración; porque la persona que contempla, tomando el fundamento verdadero de la historia, discurriendo y raciocinando por sí mismo, y hallando alguna cosa que haga un poco más declarar o sentir la historia, quier por la raciocinación propia, quier sea en quanto el entendimiento es iluminado por la virtud divina, es de más gusto y fructo espiritual, que si el que da los exercicios hubiese

LOIOLAKO SAN IGNAZIOREN GOGOJARDUNAK

JHS

OHARPENAK

- [1] OHARPENAK ONDOKO «GOGOJARDUNAK»
ZER DIREN NOLABAIT ADITZEKO,
ETA BAI EMAILEAREN, BAI HARTZAILEAREN
LANA ERRAZTEKO

Lehen oharpena da «gogojardunak» direlako izen honetaz adierazten dela nork bere barrena aztertzeke, hausnartzeko, kontenplatzeke eta hitzez nahiz gogoz otoitz egiteke edozein modu, eta beste zenbait espiritu-jardun, aurrerago esango denez. Izan ere, paseatzea, ibiltzea eta lasterka egitea gorputz-jardunak diren bezala, halaber espiritu-jarduna deritza arima prestatzeko eta atontzeko zeinahi moduri, eta norberagandik nahikari oker guztiak erauzteko eta, erauzi ondoren, Jainkoaren borondatea bilatzeko eta aurkitzeko eta bere bizia ordenatzeko eta arima sendatzeko beste edozeini.

- [2] *Bigarrena* da hausnartzeko edo kontenplatzeke bidea eta era besteri agertzen dionak zintzoki kontatu behar duela halako kontenplazioaren edo hausnarketaren istorioa, puntuak azalpen laburrez edo soilez bakarrik arakatuz; izan ere, kontenplatzen ari den pertsonak, istorioaren zinezko funtsaz jabeturik, bere gisa arakaturik eta arrazoiturik eta istorioa gehixeago argiara-ziko eta sumaraziko dion zerbait aurkiturik, dela bere arrazoi-ketagatik, dela Jainkoaren indarrak adimena argitzen diolako, gozamen eta fruitu espiritual gehiago du, ezen ez gogojardun-emaileak istorioaren esanahia asko azaltzen eta luzatzen badio;

mucho declarado y ampliado el sentido de la historia; porque no el mucho saber harta y satisface al ánima, mas el sentir y gusta de las cosas internamente.

- [3] **3ª** La tercera: como en todos los ejercicios siguientes spirituales usamos de los actos del entendimiento discurriendo y de los de la voluntad affectando; advertamos que en los actos de la voluntad, quando hablamos vocalmente o mentalmente con Dios nuestro Señor o con sus santos, se requiere de nuestra parte mayor reverencia, que quando usamos del entendimiento entendiendo.
- [4] **4ª** La quarta: dado que para los ejercicios siguientes se toman quatro semanas, por corresponder a quatro partes en que se dividen los ejercicios; es a saber, a la primera, que es la consideración y contemplación de los pecados; la 2ª es la vida de Christo nuestro Señor hasta el día de ramos inclusive; la 3ª la pasión de Christo nuestro Señor; la 4ª la resurrección y ascensión, poniendo tres modos de orar: tamen, no se entienda que cada semana tenga de necesidad siete o ocho días en sí. Porque como acaesce que en la primera semana unos son más tardos para hallar lo que buscan, es a saber, contrición, dolor, lágrimas por sus pecados; asimismo como unos sean más diligentes que otros, y más agitados o probados de diversos spíritus; requiérese algunas veces acortar la semana, y otras veces alargarla, y así en todas las otras semanas siguientes, buscando las cosas según la materia subiecta; pero poco más o menos se acabarán en treinta días.
- [5] **5ª** La quinta: al que rescibe los ejercicios mucho aprovecha entrar en ellos con grande ánimo y liberalidad con su Criador y Señor, ofreciéndole todo su querer y libertad, para que su divina majestad, así de su persona como de todo lo que tiene se sirva conforme a su sanctísima voluntad.
- [6] **6ª** La sexta: el que da los ejercicios, quando siente que al que se exercita no le vienen algunas mociones spirituales en su ánima, así como consolaciones o dessolaciones, ni es agitado

izan ere, arima ez da asko jakitez asetzen eta okitzen, baizik gauzak barrenean sentitzez eta gozatzez.

- [3] *Hirugarrena.* Ondorengo gogojardun guztietan arakatzuz baliatzen garenez gero adimeneko egintzez eta grinatzuz borondatekoez, errepara dezagun, borondateko egintzetan Jainko gure Jaunarekin edo bere santuekin ahozko nahiz gogozko otoitzez mintzo garenean, begiramen handiagoa behar dela gure aldetik gauzak ulertzeko adimena erabiltzen dugunean baino.
- [4] *Laugarrena.* Ondoko gogojardunetarako lau astez baliatzen garen arren, gogojardunak banatzen diren lau zatiekin bat etortzeko; hots, lehenik, bekatuen gogoratze eta kontenplatzearekin; bigarrenik, Kristo gure Jaunaren bizitzarekin Erramu eguna arte, hau barne; hirugarrenik, Kristo gure Jaunaren nekaldiarekin; laugarrenik, Pazko eta Igokundearekin, otoitz egiteko hiru modu ezartzen ditugularik; halaz ere, ez pentsa aste bakoitzak nahitaez zazpi edo zortzi egun dituela beregan. Zeren nola gertatzen baita lehen astean batzuk nagiagoak izatea nahi dutena iristeko, alegia, bere bekatuen damua, nahigabea, negarrak; berebat, zeren batzuk besteak baino bizkorragoak baitira eta zenbait espirituz zartatuagoak edo ikertuagoak, beharrezkoa da inoiz astea laburtzea eta inoiz luzatzea; orobat beste gainerako aste guztietan, gauzak bilatzuz ezarri den gaia-
ren arabera; baina gutxi gorabehera hogeitamar egunetan amaituko dira.
- [5] *Bosgarrena.* Gogojardunak hartzen ari denari on handia egiten dio haiei ekiteak bere Egile eta Jaunarekiko adore handiz eta esku zabal-zabalez, bere nahimen eta askatasun osoa eskainiz, Jainko handia balia dadin bai haren pertsonaz, bai daukan guztiaz, bere borondate txit santuaren arabera.
- [6] *Seigarrena.* Gogojardunak ematen dituenak, ikusten badu hartzen dituenari ez datozkiola barrenean espirituko zenbait mugira, hala nola pozaldiak eta lehorraldiak, eta ez dutela ere zenbait espirituk inarrostean, sarri galdegin behar dio gogojar-

de varios spíritus; mucho le debe interrogar cerca los ejercicios, si los hace a sus tiempos destinados y cómo; asimismo de las addiciones, si con diligencia las hace, pidiendo particularmente de cada cosa destas. Habla de consolación y dessolación, [316-324] de addiciones, [73-90].

- [7] **7ª** La séptima: el que da los ejercicios, si vee al que los rescibe, que está desolado y tentado, no se haya con él duro ni desabrido, mas blando y suave, dándole ánimo y fuerzas para adelante, y descubriéndole las astucias del enemigo de natura humana, y haciéndole preparar y disponer para la consolación ventura.
- [8] **8ª** La octava: el que da los ejercicios, según la necesidad que sintiere en el que los rescibe, cerca de las dessoluciones y astucias del enemigo, y así de las consolaciones; podrá platicarle las reglas de la 1ª y 2ª semana, que son para conoscer varios spíritus, [313-327; 328-336].
- [9] **9ª** La nona es de advertir, quando el que se exercita anda en los ejercicios de la primera semana, si es persona que en cosas spirituales no haya sido versado, y si es tentado grosera y abiertamente, así como mostrando impedimentos para ir adelante en servicio de Dios nuestro Señor, como son trabajos, vergüenza y temor por la honra del mundo, etc.; el que da los ejercicios no le platique las reglas de varios spíritus de la 2ª semana; porque quanto le aprovecharán las de la primera semana, le dañarán las de la 2ª, por ser materia más subtil y más subida que podrá entender.
- [10] **10ª** La décima: quando el que da los ejercicios siente al que los rescibe, que es batido y tentado debaxo de especie de bien, entonces es propio de platicarle sobre las reglas de la segunda semana ya dicha. Porque comúnmente el enemigo de natura humana tienta más debaxo de especie de bien, quando la persona se exercita en la vida illuminativa, que corresponde a los ejercicios de la 2ª semana, y no tanto en la vida purgativa, que corresponde a los ejercicios de la 1ª semana.

dunei buruz, ea egiten dituen, ea dagozkien garaietan egiten dituen, eta nola; halaber eranskinei buruz, ea arduraz egiten ari den, guztien berri ere zehazki eskatuz. Pozaldiaz, lehorraldiaz [316-324] eta eranskinez [73-90] hitz egiten da.

- [7] *Zazpigarrena*. Baldin gogojardunak ematen ari denak hartzen ari dena ikusten badu goibeldua eta zirikatua, ez bedi izan honekin zakar eta gozakaitz, baizik samur eta bigun, adorea eta kemena emanaz geroko, eta giza naturaren etsaiaren maltzurkeriak agerian ipiniz, eta datorkeen pozaldirako bere burua prestatziz eta moldaraziz.
- [8] *Zortzigarrena*. Gogojardunak ematen dituenari zilegi zaio, hartzen dituenarengan etsaiarengandiko lehorraldiez eta maltzurkeriez, eta berebat pozaldiez, zer behar nabaritzen duen, horren arabera lehen eta bigarren asteko arauet buruz mintzatzea, zenbait espiritu ezagutzeko baitira [313-327; 328-326].
- [9] *Bederatzigarrena*. Kontuan hartu behar da: baldin gogojardunak egiten ari dena lehen astekoetan ari bada, eta espirituko gauzetan aditua ez bada, eta zarpailki eta aho betean tentatua bada, hala nola, Jainko gure Jaunaren zerbitzuan aurrera joateko oztopoak ipiniz, adibidez nekeak, lotsaizuna eta munduko ohoreagatik beldurra, etab.; halakoari gogojardunak ematen ari zaiona ez bekio mintza bigarren asteko zenbait espirituren arauet; zeren lehen astekoek egingo dioten on adina kalte egingo baitiote bigarrengoek, gaia uler dezakeen baino zailagoa eta goragokoa baita.
- [10] *Hamargarrena*. Gogojardunak ematen dituenak erreparatzen duenean hartzen ari dena on-aitzakiaaren itxuraz astindua eta zirikatua dela, orduan da garaia lehen esandako bigarren asteko arauet hari mintzatzeko. Zeren giza naturaren etsaiak, komunzki, on-itxurapean gehiago zirikatzen du bat argitasun-bidean dabilenean garbikuntza-bidean dabilenean baino; bigarren asteko gogojardunei dagokie bide hura, lehen asteko gogojardunei bide hau dagokien bezala.

- [11] **11^a** La undécima: al que toma exercicios en la 1^a semana, aprovecha que no sepa cosa alguna de lo que ha de hacer en la 2^a semana; mas que ansí trabaje en la 1^a para alcanzar la cosa que busca, como si en la 2^a ninguna buena sperase hallar.
- [12] **12^a** La duodécima: el que da los exercicios, al que los rescibe ha de advertir mucho, que como en cada uno de los cinco exercicios o contemplaciones, que se harán cada día, ha de estar por una hora, así procure siempre que el ánimo quede harto en pensar que a estado una entera hora en el exercicio, y antes más que menos. Porque el enemigo no poco suele procurar de hacer acortar la hora de la tal contemplación, meditación o oración.
- [13] **13^a** La terdécima: asimismo es de advertir, que como en el tiempo de la consolación es fácil y leve estar en la contemplación la hora entera, assí en el tiempo de la dessolación es muy difícil complirla; por tanto, la persona que se exercita, por hacer contra la desolación y vencer las tentaciones, debe siempre estar alguna cosa más de la hora complida; porque no sólo se avece a resistir al adversario, mas aún a derrocallo.
- [14] **14^a** La quatuordécima: el que los da, si vee al que los rescibe, que anda consolado y con mucho herbor, debe prevenir que no haga promessa ni voto alguno inconsiderado y precipitado; y quanto más le conosciere de ligera condición, tanto más le debe prevenir y admonir; porque dado que justamente puede mover uno a otro a tomar religión, en la qual se entiende hacer voto de obediencia, pobreza y castidad; y dado que la buena obra que se hace con voto es más meritoria que la que se hace sin él; mucho debe de mirar la propia condición y subiecto, y quínta ayuda o estorbo podrá hallar en cumplir la cosa que quisiere prometer.
- [15] **15^a** La décima quinta: el que da los exercicios no debe mover al que los rescibe más a pobreza ni a promessa, que a sus contrarios, ni a un estado o modo de vivir, que a otro. Porque, dado que fuera de los exercicios lícita y meritoriamente podamos mover a todas personas, que probabilliter tengan subiecto, para

- [11] *Hamaikagarrena*. Gogojardunak lehen astean hartzen dituenari on zaio bigarreanean zer egingo duen ez jakitea; areago, nahi duena aurkitzeko, on zaio lehenean lan egitea bigarreanean ezer onik aurkitzeko esperantzarik ez balu bezala.
- [12] *Hamabigarrena*. Gogojardunak ematen dituenak hartzen dituenari isituki gogoratu behar dio ahalegindu behar duela beti bere gogoas setzen, ordubete egon behar duenez gero egunero egingo diren bost gogojardunetako edo kontenplazioetako bakoitzean, pentsatuz ordubete osoa aritu dela jardunean, eta hobe gehiago gutxiago baino. Zeren etsaia biziki saiatzen baita laburtzen kontenplatze, hausnartze edo otoitze hartako ordu hura.
- [13] *Hamahirugarrena*. Halaber erreparatu behar da, pozaldigaraian erraz eta arin den bezala ordubete osoa kontenplatzen egotea, hala arrunt zaila dela lehorraldian betetzea. Horregatik, gogojardunak egiten ari denak beti egon behar du ordubete baino pixka bat gehiago lehorraldiaren kontra egin eta tentaldiak garaitzeko; arerioari aurka egiten bakarrik ohitu ez dadin, baizik amiltzen ere bai.
- [14] *Hamalaugarrena*. Gogojardunak ematen ari denak ikusten badu hartzen ari dena alaitsu eta txit gartsu dabilela, esan behar dio ez dezala aurretik egin agintzaririk ez zinitzik, ongi pentsatu gabe eta itsumustuka; eta zenbat eta buru-arinagoa dela dakien, hainbat eta gehiago ohartarazi behar du eta jakitun egin. Zeren, batak bestea zuzenkiro bultza dezakeenez gero fraide egitera, non hiru zinitz egin ohi baitira, hots, esaneko, pobre eta garbi izateko, eta zeren zinitzpean egiten den eginkari onak zinitzik gabe egiten denak baino meritu handiagoa baitu, ongi aztertu eta neurtu behar ditu bere izaera eta aiurria, ea zenbaterainoko laguntza edo traba aurkituko duen hitzeman nahi duen gauza betetzen.
- [15] *Hamabosgarrena*. Gogojardunak ematen dituenak ez du egiten dituen ertsatu behar pobrezara, ez eta agintzarira kontrakoe-tara baino gehiago, ez eta bizibide edo bizimodu batera beste-ra baino areago. Zeren, nahiz eta gogojardunetatik kanpo, bidez eta merezi onez bultza ditzakegun, segur aski, pertsona

elegir continencia, virginidad, religión y toda manera de perfección evangélica; tamen, en los tales ejercicios espirituales, más conveniente y mucho mejor es, buscando la divina voluntad, que el mismo Criador y Señor se communique a la su ánima devota, habrazándola en su amor y alabanza y disponiéndola por la vía que mejor podrá servirle adelante. De manera que el que los da no se decante ni se incline a la una parte ni a la otra; mas estando en medio, como un peso, dexé immediate obrar al Criador con la criatura, y a la criatura con su Criador y Señor.

- [16] **16^a** La décima sexta: para lo qual, es a saber, para que el Criador y Señor obre más ciertamente en la su criatura, si por ventura la tal ánima está affectada y inclinada a una cosa desordenadamente, muy conveniente es moverse, poniendo todas sus fuerzas, para venir al contrario de lo que está mal affectada; así como si está affectada para buscar y haber un officio o beneficio, no por el honor y gloria de Dios nuestro Señor, ni por la salud espiritual de las ánimas, mas por sus propios provechos y intereses temporales, debe affectarse al contrario, instando en oraciones y otros ejercicios espirituales, y pidiendo a Dios nuestro Señor el contrario, es a saber, que ni quiere el tal officio o beneficio ni otra cosa alguna, si su divina majestad, ordenando sus deseos, no le mudare su affección primera; de manera que la causa de desear o tener una cosa o otra sea sólo servicio, honra y gloria de la su divina majestad.
- [17] **17^a** La décima séptima: mucho aprovecha, el que da los ejercicios, no queriendo pedir ni saber los propios pensamientos ni peccados del que los rescibe, ser informado fielmente de las varias agitaciones y pensamientos, que los varios spíritus le traen; porque, segun el mayor o menor provecho, le puede dar algunos espirituales ejercicios convenientes y conformes a la necesidad de la tal ánima así agitada.
- [18] **18^a** La décima octava: según la disposición de las personas que quieren tomar ejercicios espirituales, es a saber, según que tienen

zentzudun guztiak kontinentzia, birjinitatea, erlijioa eta ebanjelioko edozein bide bikain hautatzera, halaz ere gogojardun hauetan egokiago baita, eta askoz hobe, Jainkoaren nahiaren bila Jaun Egile bera jartzea harremanetan arima jainkozalearekin, bere maitasunean eta gorespenean besarkaturik eta geroan hobekiena zerbitzatuko duen bidean ezarririk. Halako moldez non ematen dituen ez dadin saihestu ez makurtu batera ez bestera; aitzitik, erdian egonik pisu-orratza bezala, utz diezaion bitarteko gabe jarduten Egilea sorkariarekin eta sorkariari Egile eta Jaunarekin.

- [16] *Hamaseigarrena.* Horretarako, alegia, Egilea eta Jauna bere sorkariagan seguruago ari dadin, biziki komeni zaio bere indar guztiez baliatuz mugitzea, txarki lehiatua dagoenaren kontrara jartzeko, baldin apika arima hori gauza bati nahaspilatuki lehia-turik eta okerturik badago. Hala nola, baldin lanbide edo irabaz-pide bat aurkitzeko eta edukitzeko lehiatua badago, ez Jainko gure Jaunaren ohore eta aintzagatik, ez eta arimen osasun espiritualagatik, baizik munduko bere probetxu eta ondasunen-gatik, behar du kontrara grinatu otoitzetan eta espirituko beste jardunetan lehiatuz, eta Jainko gure Jaunari kontrakoa eskatuz; esan nahi baita ez duela ez halako lanbidea edo irabazpidea nahi, ez eta beste gauzarik bat ere, non Jainko handiak bere lehen irri-ka aldatzen ez dion nahikariak taxuturik; halako moldez non gauza bat edo bestea nahi izateko edo edukitzeko arrazoia izan dadin Jainko handiaren zerbitzua, ohorea eta aintza bakarrik.
- [17] *Hamazazpigarrena.* Gogojardunak ematen dituenak ez dituelarik jakin nahi ez eta galdetu egiten dituenaren pentsamenduak eta bekatuak, probetxu handikoa da honek hari zintzoki jakinaraztea espiritu batzuek ekartzen dizkieten asaldurak eta pentsamenduak; zeren, probetxua nahiz handiagoa nahiz txikiagoa izan, era hartan astindua dagoen arimari eman diezazkioke behar dituen gogojardun apropos eta egokiak.
- [18] *Hamazortzigarrena.* Gogojardun hauek eman behar dira egin nahi dituztenen gertueraren arabera; hau da, duten adinaren,

edad, letras o ingenio, se han de aplicar los tales exercicios; porque no se den a quien es rudo, o de poca complisión, cosas que no pueda descansadamente llevar y aprovecharse con ellas. Assimismo, según que se quisieren disponer, se debe de dar a cada uno, porque más se pueda ayudar y aprovechar. Por tanto, al que se quiere ayudar para se instruir y para llegar hasta cierto grado de contentar a su ánima, se puede dar el examen particular, núm. [24], y después el examen general, núm. [32]; juntamente por media hora a la mañana el modo de orar sobre los mandamientos, peccados mortales, etc., núm. [238], comendándole también la confessión de sus peccados de ocho en ocho días, y si puede tomar el sacramento de quince en quince, y si se affecta mejor de ocho en ocho. Esta manera es más propia para personas más rudas o sin letras, declarándoles cada mandamiento, y así de los peccados mortales, preceptos de la Iglesia, cinco sentidos, y obras de misericordia. Ansimesmo, si el que da los exercicios viere al que los recibe ser de poco subiecto o de poca capacidad natural, de quien no se espera mucho fructo; más conveniente es darle algunos destos exercicios leves, hasta que se confiese de sus peccados; y después, dándole algunos exámenes de consientia, y orden de confesar más a menudo que solía, para se conservar en lo que ha ganado, no proceder adelante en materias de elección, ni en otros algunos exercicios, que están fuera de la primera semana; mayormente quando en otros se puede hacer mayor provecho, faltando tiempo para todo.

- [19] **19^a** La diecinueve: al que estubiere embarazado en cosas públicas o negocios convenientes, quier letrado o ingenioso, tomando una hora y media para se exercitar, platicándole para qué es el hombre criado, se le puede dar assimismo por spacio de media hora el examen particular, y después el mismo general, y modo de confesar y tomar el sacramento, haciendo tres días cada mañana por spacio de una hora la meditación del 1º, 2º y 3º peccado, [45-53]; después, otros tres días, a la misma hora la meditación del processo de los peccados, [55-61]; después,

ikasketen edo adimenaren arabera; eta eroso ezin eraman ditzakeen gauzak edo probetxurik ezin atera, halakoak ez eman ezjakinari edo jite gutxikoari. Halaber, bakoitzari pres-tatu nahi duen adina eman behar zaio, gehiago lagundu eta gehiago ondu dadin. Beraz, gehiago jakiteko eta, maila bate-ra iritsiz, bere buruari lagundu nahi dionari bere espiritua atsegintzeko, eman dakioke banako azterketa [24], eta gero azterketa orokorra [32]; aldi berean ordu erdiz goizean Jainkoaren aginduez, bekatu larriez, etab., otoitz egiteko tan-kerak [238]; halaber gomendatuz zortzian behin bere bekatuen aitortza eta, ahal badu, Jauna hamabostero hartzea eta, gogo badu, zortzian behin. Modu hau egokiagoa da jende ezjakin edo eskolagabeentzat, Jainkoaren agindu bakoitza eta bekatu larriak, Elizaren aginduak, bost zentzumenak eta errukizko egintzak azalduz. Halaber, baldin gogojardunak ematen ditue-nak hartzen dituenari igartzen badio adimen gutxiko edo berezko trebetasun txikikoa dela, zeinengandik etekin handi-rik espero ez den, hobe da jardun arin hauetako batzuk ema-tea, harik eta bere bekatuen aitortza egin arte; eta gero arauak emanik, barne-azterketa batzuk egiteko eta ohi zuen baino sarriago konfesatzeko eta irabazi duena gordetzeko, ez beza segi aurrera hautaketa kontuetan, ez eta lehenengo astetik kanpo dagoen beste ezein jardunetan, batik bat besteetan pro-betxu handiagoa lor daitekeelarik eta denerako denbora falta delarik.

- [19] *Hemeretzigarrena*. Herri-gauzekin edo beste arazo egokietan edo beharrezko zereginetan korapilaturik dabilena, ikastun izan edo antzetsu, ordu eta erdi bat jarduteko harturik, gizo-na zertarako egina den azaldurik, eman dakioke ordu erdian zehar banako azterketa, eta gero azterketa orokorra, bai eta konfesatzeko eta jaunartzeko modua ere, hiru egunetan egi-nez goizero ordubete zehar lehen, bigarren eta hirugarren bekatuen hausnarketa [45-53]; gero, beste hiru egunetan, ordu berean bekatuen ibilerarena [55-61]; gero, beste hiru

por otros tres días, a la misma hora haga de las penas que corresponden a los peccados, núm. [65-72]; dándole en todas tres meditaciones las diez addiciones, núm. [73-90], llevando el mismo discurso por los misterios de Christo nuestro Señor, que adelante y a la larga en los mismos exercicios se declara.

- [20] **20ª** La vigéssima: al que es más desembarazado y que en todo lo possible desea aprovechar, dénsese todos los exercicios spirituales por la misma orden que proceden; en los quales, por vía ordenada, tanto más se aprovechará, quanto más se apartare de todos amigos y conocidos y de toda solicitud terrena; assí como mudándose de la casa donde moraba, y tomando otra casa o cámara, para habitar en ella quanto más secretamente pudiere; de manera que en su mano sea cada día a missa y a vísperas, sin temor que sus conocidos le hagan impedimento. Del qual apartamiento se siguen tres provechos principales, entre otros muchos: el primero es, que en apartarse hombre de muchos amigos y conocidos y, asimismo, de muchos negocios no bien ordenados, por servir y alabar a Dios nuestro Señor, no poco meresce delante su divina majestad; el segundo, estando ansí apartado, no teniendo el entendimiento partido en muchas cosas, mas poniendo todo el cuydado en sola una, es a saber, en servir a su Criador, y aprovechar a su propia ánima, usa de sus potencias naturales más libremente, para buscar con diligencia lo que tanto desea; el 3, quanto más nuestra ánima se halla sola y apartada, se hace más apta para se acercar y llegar a su Criador y Señor; y quanto más así se allega, más se dispone para rescibir gracias y dones de la su divina y summa bondad.

egunetan, egin beza ordu berean bekatuei dagozkien zigorre-na [65-72]; hiru hausnarketetan hamar eranskinak emanaz [73-90]; gero pentsaketa berbera eginez Kristo gure Jaunaren misterioetan ere, zeina gogojardun beretan luzaz azaltzen den.

- [20] *Hogeigarrena.* Erosoago bizi eta ahal duen gehiena aurreratu nahi duenari eman bekizkio gogojardun guztiak, orain datozen segidan; horietan gehienetan, zenbat eta gehiago urruntzen den adiskide eta ezagun guztiengandik eta munduko arrangura guztietatik, hainbat eta etekin handiagoa lortuko du; adibidez, ahal duen ezkutuenik bizitzeko, bizi zen etxetik aldatu eta beste etxe edo gela bat hartuz; halako gisaz non bere eskuan egon dadin mezatara eta bezperatara egunero joatea, bere eza-gunek eragozpenik ipiniko dioten beldurrik gabe. Hiru etekin nagusi darizkio urruntze horri, besteak beste: lehena da urliak ez duela gutxi merezi Jainko handiaren aurrean, bere zenbait adiskide eta lagunengandik eta era berean ongi ez bideraturiko dirubide askotatik urruntzean, Jainko gure Jauna zerbitzatzeko eta gorestekoko; bigarrena, horrela bakandua egonik, adimena gauza askotan zatitua ez edukirik, baizik arreta guztia batean ipinia izanik, alegia, bere Egilea zerbitzatzean eta bere arimari on egitean, askatasun handiagoz baliatzen da berebiziko ahalmenez, hain biziki irrikatzen duena bilatzeko; hirugarrena, zenbat eta baztertuagoa eta bakartuagoa dagoen gure arima, gehiago trebatzen da bere Egile eta Jaunagana hurbiltzeko eta iristeko; eta zenbat eta gehiago bereganatzen den, gehiago gaitzen da Jainko txit onagandik mesedeak eta dohainak hartzeko.

- [21] EXERCICIOS ESPIRITUALES PARA VENCER A SI MISMO Y ORDENAR SU VIDA, SIN DETERMINARSE POR AFEECCION ALGUNA QUE DESORDENADA SEA.

PROSUPUESTO

- [22] Para que así el que da los ejercicios espirituales, como el que los rescibe, más se ayuden y se aprovechen: se ha de presuponer que todo buen christiano ha de ser más prompto a salvar la proposición del próximo, que a condenarla; y si no la puede salvar, inquira cómo la entiende, y, si mal la entiende, corríjale con amor; y si no basta, busque todos los medios convenientes para que, bien entendiéndola, se salve.

- [21] GOGOJARDUNAK NORK BERE BURUA MENDERATU
ETA BERE BIZITZA ZUZENTZEKO, MORDOILOTUA
DEN EZEIN NAHIKARIK GRINATU GABE

JAKINTZATEMATEKOA

- [22] Gogojardunak ematen dituenak bai eta hartzen dituenak beren buruei gehiago lagun eta on egin diezaioten, aurretik jakintzat eman behar da edozein kristau onek prestage egon behar duela hurkoaren esana onesteko gaitzesteko baino; eta ezin onetsi badu, galdegin biezaio nola ulertzen duen; eta oker ulertzen badu, zuzen beza maitekiro; eta aski ez bada, aurki bitza ararteko egoki guztiak, ongi ulerturik salba dadin.

PRIMERA SEMANA

[23] PRINCIPIO Y FUNDAMENTO.

El hombre es criado para alabar, hacer reverencia y servir a Dios nuestro Señor y, mediante esto, salvar su ánima; y las otras cosas sobre la haz de la tierra son criadas para el hombre, y para que le ayuden en la prosecución del fin para que es criado. De donde se sigue, que el hombre tanto ha de usar dellas, quanto le ayudan para su fin, y tanto debe quitarse dellas, quanto para ello le impiden. Por lo qual es menester hacernos indiferentes a todas las cosas criadas, en todo lo que es concedido a la libertad de nuestro libre albedrío, y no le está prohibido; en tal manera, que no queramos de nuestra parte más salud que enfermedad, riqueza que pobreza, honor que deshonor, vida larga que corta, y por consiguiente en todo lo demás; solamente deseando y eligiendo lo que más nos conduce para el fin que somos criados.

[24] EXAMEN PARTICULAR Y COTIDIANO: CONTIENE EN SI TRES TIEMPOS Y DOS VECES EXAMINARSE.

El primer tiempo es, que a la mañana, luego en levantándose, debe el hombre proponer de guardarse con diligencia de aquel pecado particular o defecto, que se quiere corregir y enmendar.

LEHEN ASTEA

[23]

SUSTRAIA ETA OINARRIA

Gizona Jainko gure Jauna gorestekoa, jaurestekoa eta zerbitzatzeko egina da eta, horren bidez, bere arima salbatzeko; eta lur gaineko beste gauzak gizonarentzat eginak dira, zein xedetarako egina izan den gizona, huraxe erdiesten lagun diezaioten. Horra zergatik gizonak haietaz baliatu behar duen bere xederako laguntzen dioten adina, eta haietatik aldendu hartarako galarazten dioten adina. Horregatik, gauza kreatu guztientzako ezaxolak izan behar dugu, gure hautamenaren aukera libreari zilegi eta debekatua ez zaion guztian; halako gisaz non geure aldetik ez dezagun izan nahiago osasuna eritasuna baino, aberastasuna pobrezia baino, ohorea desohorea baino, bizitza luzea laburra baino, eta berdin gainerako guztian; bakar-bakarririk irrikatzen eta hautatzen dugula ongiena garamatzana sortuak izan garen xedera.

[24] EGUNEROKO BANAKO AZTERKETA. HIRU ALDI DITU
BERE BAITAN ETA NORBERAREN BI AZTERTZE

Lehen aldia hau da: urliak, goizean ohetik jaikitzean, bere burua arduraz zaintzeko erabakia hartu behar du zuzendu eta aldatu nahi duen bekatu berezi edo hutsune hartatik.

- [25] El segundo, después de comer, pedir a Dios nuestro Señor lo que hombre quiere, es a saber, gracia para acordarse cuántas veces a caído en aquel pecado particular o defecto, y para se enmendar adelante; y consequenter haga el primer examen, demandando cuenta a su ánima de aquella cosa propósita y particular, de la qual se quiere corregir y enmendar, discurriendo de hora en hora o de tiempo en tiempo, comenzando desde la hora que se levantó hasta la hora y punto del examen presente; y haga en la primera línea de la g = tantos puntos quantos a incurrido en aquel pecado particular o defecto; y después proponga de nuevo de enmendarse hasta el segundo examen que hará.
- [26] El tercero tiempo, después de cenar se hará el 2 examen, asimismo de hora en hora, comenzando desde el primer examen hasta el 2 presente, y haga en la 2ª línea de la misma g = tantos puntos quantas veces a incurrido en aquel particular pecado o defecto.
- [27] **SIGUENSE 4 ADDICIONES PARA MAS PRESTO QUITAR AQUEL PECADO O DEFECTO PARTICULAR.**
- 1ª addición.** La primera addición es, que cada vez que el hombre cae en aquel pecado o defecto particular, ponga la mano en el pecho, doliéndose de haber caído; lo que se puede hacer aun delante muchos, sin que sientan lo que hace.
- [28] **2ª** La 2ª: como la primera línea de la g = significa el primer examen, y la 2ª línea el 2º examen, mire a la noche si hay enmienda de la primera línea a la 2ª, es a saber, del primer examen al 2º.
- [29] **3ª** La 3ª: conferir el segundo día con el primero, es a saber, los dos exámenes del día presente con los otros dos exámenes del día passado, y mirar si de un día para otro se a enmendado.
- [30] **4ª** La 4ª addición: conferir una semana con otra, y mirar si se a enmendado en la semana presente de la primera passada.

- [25] *Bigarrenena*: urliak, bazkalondoan, eskatu nahi duena Jainkoari, hots, zenbat aldiz erori den bekatu edo hutsune berezi hartan oroitzeko grazia, eta aurrera zentzatzeko; horrenbestez egin beza lehen azterketa, bere arimari kontuak eskatuz, zuzendu eta aldatu nahi zuena erabakitako gauza eta berezi hartaz, ordutik ordura edo aldiz aldi oldoztuz, jaiki zen momentutik hasi eta oraingo azterketa honen ordura eta puntura arte; eta egin bitza lehen g= lerroan bekatu berezi edo hutsune hartan erori den adina puntu; eta gero zuzentzea erabaki beza berriro egingo duen bigarren azterketa arte.
- [26] *Hirugarren aldia*: afalondoan bigarren azterketa egingo da, lehen bezala ordutik ordura, lehen azterketatik hasi eta oraingo bigarrenena arte; eta g= beraren bigarren lerroan egin bitza bekatu edo hutsune berezi horretan erorikoak izan diren adina puntu.
- [27] LAU ERANSKIN DATOZ ORAIN ARINAGO KENTZEKO
BEKATU EDO HUTSUNE BEREZI HURA
- Lehen eranskina* da, bekatu edo hutsune berezi hartan norbait erortzen den bakoitzean, eskua ipintzea bularrean, damutuz erori izanaz; hori jende aurrean ere egin daiteke, jendeak erreparatu gabe zer egiten duen.
- [28] *Bigarrenena*. Nola g=ko lehen lerroak lehen azterketa esan nahi duen eta bigarren lerroak bigarren azterketa, begira beza gauean ea lehen lerrotik bigarrenera hobekuntzarik den; alegia, lehen azterketatik bigarrenera.
- [29] *Hirugarrenena*. Bigarren eguna lehenarekin erkatu; alegia, gaurko azterketa biak atzoko biekin, eta begira ea egun batetik bestera hobetu den.
- [30] *Laugarren eranskina*. Aste bat bestearekin erkatu, eta begira ea hobekuntzarik izan den lehengo astetik hona.

[31] **Nota.** Es de notar, que la primera G = grande, que se sigue, significa el domingo; la segunda más pequeña, el lunes; la tercera, el martes; y así conseqüenter.

G _____
g _____
g _____
g _____
g _____
g _____
g _____

[31] *Oharra.* Ohartu behar da ondoren datorren lehen G= handiak igandea esan nahi duela; bigarren txikiagoak, astelehena; hirugarrenak, asteartea; eta berdin ondoren:

G	
g	
g	
g	
g	
g	
g	

[32] EXAMEN GENERAL DE CONSCIENCIA PARA LIMPIARSE Y PARA MEJOR SE CONFESAR.

Presupongo ser tres pensamientos en mí, es a saber, uno propio mío, el qual sale de mi mera libertad y querer; y otros dos, que vienen de fuera: el uno que viene del buen espíritu y el otro del malo.

[33] DEL PENSAMIENTO.

1ª Hay dos maneras de merescer en el mal pensamiento que viene de fuera, verbigracia, viene un pensamiento de cometer un pecado mortal, al qual pensamiento resisto impromptu y queda vencido.

[34] **2^a** La 2^a manera de merescer es, quando me viene aquel mismo mal pensamiento, y yo le resisto, y tórname a venir otra y otra vez, y yo siempre resisto, hasta que el pensamiento va vencido; y esta 2^a manera es de más merescer que la primera.

[35] Venialmente se peca, quando el mismo pensamiento de pecar mortalmente viene, y el hombre le da oído, haciendo alguna mórula o rescibiendo alguna delectación sensual, o donde haya alguna negligencia en lanzar al tal pensamiento.

[36] **1ª** Hay dos maneras de pecar mortalmente: la primera es, cuando el hombre da consentimiento al mal pensamiento, para obrar luego, así como a consentido, o para poner en obra si pudiese.

[37] **2^a** La segunda manera de pecar mortalmente es quando se pone en acto aquel pecado, y es mayor por tres razones: la primera, por mayor tiempo, la segunda por mayor intensión, la tercera por mayor daño de las dos personas.

[38] DE LA PALABRA.

No jurar ni por Criador ni por criatura, si no fuere con verdad, necesidad y reverencia; necesidad entiendo, no quando se

[32] BAKOITZAREN BARRENAREN AZTERKETA OROKORRA,
GARBITZEKO ETA HOBEKI AITORTZEKO

Jakintzat ematen dut nigan hiru pentsamendu direla; hots, bat nire-nire, neure askatasun eta nahikera hutsetik sortzen dena; eta beste bi, kanpotik datozenak: bat espiritu onagandik, eta bestea txarragandik.

[33] PENTSAMENDUAZ

Kanpotik datorren pentsamendu txarrean bi modutara merezi daiteke. Lehenengoa, adibidez, badator bekatu larri bat egiteko pentsamendua; eta pentsamendu horri bertantxetik jarkitzen natzaio, eta garaitua gelditzen da.

[34] Merezitzeko bigarren modua da pentsamendu txar hura bera datorkidanean, eta ni jarkitzen natzaio, eta behin eta berriro itzultzen zait, eta ni beti jarkitzen naiz, harik eta pentsamenduak garaituta alde egiten duen arte; eta bigarren modu hau lehena baino merezimendu handiagokoa da.

[35] Bekatu arina egiten da, baldin bekatu larria egiteko pentsamendu bera badator eta gizonak nolabaiteko luzamendua onez entzuten badu, edota atsegin lizun samarra hartuz edota pentsamendu hura uxatzen berankor samarra izanez.

[36] Bekatu larria egiteko bi modu dira. *Lehena* da gizonak baietza ematea pentsamendu txarrari, gero burutzeko edo, ahal balu, baieztatu duen bezala egiteko.

[37] Bekatu larria egiteko *bigarren modua* da bekatu hura burutzea; eta hiru arrazoigatik da larriagoa: lehena, denbora gehiagogatik; bigarrena, zolitasun handiagogatik; hirugarrena, bi pertsonen kalte handiagogatik.

[38] HIZKETAZ

Ez zin egin, ez Egileagatik, ez sorkariagatik, non ez den egiaz, beharrez eta begirunez. Beharrez esan nahi dut, ez edozein

affirma con juramento cualquiera verdad, mas quando es de algún momento cerca el provecho del ánima o del cuerpo o de bienes temporales. Entiendo reverencia, quando en el nombrar de su Criador y Señor, considerando, acata aquel honor y reverencia debida.

- [39] Es de advertir que dado que en el vano juramento peccamos más jurando por el Criador que por la criatura, es más difícil jurar debidamente con verdad, necesidad y reverencia por la criatura que por el Criador, por las razones siguientes.

1ª ratio. La primera: quando nosotros queremos jurar por alguna criatura, en aquel querer nombrar la criatura, no nos hace ser tan atentos ni advertidos para decir la verdad, o para afirmarla con necesidad, como en el querer nombrar al Señor y Criador de todas las cosas.

2ª La segunda es que en el jurar por la criatura no tan fácil es de hacer reverencia y acatamiento al Criador, como jurando y nombrando el mismo Criador y Señor; porque el querer nombrar a Dios nuestro Señor trae consigo más acatamiento y reverencia, que el querer nombrar la cosa criada. por tanto, es más concedido a los perfectos jurar por la criatura, que a los imperfectos; porque los perfectos, por la assidua contemplación y illuminación del entendimiento, consideran, meditan y contemplan más ser Dios nuestro Señor en cada criatura, según su propia essencia, presencia y potencia; y así en jurar por la criatura son más aptos y dispuestos para hacer acatamiento y reverencia a su Criador y Señor, que los imperfectos.

3ª La tercera es, que en el assiduo jurar por la criatura se ha de temer más la idolatría en los imperfectos que en los perfectos.

- [40] No decir palabra ociosa, la qual entiendo, quando ni a mí ni a otro aprovecha, ni a tal intención se ordena. De suerte que en hablar para todo lo que es provecho, o es intención de aprovechar al ánima propia o agena, al cuerpo o a bienes temporales, nunca es ocioso; ni por hablar alguno en cosas que son

egia zinez baieztatzen denean, baizik garrantzi pixka batekoa denean arimaren probetxuaren gainean edo gorputzarenean edo munduko ondasunenean. Begirunea esan nahi dut, bere Egilea eta Jauna izendatzean, zor zaion ohorea eta begirunea ohartuz onartzen duenean.

- [39] Ohartu behar da, alferrikako zin egitean sorkariaz zin eginez baino Egileaz eginez bekatu handiagoa egiten dugunez gero, sorkariagatik behar bezala zin egitea egiaz, beharrez eta begirunez zailago dela Egileagatik baino. Arrazoi hauengatik:

Lehena: guk sorkari batez zin egin nahi dugunean, sorkaria izendatu nahiak berak ez digu uzten gauza guztien Jauna eta Egilea izendatu nahi izatean bezain zur eta adi izaten, egia esateko edo beharrez baiesteko.

Bigarrena hau da: sorkariaz zin egitean, ez da erraza Egileari begirune eta itzala gordetzea, Egileaz eta Jaunaz beraz zin egitean eta aipatzean adina; zeren Jainko gure Jauna aipatu nahiak gauza sortua aipatu nahiak baino begirune eta itzal handiagoa dakar berekin. Beraz, bikainei zilegiago zaie sorkariaz zin egitea erkinei baino; zeren bikainek adimenduaren sarritako kontenplatzeagatik eta argitasunagatik gehiago gogoratzen, hausnartzen eta kontenplatzen baitute Jainko gure Jauna dagoela sorkari bakoitzean bere izate berberaz, bere egotez eta ahalaz; eta hala sorkariaz zin egitean, erkinak baino pretago eta gaiago dira bere Egileari eta Jaunari begirune eta itzal egiteko.

Hau da *hirugarrena*: sorkariaz maiz zin egitean, beldur gehiago izan behar zaio idolatriari erkinetan bikainetan baino.

- [40] Ez esan alferrikako hitzik; zein baita, ene ustez, ez niri ez besteri mesederik egiten ez diona, eta egin ere nahi ez diona. Halako gisaz non probetxu den zernahitarako hitz egitea, edo bere arimari edo besterenari edo gorputzari edo munduko ondasunei probetxu egiteko intentzioa bada, ez baita inoiz alferrika-

fuera de su estado, así como si un religioso habla de guerras o mercancías. Mas en todo lo que está dicho hay mérito en bien ordenar, y peccado en el mal enderezar o en vanamente hablar.

- [41] No decir cosa de infamar o murmurar; porque si descubro pecado mortal que no sea público, pecco mortalmente; si venial, venialmente; y si defecto, muestro defecto propio. y siendo la intención sana, de dos maneras se puede hablar del pecado o falta de otro.

1ª manera. La primera: quando el pecado es público, así como de una meretriz pública, y de una sentencia dada en juicio, o de un público error, que inficiona las ánimas que conversa.

2ª Segundo, quando el pecado cubierto se descubre a alguna persona para que ayude al que está en pecado a levantarle; teniendo tamen algunas coniecturas o razones probables que le podrá ayudar.

- [42] DE LA OBRA.

Tomando por obiecto los diez mandamientos y los preceptos de la Iglesia y comendaciones de los superiores, todo lo que se pone en obra contra alguna destas tres partes, según mayor o menor calidad, es mayor o menor pecado. Entiendo comendaciones de superiores, así como bullas de cruzadas y otras indulgencias, como por paces, confessando y tomando el santísimo sacramento; porque no poco se peca entonces, en ser causa o en hacer contra tan pías exortaciones y comendaciones de nuestros mayores.

- [43] MODO DE HACER EL EXAMEN GENERAL, Y CONTIENE EN SI CINCO PUNTOS.

1º punto. El primer punto es dar gracias a Dios nuestro Señor por los beneficios rescibidos.

2º El 2º: pedir gracia para conoscer los pecados, y lanzallos.

koa; ez eta norbait bere bizibideaz kanpoko direnez mintzatzea, erlijioso bat guduez edo sal-eroskiez mintzatuko balitz bezala. Hala ere, esan den guztian merezimendua ongi zuzentzean da, eta bekatura oker taxutzean edo hutsalki mintzatzean.

- [41] Ez esan hitzik inor laidoztatzeko edo maxiatzeko; izan ere, agerikoa ez den bekatu larria azaltzen badut, bekatu larria egiten dut; arina azaltzen badut, arina egiten; hutsunea egiten badut, eure hutsunea azaltzen. Eta intentzioa ona izanik, bitara hitz egin daiteke hurkoaren bekatuaz edo okerraz.

Lehen era: bekatua agerikoa denean, esate baterako, emagalduek ageriko batena eta auzi baten ondoko epaiarena edo tratatzen dituen pertsonak kutsatzen dituen oker ageriko batena.

Bigarrena: bekatu estalia beste bati erakusten zaionean, bekatuan dagoenari jaikitzen laguntzeko; baina baldintza batekin, lagun diezaioketen goganbehar edo egiantzeko arrazoi batzuk izatea.

[42] EGINTZAREN GAINEAN

Hamar aginduak, Elizaren arauak eta agintarien gomendioak gaitzat harturik, hiru zati horietakoren baten kontra burutzen den edozer gauza bekatua da, txikiagoa edo handiagoa, nolako tasunekoa den. Hartzen ditut agintarien gomendiotzat gurutzada-buladak eta beste induljentziak; adibidez, bakerakoak, aitortu ondokoak eta sakramentu txit santua hartuz geroak; zeren orduan ez baita bekatu txikia egiten gure nagusien kontseiluen eta gomendio hain santuen eragile izanik edo kontra eginik.

[43] AZTERKETA OROKORRA EGITEKO ERA; BOST PUNTU DITU

Lehen puntua da hartutako ontarteengatik Jainko gure Jaunari eskerrak ematea.

Bigarrena: grazia eskatzea bekatuak ezagutzeko eta nardatzeko.

3º El 3º: demandar cuenta al ánima desde la hora que se levantó hasta el examen presente, de hora en hora o de tiempo en tiempo; y primero, del pensamiento; y después de la palabra y después, de la obra; por la misma horden que se dixo en el examen particular.

4º El 4º: pedir perdón a Dios nuestro Señor de las faltas.

5º El 5º: proponer enmienda con su gracia. Pater noster.

[44] **CONFESSION GENERAL CON LA COMUNION.**

En la general confessión, para quien voluntarie la quisiere hacer, entre otros muchos, se hallarán tres provechos para aquí.

1º El primero: dado que quien cada un año se confiesa no sea obligado de hacer confessión general, haciéndola hay mayor provecho y mérito, por el mayor dolor actual de todos pecados y malicias de toda su vida.

2º El segundo: como en los tales exercicios spirituales se conocen más interiormente los pecados y la malicia dellos, que en el tiempo que el hombre no se daba así a las cosas internas, alcanzando agora más conoscimiento y dolor dellos, habrá mayor provecho y mérito que antes hubiera.

3º El tercero es consequenter que estando más bien confessado y dispuesto, se halla más apto y más aparejado para rescibir el sanctíssimo sacramento; cuya recepción no solamente ayuda para que no caya en peccado, mas aún para conservar en aumento de gracia; la qual confessión general se hará mejor inmediate después de los exercicios de la primera semana.

Hirugarrena: arimari kontuak eskatzea jaiki zen ordutik oraingo azterketa arte, orduz ordu edo aldiz aldi; eta lehenik pentsamenduarena, eta gero hitzarena, eta gero egintzarena, bana-ko azterketan esan zen ordena berean.

Laugarrena: hutsegiteen barkamena eskatzea Jainko gure Jaunari.

Bosgarrena: haren graziaz hobekuntza erabakitzea. Gure Aita.

[44] AITORTZA OROKORRA JAUNARTZEAREKIN

Aitortza orokorrean, bere gogoz egin nahi duenarentzat, beste probetxu askozaz gainera, hiru aurkituko dira honako:

Lehena. Urtero aitortza egiten duena aitortza orokorra egitera behartua ez dagoenez gero, egiten badu probetxua eta merezimendua handiagoak dira, bizitza guztiko bekatu eta gaiztakeria guztien damu berri handiagoagatik.

Bigarrena. Direlako gogojardunotan bekatuak eta beren txar-keriak barrenago ezagutzen dira, gizona barneko arazoez hainbeste arduratzen ez zen garaian baino; ezagutza eta dolu handiagoa lorturik orain, lehen zen baino probetxu eta merezimendu handiagoa izango da.

Hirugarrena. Hori horrela delarik, hobeki konfesatua eta pres-tatua egonik, gaiago eta duinago da sakramentu santua hartze-ko, zeinen hartzeak ez bakarrik laguntzen baitu bekatuan ez erortzeko, baizik baita grazia ugariagoan irauteko ere. Hortaz, aitortza orokor hori hobeki egingo da lehen asteko jardunen ondo-ondoan.

- [45] PRIMER EXERCICIO ES MEDITACION CON LAS TRES POTENCIAS SOBRE EL 1º, 2º Y 3º PECADO; CONTIENE EN SI, DESPUES DE UNA ORACION PREPARATORIA Y DOS PREAMBULOS, TRES PUNTOS PRINCIPALES Y UN COLOQUIO.
- [46] **Oración.** La oración preparatoria es pedir gracia a Dios nuestro Señor, para que todas mis intenciones, acciones y operaciones sean puramente ordenadas en servicio y alabanza de su divina majestad.
- [47] **1º preámbulo.** El primer preámbulo es composición viendo el lugar. Aquí es de notar, que en la contemplación o meditación visible, así como contemplar a Christo nuestro Señor, el qual es visible, la composición será ver con la vista de la imaginación el lugar corpóreo, donde se halla la cosa que quiero contemplar. Digo el lugar corpóreo, así como un templo o monte, donde se halla Jesu Christo o nuestra Señora, según lo que quiero contemplar. En la invisible, como es aquí de los pecados, la composición será ver con la vista imaginativa y considerar mi ánima ser encarcerada en este cuerpo corruptible y todo el compósito en este valle como desterrado; entre brutos animales. digo todo el compósito de ánima y cuerpo.
- [48] **2º preámbulo.** El segundo es demandar a Dios nuestro Señor lo que quiero y deseo. La demanda ha de ser según subiecta materia, es a saber, si la contemplación es de resurrección, demandar gozo con Christo gozoso; si es de pasión, demandar pena, lágrimas y tormento con Christo atormentado. Aquí será demandar vergüenza y confusión de mí mismo, viendo cuántos han sido dañados por un solo pecado mortal y cuántas veces yo merescía ser condenado para siempre por mis tantos peccados.
- [49] **Nota.** Ante todas contemplaciones o meditaciones, se deben hacer siempre la oración preparatoria sin mudarse y los dos preámbulos ya dichos, algunas veces mudándose, según subiecta materia.

- [45] LEHEN JARDUNA HIRU AHALMENEKIN EGINIKO HAUSNARTZEA DA LEHEN, BIGARREN ETA HIRUGARREN BEKATUEI BURUZ. PRESTAMEN-OTOITZ BATEN ETA BI HITZAURREREN ONDOREN, HIRU PUNTU NAGUSI ETA ELKARRIZKETA BAT DITU BERE BAITAN
- [46] *Prestamen-otoitza* Jainko gure Jaunari grazia eskatzea da, ene asmo, egintza eta ariketa guztiak Jainko handiaren zerbitzura-ko eta gorespenerako garbiro zuzen daitezen.
- [47] *Lehen hitzaurrea* irudipena da, tokia ikusiz. Hemen ohartu behar da ikusgarri den zer bait kontenplatzean edo hausnartzean –Kristo gure Jauna, adibidez, ikusgarri baita–, irudipena izango dela irudi-ikuspenez toki gorpuzdun bat ikertzea, non baitago kontenplatu nahi dudana. Toki gorpuzduna diot, esate baterako, tenplu edo mendi bat, non baitago Jesu Kristo edo Ama Birjina, zer nahi dudan kontenplatu. Ezin ikus daitezkeen, hemen bekatuak bezala, irudipena izango da ikertzea ene arima irudi-ikuspenez eta so egitea gorputz ustelkor honetan bahitua dagoela, eta nahastura guztia –arimaren eta gorputzaren nahastura guztia, diot– ibar honetan atzerriratu bezala abere zakarren artean.
- [48] *Bigarrena* da Jainko gure Jaunari nahi eta gogo dudana eskatzea. Aurretik ezarritako gaiaren arabera izan behar du eskeak; alegia, baldin kontenplazioa Kristoren berpiztea bada, poza eskatu Kristo poztuarekin; baldin haren nekaldia bada, nekea, negarra eta oinazea eskatu Kristo oinazetuarekin. Hemen neure buruaz lotsaizuna eta ahalkeizuna eskatzea izango da, ikusirik zenbat izan diren bekatu larri bakarragatik damnatuak, eta zenbat aldiz nik merezi izan dudan neure honenbeste bekatugatik betiko damnatua izatea.
- [49] *Oharra*. Kontenplatze edo hausnartze guztiak baino lehen, beti prestamen-otoitza aldaketarik gabe eta bi hitzaurre aipatuak egin behar dira, aldatuz batzuetan aurretik ezarritako gaiaren arabera.

- [50] **1º punto.** El primer punto será traer la memoria sobre el primer pecado, que fue de los ángeles, y luego sobre el mismo el entendimiento discurriendo, luego la voluntad, queriendo todo esto, memorar y entender, por más me envergonzar y confundir; trayendo en comparación de un pecado de los ángeles tantos pecados míos, y donde ellos por un pecado fueron al infierno, cuántas veces yo le he merecido por tantos. Digo traer en memoria el pecado de los ángeles; cómo siendo ellos criados en gracia, no se queriendo ayudar con su libertad para hacer reverencia y obediencia a su Criador y Señor, viniendo en superbia, fueron conuertos de gracia en malicia, y lanzados del cielo al infierno; y así, conseqüenter, discurrir más en particular con el entendimiento, y conseqüenter moviendo más los afectos con la voluntad.
- [51] **2º punto.** El segundo: hacer otro tanto, es a saber, traer las tres potencias sobre el pecado de Adán y Eva; trayendo a la memoria cómo por el tal pecado hicieron tanto tiempo penitencia, y cuánta corrupción vino en el género humano, andando tantas gentes para el infierno. Digo traer a la memoria el 2º pecado, de nuestros padres, cómo después que Adán fue criado en el campo damaceno, y puesto en el paraíso terrenal, y Eva ser criada de su costilla, siendo bedados que no comiesen del árbol de la sciencia, y ellos comiendo, y asimismo pecando, y después vestidos de túnicas pellíceas, y lanzados del paraíso, vivieron sin la justicia original, que habían perdido, toda su vida en muchos trabajos y mucha penitencia; y conseqüenter discurrir con el entendimiento más particularmente, usando de la voluntad como está dicho.
- [52] **3º punto.** El tercero: asimismo hacer otro tanto sobre el tercero pecado particular de cada uno que por un pecado mortal es ido al infierno, y otros muchos sin cuento por menos pecados que yo he hecho. Digo hacer otro tanto sobre el 3º pecado particular, trayendo a la memoria la gravedad y malicia del pecado contra su Criador y Señor, discurrir con el entendi-

- [50] *Lehen puntua* izango da gogora ekartzea lehen bekatua, aingeruek egina, eta gero adimena hausnartzen horrexen gainean, azkenik nahimena, hau guztia oroitu eta aditu nahirik, nerau gehiago lotsarazteko eta ahalkerazteko, konparatuz aingeruen bekatu batekin neure hainbeste bekatu, eta haiek infernura joan zirela bekatu bategatik, zenbat aldiz merezi ote dut nik joatea hainbestegatik. Diot aingeruen bekatua gogora ekarri; nola haiek grazian kreatuak izan arren, beren Egileari eta Jaunari begirapena eta mendetasuna erakusteko ez baliatu nahi izanik beren libertateaz, graziatik gaiztakeriara bihurtu ziren harroturik eta zerutik infernura jaurtikiak izan; eta, horrenbestez, gehiago oldoztu bereziki adimenaz, eta horrenbestez gehiago mugitu eraspenak borondatez.
- [51] *Bigarrena*. Beste horrenbeste egin, hau da, hiru ahalmenak ekarri Adanen eta Ebaren bekatura; gogoratuz nola bekatu horregatik egin zuten hainbat denbora penitentzia, eta nola-ko ustelkeria nagusitu zen gizadiatz, hainbat jende infernura abiaturik. Diot gure arbasoen bigarren bekatua gogora ekartzeko, nola Adan Damaskoko landan sortua izanik eta lurreko paradisuari ezarria, eta Eba haren saihesten-hezurretik sortua, eragotzi zitzaizen jakite-zuhaitzetik jatea, eta nola haiek halere jan eta bekatu egin zuten, eta gero, larru-soinekoz jantzita eta paradisuatik jaurtita, galdutako jatorrizko zuzentasunik gabe bizi izan ziren bizitza guztian lan handietan eta penitentzia latzetan; eta beraz adimenaz zehatzago pentsatu, borondateaz esana den bezala baliatuz.
- [52] *Hirugarrena*. Berebat beste horrenbeste egin hirugarren, norberaren, bekatuaren gainean: nola bekatu larri bategatik infernura joan den, eta beste ezin konta ahala ere bai, nik baino bekatu gutxiagogatik. Diot hirugarren, norberaren, bekatuaren gainean beste hainbeste egiteko, bere Kreatzailearen eta Jaunaren kontrako bekatuaren larritasuna eta gaiztakeria gogora ekarriz, oldoztu adimenaz nola beka-

miento cómo en el pecar y hacer contra la bondad infinita, justamente a sido condenado para siempre, y acabar con la voluntad, como está dicho.

- [130] *Laugarrena*. Lehen astean esan ziren hamar eranskinetatik bigarrena, seigarrena, zazpigarrena eta hamargarrena aldatu egin behar dira bigarren aste honetan [74, 78, 79, 82]. Bigarrenean, jaiki orduko neure aurrean ezarriko dut egin behar dudarik kontenplazioa, betiko Hitz gizondua gehiago ezagutzeko, gehiago zerbitzatzeko eta hari gehiago jarraitzeko. Eta seigarrena izango da gogora ekartzea maiz Kristo gure Jaunaren bizitza eta misterioak, haren Gizakundetik hasi eta kontenplatzen ari naizen puntu edo misteriora arte. Eta zazpigarrena izango da ardura behar dela iluntasuna edo argitasuna lortzen, eta eguraldi onez edo bestelakoez baliatzen, hainbat zenbat gogojardunak egiten ari denak sumatuko duen nahi duena aurkitzeko on edo lagun egin diezaiokeela. Eta hamargarren eranskinean, gogojardunak egiten ari denak kontenplatzen ari den misterioen arabera jokatu behar du; zeren batzuek penitentzia eskatzen dute, besteek ez. Halako gisaz non arreta handiz egin daitezen hamar eranskinak.

- [131] **5ª nota.** La quinta nota: en todos los ejercicios, dempto en el de la media noche y en el de la mañana, se tomará el equivalente de la 2ª addición, de la manera que se sigue: luego en acordándose que es hora del ejercicio que tengo de hacer, antes que me vaya, poniendo delante de mí a donde voy y delante de quién, resumiendo un poco el ejercicio que tengo de hacer, y después haciendo la 3ª addición entraré en el ejercicio.
- [132] **2º día. El segundo día,** tomar por primera y segunda contemplación la presentación en el templo, núm. [268], y la huyda como en destierro a Egipto, núm. [269], y sobre estas dos contemplaciones se harán dos repeticiones y el traer de los cinco sentidos sobre ellas de la misma manera que se hizo el día precedente.
- [133] **Nota.** Algunas veces aprovecha, aunque el que se exercita sea recio y dispuesto, el mudarse desde este 2º día hasta el 4º inclusive para mejor hallar lo que desea, tomando sola una contemplación en amaneciendo y otra a la hora de missa, y repetir sobre ellas a la hora de vísperas, y traer los sentidos antes de cena.
- [134] **3º día. El tercero día,** cómo el niño Jesú era obediente a sus padres en Nazaret, núm. [271], y cómo después le hallaron en el templo, núm. [272] y así consequenter hacer las dos repeticiones y traer los cinco sentidos.

[135] **PREAMBULO PARA CONSIDERAR ESTADOS.**

Preámbulo. Ya considerando el exemplo que Christo nuestro Señor nos ha dado para el primer estado, que es en custodia de los mandamientos, siendo él en obediencia a sus padres, y asimismo para el 2º, que es de perfección evangélica, quando quedó en el templo, dexando a su padre adoptivo y a su madre natural, por vacar en puro servicio de su Padre eternal; comenzaremos juntamente contemplando su vida, a investigar y a demandar en qué vida o estado de nosotros se quiere servir su divina majestad; y assí para alguna introducción dello, en el pri-

- [131] *Bosgarren* oharra. Jardun guztietan, gauerdikoa eta goizekoa izan ezik, bigarren eranskinaren ordekoa hartuko da [74], gisa honetan: egin behar dudan jardunaren ordua dela oroitzean, joan baino lehen, nora eta noren aurrera noan ipiniko dut neure aurrean, eta laburtuz pixka bat egin behar dudan jarduna eta eginez gero hirugarren eranskina, hirugarren jardunari ekingo diot.
- [132] **BIGARREN EGUNA.** Egun honetan lehen eta bigarren kontenplaziotzat tenpluan aurkeztea hartu [268], eta ihesa, Egiptorako desterruan bezala [269]; eta bi kontenplazio hauen gainean bi berriztapen egingo dira, bost zentzumenak haietara ekarriz, aurreko egunean egin zen bezala.
- [133] *Oharra.* Batzuetan on da gogojardunak egiten dituenen, sendoa eta prestua izan arren, bigarren egun honetatik laugarrenera aldatzea, hau barne, gogo duena hobeki aurkitzeko, kontenplazio bat bakarrik hartuz egunsentian eta bestea meza garaian, eta haietara itzuli bezpera orduan, eta bost zentzuak ekarri afalaurrean.
- [134] **HIRUGARREN EGUNEAN,** gogora ekarri nola Jesus haurra esaneko zitzaion Nazareten bere gurasoei [271], eta nola gero tenpluan aurkitu zuten [272]; eta horrela bi berriztapenak egin eta bost zentzumenak ekarri.

[135] **BIZIBIDEAK AZTERKATZEKO HITZAURREA**

Aztertu dugu Kristo gure Jaunak, bere gurasoei esaneko izanik, lehen bizibiderako eman digun exenplua, hots, aginduak betetzea; bigarreneko emana ere bai, hau da, ebanjelio-bikaintasuna, tenpluan gelditu zenean bere betiko Aitaren zerbitzuan bakarrik jarduteko, bere aitaordea eta berezko ama utzirik. Bere bizitza kontenplatzeaz batera, azterkatzen eta galdegiten hasiko gara nolako bizitzaz edo bizibideaz guk zerbitzatzeko nahi duen. Hartara, harira etortzeko, hurrengo lehen jardunean Kristo gure Jaunaren asmoa ikusiko dugu

mer ejercicio siguiente veremos la intención de Christo nuestro Señor y, por el contrario, la del enemigo de natura humana; y cómo nos debemos disponer para venir en perfección en cualquier estado o vida que Dios nuestro Señor nos diere para elegir.

- [136] El quarto día, Meditación de dos banderas, la una de Christo, summo capitán y Señor nuestro; la otra de Lucifer, mortal enemigo de nuestra humana natura.

Oración. La sólita oración preparatoria.

- [137] **1º preámbulo.** El primer preámbulo es la historia: será aquí cómo Christo llama y quiere a todos debaxo de su bandera, y Lucifer, al contrario, debaxo de la suya.
- [138] **2º preámbulo.** El 2º: composición viendo el lugar; será aquí ver un gran campo de toda aquella región de Hierusalén, adonde el summo capitán general de los buenos es Christo nuestro Señor; otro campo en región de Babilonia, donde el caudillo de los enemigos es Lucifer.
- [139] **3º preámbulo.** El 3º: demandar lo que quiero; y será aquí pedir conocimiento de los engaños del mal caudillo y ayuda para dellos me guardar, y conocimiento de la vida verdadera que muestra el summo y verdadero capitán, y gracia para le imitar.
- [140] **1º punto.** El primer punto es imaginar así como si se asentase el caudillo de todos los enemigos en aquel gran campo de Babilonia, como en una grande cáthedra de fuego y humo, en figura horrible y espantosa.
- [141] **2º punto.** El 2º: considerar cómo hace llamamiento de innumerables demonios y cómo los esparce a los unos en tal ciudad y a los otros en otra, y así por todo el mundo, no dexando provincias, lugares, estados, ni personas algunas en particular.
- [142] **3º punto.** El 3º: considerar el sermón que les hace, y cómo los amonesta para echar redes y cadenas; que primero hayan de tentar de cobdicia de riquezas, como suele, ut in pluribus, para que más fácilmente vengan a vano honor del mundo, y después a crescida soberuia; de manera que el primer escalón sea de

batetik eta giza naturaren etsaiarena bestetik; eta nola pres-
tatu behar dugun bikaintasunera heltzeko, Jainko gure
Jaunak aukeran ematen digun edozein bizibidetan edo bizi-
tzatan.

- [136] LAUGARREN EGUNA, bi ikurrinen hausnarketa, bata
Kristorena, zeina gure kapitain eta jaun gorenena den; bestea
Luziferrena, gure giza naturaren etsai minarena.

Ohizko prestamen-otoitza.

- [137] *Lehen hitzaurrea* istorioa da; hemen izango da nola Kristok
deitzen gaituen eta nahi gaituen guztiok bere ikurrinpean; eta
Luziferrek, berriz, berepean.

- [138] *Bigarrena* irudipena da, tokia ikusirik; hemen izango da
Jerusalengo lurralde hartako guztiko landa handia ikustea, non
Kristo gure Jauna baita on direnen buruzagi nagusi handiena;
beste landa Babilonia lurraldean, non etsaien aitzindaria
Luzifer baita.

- [139] *Hirugarrena*, nahi dudana eskatzea; eta hemen izango da
aitzindari gaiztoaren amarruen ezagupena eskatzea, eta haieta-
tik aldentzeko laguntza; eta egiazko buruzagi nagusiak erakus-
ten duen benetako bizitzaren ezagupena, eta haren antzera
bizitzeko grazia.

- [140] *Lehen puntua* da irudikatzea etsai guztien buruzagia esertzen
balitz bezala Babiloniako landa handi hartan, suzko eta kezko
katadera handi batean, itxura izugarri eta ikaragarrian.

- [141] *Bigarrena*, gogoratu nola deitzen dituen ezin konta ahala dea-
bru, eta nola barreiatzen dituen batzuk halako hiritan eta bes-
teak halakotan, eta horrela mundu guztian zehar, eskualde,
bazter, toki eta pertsonarik utzi gabe.

- [142] *Hirugarrena*, gogoratu nolako hitzaldia egiten dien eta nola
aholkatzen dituen sareak eta kateak botatzera; lehenik aberas-
tasun-gutiziaz tentatu behar dituztela, ohi duenez gehienetan,
errazkiago etor daitezen munduko ospe hutsalera, eta gero
hantuste larrira; lehenbiziko maila aberastasunena izan dadin,

riquezas, el 2º de honor, el 3º de soberuía, y destos tres escalones induce a todos los otros vicios.

[143] Assí por el contrario se ha de imaginar del summo y verdadero capitán, que es Christo nuestro Señor.

[144] **1º puncto.** El primer puncto es considerar cómo Christo nuestro Señor se pone en un gran campo de aquella región de Hierusalén en lugar humilde, hermoso y gracioso.

[145] **2º puncto.** El 2º: considerar cómo el Señor de todo el mundo escoge tantas personas, apóstoles, discípulos, etc., y los envía por todo el mundo, esparciendo su sagrada doctrina por todos estados y condiciones de personas.

[146] **3º puncto.** El 3º: considerar el sermón que Christo nuestro Señor hace a todos sus siervos y amigos, que a tal jornada envía, encomendándoles que a todos quieran ayudar en traerlos, primero a summa pobreza spiritual, y si su divina majestad fuere servida y los quisiere elegir, no menos a la pobreza actual; 2º, a deseo de oprobrios y menosprecios, porque destas dos cosas se sigue la humildad; de manera que sean tres escalones: el primero, pobreza contra riqueza; el 2º, oprobrio o menosprecio contra el honor mundano; el 3º, humildad contra la soberuía; y destos tres escalones induzgan a todas las otras virtudes.

[147] **Coloquio.** Un coloquio a nuestra Señora, porque me alcance gracia de su hijo y Señor, para que yo sea recibido debaxo de su bandera, y primero en summa pobreza espiritual, y si su divina majestad fuere servido y me quisiere elegir y rescibir, no menos en la pobreza actual; 2º, en pasar oprobrios y injurias por más en ellas le imitar, sólo que las pueda pasar sin pecado de ninguna persona ni displacer de su divina majestad, y con esto una Ave María.

2º coloquio. Pedir otro tanto al Hijo, para que me alcance del Padre, y con esto decir Anima Christi.

3º coloquio. Pedir otro tanto al Padre, para que él me lo conceda, y decir un Pater noster.

bigarrena ospearena, hirugarrena harrokeriarena, eta hiru maila hauetatik beste grina guztietara erakartzen du.

[143] Halaber kontrara pentsatu behar da egiazko kapitain nagusia den Kristo gure Jaunaz.

[144] *Lehen puntua* da gogoratzea nola Kristo gure Jauna ezartzen den Jerusalemgo lurralde hartako landa handi batean, toki apal, eder eta politean.

[145] *Bigarrena*, gogoratu nola mundu guztiko Jaunak hautatzen dituen hainbeste jende, apostolu, ikasle, etab., eta nola igortzen dituen mundu guztian zehar, bere dotrina sakratua barreiatuz maila eta mota guztietan.

[146] *Hirugarrena*, gogoratu Kristo gure Jaunak lanbide hartara igortzen dituen bere morroi eta lagun guztiei egiten dien hitzaldia, gomendatuz lagun diezaieten guztiei etortzen lehenik espiritu-ko pobrezia osora, eta Jainko handiak gogoa balu eta hautatu nahi balitu, baita egitezko pobrezia ere; bigarrenik, laidoak eta arbuioak nahi izatera, bi gauza horietatik baitator apaltasuna, hiru maila izan daitezen: lehena, pobrezia aberastasunaren aurka; bigarrena, laidoa edo arbuioa munduko ospearen kontra; hirugarrena, apaltasuna harrokeriaren aurka; eta hiru maila hauetatik erakar ditzaten beste bertute guztietara.

[147] *Hizketatxo* bat gure Amari, eskura diezadan grazia bere Seme eta Jaunagandik, ni bere ikurrinpean onartua izateko, eta lehenik espirituko pobrezia osoan eta, Jainko handiak nahi izango balu eta hautatu eta onartu nahi izango banindu, baita egitezko pobrezian ere; bigarrenik, isekak eta irainak jasaten, haietan bere antza hobeki har dezadan, baldin jasan ahal baditzat inoren bekaturik eta Jainko handiaren atsekaberik gabe; eta hainbestez agurmaria bat.

Bigarren hitzaurrea. Semeari, Aitagandik beste horrenbeste eskura diezadan eskatu; eta honekin Kristoren Arima errezatu.

Hirugarren hitzaurrea. Aitari beste hainbeste eskatu, berak eskura diezadan; eta Gure Aita bat esan.

[148] **Nota.** Este ejercicio se hará a media noche y después otra vez a la mañana, y se harán dos repeticiones deste mismo a la hora de missa y a la hora de vísperas, siempre acabando con los tres coloquios de nuestra Señora, del Hijo y del Padre. Y el de los binarios que se sigue a la hora antes de cenar.

[149] Cuarto día. El mismo cuarto día se haga meditación de tres binarios de hombres, para habrazar el mejor.

Oración. La sólita oración preparatoria.

[150] **1º preámbulo.** El primer preámbulo es la historia, la qual es de tres binarios de hombres, y cada uno dellos ha adquerido diez mil ducados, no pura o débitamente por amor de Dios, y quieren todos salvarse y hallar en paz a Dios nuestro Señor, quitando de sí la gravedad e impedimento que tienen para ello en la affectión de la cosa adquisita.

[151] **2º preámbulo.** El 2º: composición viendo el lugar: será aquí ver a mí mismo, cómo estoy delante de Dios nuestro Señor y de todos sus sanctos, para desear y conoscer lo que sea más grato a la su divina bondad.

[152] **3º preámbulo.** El 3º: demandar lo que quiero: aquí será pedir gracia para elegir lo que más a gloria de su divina majestad y salud de mi ánima sea.

[153] **1º binario.** El primer binario querría quitar el affecto que a la cosa adquisita tiene, para hallar en paz a Dios nuestro Señor, y saberse salvar, y no pone los medios hasta la hora de la muerte.

[154] **2º binario.** El 2º quiere quitar el affecto, mas ansí le quiere quitar, que quede con la cosa adquisita, de manera que allí venga Dios donde él quiere, y no determina de dexarla, para ir a Dios, aunque fuesse el mejor estado para él.

[155] **3º binario.** El 3º quiere quitar el affecto, mas ansí le quiere quitar, que también no le tiene affectión a tener la cosa adquisita o no la tener, sino quiere solamente quererla o no quererla, según que Dios nuestro Señor le pondrá en voluntad, y a la

- [148] *Oharra*. Jardun hau gauerdian egingo da, eta gero goizean berriz, eta honexen bi errepikatze egingo dira mezatakoan eta bezperatakoan; betiere Ama Birjinaren, Semearen eta Aitaren hiru hitzaurreekin bukatuz. Eta ondoko bikoteena, afalaurrean.
- [149] *Laugarren egun berean* egin bedi hiru giza bikoteen hausnartzea, hoberena besarkatzeko.
Ohizko prestamen-otoitza.
- [150] *Lehen hitzaurrea* istorioa da, hiru giza bikoteen istorioa; eta horietako bakoitza hamar mila dukaten jabe egin da, ez garbi-ro edo behar bezala jainko-maitasunagatik, eta guztiek nahi dute salbatu eta onezkoak egin Jainko gure Jaunarekin, bere-gandik kenduz hartarako duten eragozpen edo oztopoa beretu duten gauzaren atxikian.
- [151] *Bigarrena* irudipena da tokia ikusirik; hemen izango da nerau ikustea, nola nagoen Jainko gure Jaunaren eta bere santu guztien aurrean, desiratzeko eta ezagutzeko Jainko onari atseginena izango zaiona.
- [152] *Hirugarrena*, nahi dudana eskatzea; hemen izango da erregutzea grazia, Jainko handiaren eta ene arimaren osasunaren aintzarik handienekoa izango dena hautatzeko.
- [153] *Lehen bikoteak* nahi luke beretu duen gauzari dion eraspena kendu, Jainko gure Jaunarekin onezkoak egiteko eta salbatu ahal izateko, baina ez ditu bideak ipintzen heriotzako ordu arte.
- [154] *Bigarrenak* nahi du eraspena kendu, baina nahi du kendu beretu duen gauzarekin geldituz, halako manieraz non Jainkoa etor dakion berak nahi duen tokira, eta ez du erabakitzen Jainkoagana joateko uztea, nahiz eta beretzat bizibiderik hobere-na izango litzatekeen.
- [155] *Hirugarrenak* nahi du eraspena kendu, eta beretu duen hori edukitzeko ala ez edukitzeko nahikaririk ez duela ere, kendu nahi du; baina gauza hori nahi izan edo ez izan, bakarrik nahi du Jainko gure Jaunak gogoan jarriko liokeenez, eta Jainko

tal persona le parecerá mejor para servicio y alabanza de su divina majestad; y, entretanto quiere hacer cuenta que todo lo dexa en affecto, poniendo fuerza de no querer aquello ni otra cosa ninguna, si no le moviere sólo el servicio de Dios nuestro Señor, de manera que el deseo de mejor poder servir a Dios nuestro Señor le mueva a tomar la cosa o dextarla.

- [156] **3 coloquios.** Hacer los mismos tres coloquios que se hicieron en la contemplación precedente de las dos banderas [147].
- [157] **Nota.** Es de notar que quando nosotros sintimos affecto o repugnancia contra la pobreza actual, quando no somos indiferentes a pobreza o riqueza, mucho aprovecha para extinguir el tal affecto desordenado, pedir en los coloquios (aunque sea contra la carne) que el Señor le elija en pobreza actual; y que él quiere, pide y suplica, sólo que sea servicio y alabanza de la su divina bondad.
- [158] **Quinto día.** EL QUINTO DIA, contemplación sobre la partida de Christo nuestro Señor desde Nazaret al río Jordán, y cómo fue bautizado, núm. [273].
- [159] **1ª nota.** Esta contemplación se hará una vez a la media noche, y otra vez a la mañana, y dos repeticiones sobre ella a la hora de missa y vísperas, y antes de cena traer sobre ella los cinco sentidos; en cada uno destos cinco exercicios preponiendo la sólita oración preparatoria y los tres preámbulos según que de todo esto está declarado en la contemplación de la incarnación y del nascimiento, y acabando con los tres coloquios de los tres binarios, o según la nota que se sigue después de los binarios.
- [160] **2ª nota.** El examen particular después de comer y después de cenar se hará sobre las faltas y negligencias cerca los exercicios y addiciones deste día, y así en los que se siguen.
- [161] **Sexto día.** EL SEXTO DIA, contemplación cómo Christo nuestro Señor fue desde el río Jordán al desierto inclusive, llevando en todo la misma forma que en el quinto.

handiaren zerbitzu eta gorespenerako hobe legokiokeela uste izango lukeenez; eta, hartarainokoa, guztia gogoz utzitakotzat etsi nahi du, ez halakorik, ez eta bestelakorik ere gura izaten ez ekinik, gure Jainko Jaunaren zerbitzu hutsak eragiten ez balio; Jainkoaren morroi hobe ahal izateko, harako gauza hartzera ala uztera gogoak eragin behar baitu.

- [156] Bi ikurrinen aurreko kontenplazioan egin ziren *hiru hitzaurre berberak* egin [147].
- [157] *Oharra*. Ohartu behar da guk egitezko pobrezari eraspina edo gorrotoa sentitzen diogunean, pobreziarako edo ondasunerako ezaxolak ez geranean, neurrigabeko eraspen hori itzaltzeko on dela hitzaurreetan eskatzea (haragiaren kontra izanik ere) Jaunak aukera dezan egitezko pobrezian; eta berak nahi duela eta eskatzen duela, haren jaingo-ontasunaren zerbitzu eta gorespina izatekotan, ordea.
- [158] BOSGARREN EGUNA, kontenplazioa Kristo gure Jaunaren ibilaldiaz Nazaretetik Jordan ibairaino, eta nola bataiatua izan zen [273].
- [159] *Lehen oharra*. Kontenplazio hau behin gauerdian egingo da, eta goizean berriz, eta haren gainean bi berriztatze, meza orduan eta bezperatakoan, eta afalaurrean ekarri bost zentzumenak haren gainera; bost jardun hauetako bakoitzean aurretik esanez ohizko prestamen-otoitza eta hiru hitzaurreak, honetaz guztiaz esana dagoen bezala Gizakundearen [102] eta Jaio-tzaren kontenplazioan [111], eta hiru bikoteen hiru hitzaurreez bukatuz [147], edo bikoteen ondoren dagoen oharraren arabera [157].
- [160] *Bigarren oharra*. Azterketa berezia, bazkalondoan eta afalondoan, egun honetako jardunen eta eranskinen gainean egindako nagitasunez eta akatsez egingo da; eta berdin hurrengoetan.
- [161] SEIGARREN EGUNEAN, kontenplatu nola Kristo gure Jauna Jordan ibaitik basamortura ere joan zen; denean bosgarreneko modu berbera gorde.

Séptimo día. EL SEPTIMO DIA, cómo sancto Andrés y otros siguieron a Christo nuestro Señor, núm. [275].

Octavo día. EL OCTAVO, del sermón del monte, que es de las ocho bienaventuranzas, núm. [278].

Nono día. EL NONO, cómo Christo nuestro Señor apareció a sus discípulos sobre las ondas de la mar, núm. [279].

Décimo día. EL DECIMO, cómo el Señor predicaba en el templo, núm. [288].

Undécimo día. EL UNDECIMO, de la resurrección de Lázaro, núm. [285].

Duodécimo día. EL DUODECIMO, del día de ramos, núm. [287].

- [162] **1ª nota.** La primera nota es que en las contemplaciones desta segunda semana, según que cada uno quiere poner tiempo o según que se aprovechare, puede alongar o abreviar. Si alongar, tomando los misterios de la visitación de nuestra Señora a sancta Elisabet, los pastores, la circuncisión del niño Jesús, y los tres reys, y así de otros; y si abreviar, aun quitar de los que están puestos; porque esto es dar una introducción y modo para después mejor y más cumplidamente contemplar.
- [163] **2ª nota.** La 2ª: la materia de las elecciones se comenzará desde la contemplación de Nazaret a Jordán, tomando inclusive, que es el quinto día, según que se declara en lo siguiente.
- [164] **3ª nota.** La 3ª: antes de entrar en las elecciones, para hombre affectarse a la vera doctrina de Christo nuestro Señor, aprovecha mucho considerar y advertir en las siguientes tres maneras de humildad, y en ellas considerando a ratos por todo el día, y asimismo haciendo los coloquios según que adelante se dirá.
- [165] **1ª humildad.** La primera manera de humildad es necessaria para la salud eterna, es a saber, que así me baxe y así me humille quanto en mí sea possible, para que en todo obedesca a la ley de Dios nuestro Señor, de tal suerte que aunque me hiciesen Señor de todas las cosas criadas en este mundo, ni por la propia vida temporal, no sea en deliberar de quebrantar un mandamiento, quier divino, quier humano, que me obligue a peccado mortal.

ZAZPIGARREN EGUNA da nola San Andres eta besteak jarraitu zitzaizkion Kristo gure Jaunari [274].

ZORTZIGARRENA, mendiko hitzaldiaz, hau da, zortzi zoriontasunez [278].

BEDERATZIGARRENA, nola Kristo gure Jauna agertu zitzairen bere apostoluei itsasoko olatuen gainean [280].

HAMARGARRENA, nola Kristok sermoiak egiten zituen templuan [288].

HAMAIKAGARRENA, Lazaroren berpizkundea [285].

HAMABIGARRENA, Erramu eguna [287].

- [162] *Lehen oharra* da bigarren aste honetako kontenplazioetan bakoitzak nahi duenaren arabera, edo denbora eman edo onura hartu, luza dezakeela edo laburtu aldia. Luzatu nahi badu, har bitza misterio hauek: gure ama Birjinak santa Elisabeti egin agerraldia, artzainak, Jesus haurraren erdainkuntza, hiru erregeak eta abar; eta laburtu nahi badu, ipinitako batzuk ere ken ditzake. Zeren hau sarrera eta eredu bat ematea baita, gero hobeto eta osokiago kontenplatzeke.
- [163] *Bigarren*. Aukeraketen gaia Nazaretoko kontenplaziotik Jordanera hasiko da, barne harturik bosgarren eguna izateko, ondokoan agertzen denez.
- [164] *Hirugarrena*. Aukeraketan hasi baino lehen, gizona Kristo gure Jaunaren egiazko dotrinara zaletzeko, on egiten du gogoratzek eta sumatzek ondoko hiru apaltasun-modu hauek, eta egun guztian tarteka haietan pentsatzek, eta baita hitzaurreak egiteak ere, gero esango denez.
- [165] *Lehen apaltasun-modua* betiko osasunerako beharrezkoa da, alegia, neure burua ahal nukeen guztia beheratzea eta apaltzea, Jainko gure Jaunaren legeari edozertan obedi diezaiodan, hala-ko gisaz non, mundu honetako gauza kreatu guztien buru egingo banindute ere, ez dezadan pentsa agindu bat urratzea ere mundu honetako neure bizitzagatik, ez jainkozko ez gizonezko, bekatu larria egitera behartuko nauenik.

- [166] **2ª humildad.** La 2ª es más perfecta humildad que la primera, es a saber, si yo me hallo en tal punto que no quiero ni me afecto más a tener riqueza que pobreza, a querer honor que deshonor, a desear vida larga que corta, siendo igual servicio de Dios nuestro Señor y salud de mi ánima; y, con esto, que por todo lo criado ni porque la vida me quitasen, no sea en deliberar de hacer un peccado venial.
- [167] **3ª humildad.** La 3ª es humildad perfectísima, es a saber, quando incluyendo la primera y segunda, siendo igual alabanza y gloria de la divina majestad, por imitar y parescer más actualmente a Christo nuestro Señor, quiero y elijo más pobreza con Christo pobre que riqueza, oprobrios con Christo lleno dellos que honores, y desear más de ser estimado por vano y loco por Christo que primero fue tenido por tal, que por sabio ni prudente en este mundo.
- [168] **Nota.** Assí para quien desea alcanzar esta tercera humildad, mucho aprovecha hacer los tres coloquios de los binarios ya dichos, pidiendo que el Señor nuestro le quiera elegir en esta tercera mayor y mejor humildad, para más le imitar y servir, si igual o mayor servicio y alabanza fuere a la su divina majestad.

[169] PREAMBULO PARA HACER ELECCION.

1º punto. En toda buena elección, en quanto es de nuestra parte, el ojo de nuestra intención debe ser simple, solamente mirando para lo que soy criado, es a saber, para alabanza de Dios nuestro Señor y salvación de mi ánima; y así cualquier cosa que yo eligiere, debe ser a que me ayude para al fin para que soy criado, no ordenando ni trayendo el fin al medio, mas el medio al fin; así como acaece que muchos eligen primero casarse, lo qual es medio, y secundario servir a Dios nuestro Señor en el casamiento, el qual servir a Dios es fin. Assimismo hay otros que primero quieren haber beneficios y después ser-

- [166] *Bigarrena* lehenbizikoa baino apaltasun bikainagoa da, alegia, ni halako puntuan banago non ez baitut nahi eta ez nago ere zale-tuago aberats izatera pobre izatera baino, ohorea maitatzera desohorea baino, bizitza luzea desiratzera laburra baino, hori Jainko gure Jaunaren zerbitzu berdina eta ene arimaren osasuna izatekotan; eta, horrekin, ez dakidala burutik pasa ere bekatu arin bat egitea mundu guztiagatik, ez eta inork bizitza kentzeagatik.
- [167] *Hirugarrena* apaltasun txit bikaina da, alegia, lehena eta bigarrena barne izanik, eta Jainko handiaren gorespena eta aintza berdinak izanik, orain Kristo gure Jaunaren itxura eta antz handiagokoa izatearren, nahiago dut eta hautatzen dut pobrezia Kristo pobrearekin aberastasuna baino, eta laidoak laidoz beteriko Kristorekin ohoreak baino, eta nahiago dut erotzat eta zoro-tzat edukia izatea Kristogatik, hura izan baitzen halakotzat edu-kia aurrea, jakintsutzat eta zuhurtzat mundu honetan baino.
- [168] *Oharra*. Hirugarren apaltasun hau iritsi nahi duenarentzat oso onuragarri da bikoteen hiru hitzaurre aipatuak egitea, Jainko gure Jaunari eskatuz hirugarren apaltasun handien eta bikainen honetan aukera dezan, haren antz handiago izateko eta gehia-go zerbitzatzeko, Jainko handiaren zerbitzu eta gorespen berdina edo handiago izango bada.

[169] AUKERA EGITEKO HITZAURREA

Aukeramen on guztietan, gure asmo-begiak geurez ahal geneza-keen bezain sotila izan behar du, honi bakarrik begiratu, zerta-rako sortua izan naizen, alegia, Jainko gure Jaunaren gorespe-nerako eta neure arimaren salbamenerako; eta hala, edozer aukeratzen dudala, sortua izan naizen helbururako izan behar du, ez helburua zuzenduz eta ekarriz bide izatera, baizik bidea helburua izatera. Gertatzen baita askok aukeratzen dutela lehe-nik ezkontzea, zein bide baita, eta bigarrenik Jainko gure Jaunari ezkontzan zerbitzatzea, Jainkoari zerbitzatzea baita helbu-rua. Halaber badira lehenik ontarteak izan nahi dituztenak, eta

vir a Dios en ellos. De manera que éstos no van derechos a Dios, mas quieren que Dios venga derecho a sus affecciones desordenadas y, por consiguiente, hacen del fin medio y del medio fin. De suerte que lo que habían de tomar primero, toman postrero; porque primero hemos de poner por obieto querer servir a Dios, que es el fin y secundario tomar beneficio o casarme, si más me conviene, que es el medio para el fin; así ninguna cosa me debe mover a tomar los tales medios o a privarme dellos, sino sólo el servicio y alabanza de Dios nuestro Señor y salud eterna de mi ánima.

[170] PARA TOMAR NOTICIA DE QUE COSAS SE DEBE
 HACER ELECCION, Y CONTIENE EN SI CUATRO
 PUNTOS Y UNA NOTA.

1º punto. El primer punto: es necessario que todas cosas, de las quales queremos hacer elección, sean indiferentes o buenas en sí, y que militen dentro de la sancta madre Iglesia hierárchica, y no malas ni repugnantes a ella.

[171] **2º punto.** Segundo: hay unas cosas que caen debaxo de elección inmutable, así como son sacerdocio, matrimonio, etc.; hay otras que caen debaxo de elección mutable, assí como son tomar beneficios o dexarlos, tomar bienes temporales o lanzallos.

[172] **3º punto.** Tercero: en la elección inmutable, que ya una vez se ha hecho elección, no hay más que elegir, porque no se puede desatar, así como es matrimonio, sacerdocio, etc. Sólo es de mirar que si no ha hecho elección debida y ordenadamente, sin affecciones dessordenadas, arepentiéndose procure hacer buena vida en su elección; la qual elección no parece que sea vocación divina, por ser elección desordenada y oblica, como muchos en esto yerran haciendo de oblica o de mala elección vocación divina; porque toda vocación divina es siempre pura y limpia, sin mixtión de carne ni de otra affección alguna dessordenada.

gero Jainkoa haietan zerbitzatu. Horiek ez doaz zuzen Jainkoagana, baizik nahi dute Jainkoa etor dadin zuzen beren nahikari okerretara eta, beraz, helburua bide egiten dute eta bidea helburu; lehenbizikotzat hartu behar luketena azkenekotzat harturik. Zeren lehendabizi ipini behar baitugu helburutzat Jainkoa zerbitzatu nahi izatea, zein baita helburua, eta bigarrenik ontartekak biltzea edo ezkontzea, gehiago komeni bazait, hori baita helbururako bidea; horregatik ezerk ez dit eragin behar halako bideak hartzera edo baztertzerara, Jainko gure Jaunaren zerbitzuak eta gorespenak eta neure arimaren betiko osasunak baizik.

[170] ZEIN GAUZAREN AUKERA EGIN BEHAR DEN,
ETA LAU PUNTU ETA OHAR BAT DITU
BEREBAITAN

Lehen puntua. Beharrezkoa da aukeran jarri nahi ditugun gauza guztiak ezaxolak izatea edo berez onak, eta Eliza ama santa hierarkioaren mendean daudenak, eta txarrak ez direnak, ez eta higuingarriak.

[171] *Bigarrena.* Ezin aldatuzko aukeraren inguruan egokitzen diren gauzak badira, hala nola apaizgoa, ezkontza, etab.; beste batzuk alda daitekeen aukerapean egokitzen dira, hala nola ontarteak hartzea edo uztea, aldiko ondasunak beretzea edo baztertzea.

[172] *Hirugarrena.* Ezin aldatuzko aukera behin eginez gero, ezin aukera daiteke gehiago, behin egina ezin aska daitekeelako; hala dira ezkontza, apaizgoa, etab. Soilik begiratu behar da, ez baldin badu aukera behar bezala eta zuzen egin, nahikari okerririk gabe, saia dadila damutuz aukeratutakoan bizimodu ona egiten; halako aukerak ez dirudi Jainkoaren deia denik, okerra eta zeharkakoa delarik; honetan asko okertzen dira, aukera zeharra eta txarra jainko-deitzat harturik; izan ere, Jainkoaren edozein dei soila eta garbia da beti, haragiz eta beste nahikari txarrez nahastu gabea.

[173] **4º punto.** Quarto: si alguno a hecho elección debida y ordenadamente de cosas que están debajo de elección mutable, y no llegando a carne ni a mundo, no hay para qué de nuevo haga elección, mas en aquélla perficionarse quanto pudiere.

[174] **Nota.** Es de advertir que si la tal elección mutable no se ha hecho sincera y bien ordenada, entonces aprovecha hacer la elección debidamente, quien tubiere deseo que dél salgan frutos notables y muy apacibles a Dios nuestro Señor.

[175] TRES TIEMPOS PARA HACER SANA Y BUENA ELECCION EN CADA UNO DELLOS.

1º tiempo. El primer tiempo es quando Dios nuestro Señor así mueve y atrae la voluntad, que sin dubitar ni poder dubitar, la tal ánima devota sigue a lo que es mostrado; assí como San Pablo y San Matheo lo hicieron en seguir a Christo nuestro Señor.

[176] **2º tiempo.** El segundo: quando se toma asaz claridad y cognoscimiento, por experiencia de consolationes y dessolaciones, y por experiencia de discreción de varios espíritus.

[177] **3º tiempo.** El tercero tiempo es tranquilo, considerando primero para qué es nascido el hombre, es a saber, para alabar a Dios nuestro Señor y salvar su ánima, y esto deseando elije por medio una vida o estado dentro de los límites de la Iglesia, para que sea ayudado en servicio de su Señor y salvación de su ánima. Dixe tiempo tranquillo quando el ánima no es agitada de varios spíritus y usa de sus potencias naturales líbera y tranquilamente.

[178] Si en el primero o segundo tiempo no se hace elección, síguense cerca este tercero tiempo dos modos para hacerla.

EL PRIMER MODO PARA HACER SANA Y BUENA ELECCION CONTIENE EN SI SEIS PUNTOS.

1º punto. El primer punto es proponer delante la cosa sobre que quiero hacer elección, así como un officio o beneficio para tomar o dexar, o de otra cualquier cosa que cae en elección mutable.

- [179] **2º punto.** Segundo: es menester tener por obieto el fin para que soy criado, que es para alabar a Dios nuestro Señor y salvar mi ánima; y con esto hallarme indiferente sin affec-
ción alguna dessordenada, de manera que no esté más incli-
nado ni affectado a tomar la cosa propuesta, que a dexarla, ni
más a dexarla que a tomarla; mas que me halle como en
medio de un peso para seguir aquello que sintiere ser más en
gloria y alabanza de Dios nuestro Señor y salvación de mi
ánima.
- [180] **3º punto.** Tercero: pedir a Dios nuestro Señor quiera mover
mi voluntad y poner en mi ánima lo que yo debo hacer acerca
de la cosa propósita, que más su alabanza y gloria sea, discu-
rriendo bien y fielmente con mi entendimiento y eligiendo
conforme su sanctísima y beneplácita voluntad.
- [181] **4º punto.** Quarto: considerar raciocinando cuántos cóm-
odos o provechos se me siguen con el tener el officio o benefi-
cio propuesto, para sola la alabanza de Dios nuestro Señor y
salud de mi ánima; y, por el contrario, considerar assimismo
los incómodos y peligros que hay en el tener. Otro tanto
haciendo en la segunda parte, es a saber, mirar los cómodos y
provechos en el no tener; y assimismo por el contrario, los
incómodos y peligros en el mismo no tener.
- [182] **5º punto.** Quinto: después que así he discurrido y raciocina-
do a todas partes sobre la cosa propósita, mirar dónde más la
razón se inclina, y así según la mayor moción racional, y no
moción alguna sensual, se debe hacer deliberación sobre la
cosa propósita.
- [183] **6º punto.** Sexto: hecha la tal elección o deliberación, debe ir
la persona que tal ha hecho, con mucha diligencia, a la oración
delante de Dios nuestro Señor y offrescerle la tal elección para
que su divina majestad la quiera rescibir y confirmar, siendo su
mayor servicio y alabanza.

- [179] *Bigarrena*. Beharrezko da helburutzat edukitzea zertarako sortua izan nintzen, hots, Jainko gure Jauna gorestekoa eta ene arima salbatzeko; eta horregatik batere nahikari okerrik gabe ezaxol sentitzea, ez nagoela gauza eskainia hartzeko uzteko baino makurtuago eta lehiatuago, ez eta gehiago uzteko hartzeko baino; baizik egon behar dut pisu baten erdian bezala, jarraitzeko Jainko gure Jaunaren aintza eta gorespen handienarako eta ene arimaren salbamenerako izango dela uste dudanari.
- [180] *Hirugarrena*. Eska diezaiodan Jainko gure Jaunari mugi dezan ene borondatea eta ezar ene ariman, gauza eskainiaren gainean, egin behar dudana bere gorespen eta aintzarik handienarako izan dadila; neure adimenaz ongi eta zuzen jardunez eta bere borondate txit santuaren eta onesgarriaren arabera aukeratuz.
- [181] *Laugarrena*. Erabil gogoan, eta iker, Jainko gure Jaunaren gorespen hutserako eta ene arimaren osasunerako, zenbat onura edo ekoizpen datozkidan halako lanbide edo ontarte eskainitakoa edukitzetik; eta, alderantziz, halaber gogora nola-ko nekeak eta arriskuak dituen edukitzeak. Egin beste horrenbeste bigarren zatian, hots, begira ez edukitzearen onurak eta ekoizpenak; baita, alderantziz ere, ez edukitzeak berak dituen nekeak eta arriskuak.
- [182] *Bosgarrena*. Gauza eskainiaren gainean horrela ikertu eta arrazoitu dudalarik alde guztietatik, begira dezadan zein aldetara makurtzen den gehiago arrazoia; eta horrela, arrazoizko mugida handiagoaren eta ez inola haragizkoaren arabera egin behar da erabakia gauza hartaz.
- [183] *Seigarrena*. Eginik honelako aukera edo erabakia, hori egin duen pertsonak joan behar du, arreta handiaz, Jainko gure Jaunaren aurrera otoitz egitera eta eskaini behar dio egindako aukera, Jainko handiak onartu nahi izan dezan eta baieztatu, baldin bere zerbitzu eta gorespen handiena bada.

[184] EL SEGUNDO MODO PARA HACER SANA Y BUENA
ELECCION CONTIENE EN SI CUATRO REGLAS
Y UNA NOTA.

1ª regla. La primera es que aquel amor que me mueve y me hace elegir la tal cosa, descienda de arriba del amor de Dios, de forma que el que elige sienta primero en sí que aquel amor más o menos que tiene a la cosa que elige es sólo por su Criador y Señor.

[185] **2ª regla.** La 2ª: mirar a un hombre que nunca he visto ni conocido, y desseando yo toda su perfección, considerar lo que yo le diría que hiciese y eligiese para mayor gloria de Dios nuestro Señor y mayor perfección de su ánima, y haciendo yo asimismo, guardar la regla que para el otro pongo.

[186] **3ª regla.** La 3ª: considerar como si estuviese en el artículo de la muerte, la forma y medida que entonces querría haber tenido en el modo de la presente elección, y reglándome por aquella, haga en todo la mi determinación.

[187] **4ª regla.** La 4ª: mirando y considerando cómo me hallaré el día del juicio, pensar cómo entonces querría haber deliberado acerca la cosa presente; y la regla que entonces querría haber tenido, tomarla agora, porque entonces me halle con entero placer y gozo.

[188] **Nota.** Tomadas las reglas sobredichas para mi salud y quietud eterna, haré mi elección y oblación a Dios nuestro Señor, conforme al sexto punto del primer modo de hacer elección.

[189] PARA ENMENDAR Y REFORMAR LA PROPIA VIDA Y
ESTADO.

Es de advertir que acerca de los que están constituidos en prelatura o en matrimonio (quier abunden mucho de los bienes temporales, quier no), donde no tienen lugar o muy prompta voluntad para hacer elección de las cosas que caen debaxo de

[184] AUKERA SENDOA ETA ONA EGITEKO BIGARREN
 MODUAK BERE BAITAN LAU ARAU ETA OHAR
 BAT DITU

Lehena da zerbait maitatzera mugitzen nauena eta halako gauza aukerarazten didana goitik datorrela, Jainkoaren maitasunetik; beraz, hautatzen duenak lehenik beragan nabaritu behar du bere Egile eta Jaunagandik bakarrik dela aukeratzen duenarekiko maitasuna, handia edo txikia.

[185] *Bigarrena*, begira diezaiodan inoiz ikusi eta ezagutu ez dudan gizon bati eta, bikaintasun osoa opa diodalarik, pentsa dezadan zer esango niokeen egiteko eta aukeratzeko Jainko gure Jaunaren aintzarik handienerako eta bere arimaren hobekuntzarik handienerako; eta, gauza bera nik eginik, gorde neronek bestearentzat ipintzen dudan araua.

[186] *Hirugarrena*, hiltzorian banengo bezala, ekarri gogora aukeraldi honetan nolako eitea eta neurria orduan eduki izana neronek nahiko nukeen; eta, honelako eitez, hartu orotan neure erabakia.

[187] *Laugarrena*, azken auzi-egunean nola aurkituko naizen begiratzuz eta gogoratzuz, pentsa dezadan oraingo arazo hau nola erabaki izana orduan nahiko nukeen; eta orain hartu orduan eduki izana nahiko nukeen araua, poz-pozik eta atseginez aurki nadin orduan.

[188] *Oharra*. Aipaturiko arauak hartuz gero neure betiko osasun eta lasaitasunerako, Jainko gure Jaunari egingo diot neure aukera eta eskaintza, aukera egiteko lehen moduko seigarren puntuaren arabera [183].

[189] NORK BERE BIZITZA ETA BIZIBIDEA ZUZENTZEKO
 ETA ALDATZEKO

Eliz kargu batean edo ezkontzan jarrita daudenentzat hau argitu behar da (ondasun handiak izan edo ez izan): biziki on zaie-la, baldin aukera aldakorrari dagozkion gaiak hautatzeko garairik edo gogo handirik ez badute, aukera egin ordeztu, era

elección mutable, aprovecha mucho, en lugar de hacer elección, dar forma y modo de enmendar y reformar la propia vida y estado de cada uno dellos, es a saber, poniendo su creación, vida y estado para gloria y alabanza de Dios nuestro Señor y salvación de su propia ánima. Para venir y llegar a este fin, debe mucho considerar y ruminar por los ejercicios y modos de elegir, según que está declarado, cuánta casa y familia debe tener, cómo la debe regir y gobernar, cómo la debe enseñar con palabra y con exemplo; asimismo de sus facultades cuánta debe tomar para su familia y casa, y cuánta para dispensar en pobres y en otras cosas pías, no queriendo ni buscando otra cosa alguna sino en todo y por todo mayor alabanza y gloria de Dios nuestro Señor. Porque piense cada uno que tanto se aprovechará en todas cosas espirituales, quanto saliere de su proprio amor, querer y interesse.

eta bidea ematea norberaren bizitza eta estatusa zuzentzeko eta aldatzeko; alegia, beren izatea, bizitza eta bizibidea ipintzea Jainko gure Jaunaren aintzarako eta gorespenerako eta beren arimaren salbamenerako. Helburu honetara iristeko eta heltzeko, asko begiratu eta hausnartu behar du jardunez eta hautabidez, azaldua dagoen bezala [175-188]: ea zenbateko laguntaldea etxean eduki behar duen, nola zuzendu eta kudeatu behar duen, nola irakatsi behar dien hitzez eta exenpluz; halaber bere ondasunetatik, zenbat hartu behar duen bere sendiarentzat eta etxerako, eta zenbat behartsuentzat eta errukizko egintzetan erabiltzeko, ez nahi izanik eta ez bilatuz orotan eta ororen bidez Jainko gure Jaunaren gorespena eta aintza baizik. Bada, bakoitzak pentsatu behar du bere gogo, nahi eta ekoitzetik ateratzen den adina aurreratuko dela espirituko gauza guztietan.

TERCERA SEMANA

- [190] **1º día.** LA PRIMERA CONTEMPLACION, A LA MEDIA NOCHE, ES COMO CHRISTO NUESTRO SEÑOR FUE DESDE BETHANIA PARA HIERUSALEN A LA ULTIMA CENA INCLUSIVE, NUM. [289], Y CONTIENE EN SI LA ORACION PREPARATORIA, 3 PREAMBULOS, 6 PUNTOS Y UN COLOQUIO.

Oración. La sólita oración preparatoria.

- [191] **1º preámbulo.** El primer preámbulo es traer la historia, que es aquí cómo Christo nuestro Señor desde Bethania envió dos discípulos a Hierusalém a aparejar la cena, y después él mismo fue a ella con los otros discípulos; y cómo después de haber comido el cordero pascual y haber cenado, les lavó los pies, y dio su sanctísimo cuerpo y preciosa sangre a sus discípulos, y les hizo un sermón después que fue Judas a vender a su Señor.
- [192] **2º preámbulo.** El segundo, composición viendo el lugar: será aquí considerar el camino desde Bethania a Hierusalém, si ancho, si angosto, si llano, etcétera. Asimismo el lugar de la cena, si grande, si pequeño, si de una manera o si de otra.
- [193] **3º preámbulo.** El tercero, demandar lo que quiero: será aquí dolor, sentimiento y confusión, porque por mis peccados va el Señor a la pasión.
- [194] **1º punto.** El primer punto es ver las personas de la cena, y reflitiendo en mí mismo, procurar de sacar algún provecho dellas.
- 2º punto.** El segundo: oír lo que hablan, y asimismo sacar algún provecho dello.

HIRUGARREN ASTEA

- [190] LEHEN EGUNA. LEHEN KONTENPLAZIOA GAUER-
DIAN DA, KRISTO GURE JAUNA JOAN ZELA
BETANIAK JERUSALENERA AZKEN AFARIA
EGITERA [289]; BERE BAITAN DITU
PRESTAMEN-OTOITZA, HIRU HITZAURRE, SEI
PUNTU ETA HIZKETATXO BAT

Ohizko prestamen-otoitza.

- [191] *Lehen hitzaurrea* da istorioaz oroitzea; nola Kristo gure Jaunak bidali zituen bi ikasle Betaniatik Jerusalemenera, afaria prestatzera, eta nola gero bera joan zen hara beste ikasleekin; eta nola pazko-bildotsa jan eta afaldu ondoren, garbitu zizkien oinak eta eman ikasleei bere gorputz txit santua eta odol baliotsua, eta egin zien hitzaldia, Judas bere Jauna saltzera joan ondoren.
- [192] *Bigarrena* irudipena da, tokia ikusirik; hemen izango da begiratzea Betaniatik Jerusalemenerako bidea, ea zabala zen ala estua, ala zelaia, etab. Baita ere afaltokia, ea handia ala txikia, ea era batekoa, ea bestekoa.
- [193] *Hirugarrena*: nahi dudana eskatu; hemen izango da mina, nahigabea eta lotsa, Jauna nekaldira ene bekatuengatik doalako.
- [194] *Lehen puntua* da afaritako lagunak ikusi; eta neuregana itzulirik, haiengandik onura ateratzen saiatzea.
- Bigarrena*: entzun zer dioten; eta halaber handik onura ateratzea.

- 3º punto.** El 3: mirar lo que hacen y sacar algún provecho.
- [195] **4º punto.** El 4: considerar lo que Christo nuestro Señor padesce en la humanidad o quiere padescer, según el paso que se contempla; y aquí comenzar con mucha fuerza y esforzarme a doler, tristar y llorar, y así trabaxando por los otros puntos que se siguen.
- [196] **5º punto.** El 5: considerar cómo la Divinidad se esconde es a saber, cómo podría destruir a sus enemigos, y no lo hace, y cómo dexa padescer la sacratísima humanidad tan crudelísimamente.
- [197] **6º punto.** El sexto: considerar cómo todo esto padesce por mis peccados, etcétera, y qué debo yo hacer y padescer por él.
- [198] **Coloquio.** Acabar con un coloquio a Christo nuestro Señor, y al fin con un Pater noster.
- [199] **Nota.** Es de advertir, como antes y en parte está declarado, que en los coloquios debemos de razonar y pedir según la subiecta materia, es a saber, según que me hallo tentado o consolado, y según que deseo haber una virtud o otra, según que quiero disponer de mí a una parte o a otra, según que quiero dolerme o gozarme de la cosa que contemplo, finalmente pidiendo aquello que más efficazmente cerca algunas cosas particulares desseo; y desta manera puede hacer un sólo coloquio a Christo nuestro Señor o si la materia o la devoción le conmueve, puede hacer tres coloquios, uno a la Madre, otro al Hijo, otro al Padre, por la misma forma que está dicho en la segunda semana en la meditación de los dos binarios, con la nota que se sigue a los binarios.
- [200] SEGUNDA CONTEMPLACION A LA MAÑANA SERA
DESDE LA CENA AL HUERTO INCLUSIVE.
- Oración.** La sólita oración preparatoria.
- [201] **1º preámbulo.** El primer preámbulo es la historia: y será aquí, cómo Christo nuestro Señor descendió con sus once discípulos desde el monte Sión, donde hizo la cena, para el valle de Iosaphar dexando los ocho en una parte del valle y los otros

Hirugarrena: zer egiten duten begiratu; eta onura atera.

- [195] *Laugarrena:* Kristo gure Jaunak bere gizatasunean jasaten duena edo jasan nahi duena sumatu, pasadizo bakoitzari dagokionez; eta hemen indar biziz hasi eta ahalegindu min hartzen, tristatzen eta negar egiten; eta era honetan lan egin hurrengo puntuetan.
- [196] *Bosgarrena:* gogoratu nola ezkutatzen den jainkotasuna, alegia, nola ezezta litzakeen etsaiak eta ez duen egiten, eta nola uzten duen bere gizatasun txit deuna hain gogorki jasaten.
- [197] *Seigarrena:* oldoztu nola hau guztia jasaten duen nere bekatuengatik, etab.; eta zer egin eta jasan behar dudan nik hargatik.
- [198] Kristo gure Jaunari *hizketatxo bat eginez* amaitu, eta azkenean Gure Aita bat errezatuz.
- [199] *Oharra.* Erreparatu behar da, lehen nolabait azaldu denez [54], hitzalditxoetan gaiari dagokionez pentsatu eta eskatu behar dugula; alegia, atsekabeturik ala pozik nagoen, bertute bataren ala bestearen bila nabilen, neure burua alde batera ala bestera prestatu nahi dudan, kontenplatzen ari naizen gauzaz tristatu ala gozatu nahi dudan, azkenik gauza berezi batzuetan irrikarik bizienaz opa dudana eskatuz; eta horrela inork egin diezaioke Kristo gure Jaunari hitzalditxo bat bakarra edo, gaiak edo bihotzak eragiten badio, egin ditzake hiru hitzalditxo, bat Amari, bestea Semeari, bestea Aitari, bigarren astean esana dagoen bezala, bi ikurrinen hausnarketan [156], bikoteei darraikien oharrarekin [157].

[200] BIGARREN KONTENPLAZIOA GOIZEAN AFALTEGITIK BARATZERAINO IZANGO DA

Ohizko prestamen-otoitza.

- [201] *Lehen hitzaurrea* istorioa da; eta hemen izango da nola Kristo gure Jauna jaitsi zen bere hamaika ikasleekin Sion menditik, non afaria egin zuen, Josafat ibarrerantz, ibarreko alde batean zortzi eta baratzeko bestean beste hirurak utzirik;

tres en una parte del huerto, y poniéndose en oración suda sudor como gotas de sangre; y después que tres veces hizo oración al Padre, y despertó a sus tres discípulos, y después que a su voz cayeron los enemigos, y Judas dándole la paz y San Pedro derrocando la oreja a Malco, y Christo poniéndosela en su lugar, seyendo preso como malhechor, le llevan el valle abajo y después la cuesta arriba para la casa de Anás.

- [202] **2º preámbulo.** El segundo es ver el lugar: será aquí considerar el camino desde monte Sión al valle de Josaphar, y ansimismo el huerto, si ancho, si largo, si de una manera, si de otra.
- [203] **3º preámbulo.** El tercero es demandar lo que quiero, lo qual es propio de demandar en la pasión, dolor con Christo doloroso, quebranto con Christo quebrantado, lágrimas, pena interna de tanta pena que Christo pasó por mí.
- [204] **1ª nota.** En esta segunda contemplación, después que está puesta la oración preparatoria con los tres preámbulos ya dichos, se terná la misma forma de proceder por los puntos y coloquio que se tuvo en la primera contemplación de la cena; y a la hora de missa y vísperas, se harán dos repeticiones sobre la primera y segunda contemplación, y después antes de cena se traerán los sentidos sobre las dos sobredichas contemplaciones, siempre preponiendo la oración preparatoria y los tres preámbulos, según la subiecta materia, de la misma forma que está dicho y declarado en la segunda semana.
- [205] **2ª nota.** Según la edad, disposición y temperatura ayuda a la persona que se exercita, hará cada día los cinco ejercicios o menos.
- [206] **3ª nota.** En esta tercera semana se mudarán en parte la segunda y sexta addición; la segunda será, luego en despertándome, poniendo delante de mí a donde voy y a qué, resumiendo un poco la contemplación que quiero hacer, según el misterio fuere esforzándome, mientras me levanto y me visto, en entristecerme y dolerme de tanto dolor y de tanto padecer de Christo nuestro Señor. La sexta se mudará no procurando de traer pensamientos

eta otoitzean jarririk, odol-tantak bezalako izerdia zerion; eta Aitari hiru bider otoitz egin zion, eta hiru ikasleak esnatu zituen, eta haren hitzera etsaiek lurra jo zuten, eta Judasek muin egin zion, eta San Pedrok Malkori belarria ebaki, eta Kristok bere lekuan ipini, eta gaizkile bezala atxiloturik, ibarrean behera eraman zuten eta gero aldapan gora Anasen etxera.

- [202] *Bigarrena* da tokia ikustea; hemen izango da begiratzea Sion menditik Josafateko ibarreraino, baita baratzea ere nolakoa zen, zabala, luzea, era honetakoa ala bestekoa.
- [203] *Hirugarrena* nahi dudana eskatzea da, nekaldian eskatzea bidezko dena: mina Kristo minduarekin, karraska Kristo karraskatuarekin, malkoak eta barneko nekea Kristok nigatik jasan zuen hainbesteko nekeagatik.
- [204] *Lehen oharra*. Bigarren kontenplazio honetan, prestamen-otoitza eta esandako hiru hitzaurreak egin ondoren, afariko lehen kontenplazioan puntuekin eta hitzaurreekin bezalakoxe jardue-ra edukiko da; eta meza eta bezpera garaian bi berriztapen egingo dira, lehen eta bigarren kontenplazioen gainean; eta gero, afalurrean, zentzumenak ekarriko dira esandako bi kontenplazioetara; beti aurrenik prestamen-otoitza eta hiru hitzaurreak esanda, gaiari dagokionez, eta bigarren astean argitu eta azaldu zen bezala [119, 159 eta 72].
- [205] *Bigarren oharra*. Gogojardun-egileari adinak, gorputzaldiak eta eguraldiak laguntzen dioten neurrian, egingo ditu egunero bost jardun edo gutxiago.
- [206] *Hirugarren oharra*. Hirugarren aste honetan bigarren eta seigarren eranskina zerbait aldatuko dira. Bigarrena esnatu bezain laster izango da, neure begien aurrean ipinirik nora eta zertara noan, eta pixka bat laburturik egin nahi dudan kontenplazioa, zein eta nola den misterioa, eta jaikitzen eta janzten naizen bitartean eginahalak eginez, Kristo gure Jaunaren hainbeste oinazez eta hainbeste nekaldiz atsekabetuz eta errukituz.

alegres, aunque buenos y sanctos, así como son de resurrección y de gloria, mas antes induciendo a mí mismo a dolor y a pena y quebranto, trayendo en memoria freqüente los trabajos, fatigas y dolores de Christo nuestro Señor, que passó desde el puncto que nació hasta el misterio de la passión en que al presente me hallo.

[207] **4ª nota.** El examen particular sobre los exercicios y addiciones presentes se hará, así como se ha hecho en la semana passada.

[208] **2º día.** EL SEGUNDO DIA a la media noche, la contemplación será desde el huerto a casa de Anás, inclusive, núm. [291], y a la mañana de casa de Anás a casa de Cayphás, inclusive, núm. [292], después las dos repetitions y el traer de los sentidos, según que está ya dicho.

3º día. EL TERCERO DIA a la media noche, de casa de Cayphás a Pilato, inclusive, núm. [293], y a la mañana de Pilato a Herodes, inclusive, núm. [294], y después las repetitions y sentidos por la misma forma que está ya dicho.

4º día. EL QUARTO DIA a la media noche, de Herodes a Pilato, núm. [295], haciendo y contemplando hasta la mitad de los misterios de la misma casa de Pilato, y después, en el exercicio de la mañana, los otros misterios que quedaron de la misma casa, y las repetitions y los sentidos como está dicho.

5º día. EL QUINTO DIA a la media noche, de casa de Pilato hasta ser puesto en crux, núm. [296], y a la mañana, desde que fue alzado en crux hasta que espiró, núm. [297], después las dos repetitions y los sentidos.

6º día. EL SEXTO DIA a la media noche, desde la crux, descendiéndole hasta el monumento exclusive, núm [298], y a la mañana, desde el monumento inclusive hasta la casa donde Nuestra Señora fue después de sepultado su Hijo.

7º día. EL SEPTIMO DIA, contemplación de toda la pasión junta en el exercicio de la media noche y de la mañana, y en lugar de las dos repetitions y de los sentidos, considerar todo aquel día, quanto más freqüente podrá, cómo el cuerpo sacra-

Seigarrena aldatuko da pentsamendu alaiak, nahiz onak eta santuak izan, hala nola, berpizkundeari eta aintzari buruz, aha-leginduz ez ekartzen, baizik neure burua atsekabe, nahigabe eta nekeetara erakarritz, sarri gogoratzuz Kristo gure Jaunak jaio zenetik nekaldiaren une honetaraino pairatu zituen lanak, nekeak eta minak.

[207] *Laugarren oharra*. Azterketa berezia egingo da oraingo jardunez eta eranskinez, joan den astean bezala [160].

[208] BIGARREN EGUNAREN gauerdian, kontenplazioa izango da baratzetik Anasen etxera [291]; eta goizean, Anasen etxetik Kaifasenera [292], eta gero bi berriztapenak eta zentzumenak ezartzea, esan bezala [204].

HIRUGARREN EGUNEAN, gauerdian, Kaifasen etxetik Pilatosenera [293], eta, goizean, Pilatosenetik Herodesenera [294], eta gero berriztapenak eta zentzumenak, esana dagoen bezala [204].

LAUGARREN EGUNAREN gauerdian, Herodesenetik Pilatosengana [295], Pilatos beraren etxeko misterioen erdiraino eginez eta kontenplatuz, eta gero, goizeko jardueran, gelditu ziren etxe bereko misterioak, eta berriztapenak eta zentzumenak, esana dagoen bezala [204].

BOSGARREN EGUNAREN gauerdian, Pilatosen etxetik gurutzean jarri zuten arte [296], eta goizean, gurutzean altxatu zutenetik hil arte [297]; gero bi berriztapenak eta zentzumenak [204].

SEIGARREN EGUNAREN gauerdian, gurutzetik eraitsiz hilobira arte [298]; eta goizean, hilobitik, Andra Maria joan zen etxera arte, bere Semea ehortzi zutenean.

ZAZPIGARREN EGUNEAN, nekaldi guztiaren kontenplazioa gauerdiko eta goizeko jardunean bildua; eta bi berriztapenen eta zentzumenen ordezt, gogoratu egun osoan zehar, ahal bezain sarri, nola Kristo gure Jaunaren gorputz guztiz sakratua gelditu zen arimatik askatua eta banatua, eta ehortzia, non eta

tíssimo de Christo nuestro Señor quedó desatado y apartado del ánima, y dónde y cómo sepultado. Asimismo considerando la soledad de Nuestra Señora con tanto dolor y fatiga; después, por otra parte, la de los discípulos.

- [209] **Nota.** Es de notar que quien más se quiere alargar en la pasión, ha de tomar en cada contemplación menos misterios, es a saber, en la primera contemplación solamente la cena; en la 2ª el lavar los pies; en la 3ª el darles el sacramento; en la 4ª el sermón que Christo les hizo, y así por las otras contemplaciones y misterios. Asimismo, después de acabada la pasión, tome un día entero la mitad de toda la pasión, y el 2 día la otra mitad, y el 3 día toda la pasión.

Por el contrario, quien quisiere más abreviar en la pasión, tome a la media noche la cena; a la mañana, el huerto; a la hora de missa, la casa de Anás; a la hora de vísperas, la casa de Cayphás; en lugar de la hora antes de cena, la casa de Pilato; de manera que no haciendo repeticiones ni el traer de los sentidos, haga cada día cinco exercicios distintos, y en cada uno exercicio distinto misterio de Christo nuestro Señor; y después de así acabada toda la pasión, puede hacer otro día toda la pasión junta en un exercicio o en diversos, como más le parezca que aprovecharse podrá.

- [210] **REGLAS PARA ORDENARSE EN EL COMER PARA ADELANTE.**

1ª regla. La primera regla es, que del pan conviene menos abstenerse, porque no es manjar sobre el qual el apetito se suele tanto desordenar, o a que la tentación insista como a los otros manjares.

- [211] **2ª regla.** La segunda: acerca del beber parece más cómoda la abstinencia, que no acerca el comer del pan; por tanto, se debe mucho mirar lo que hace provecho, para admitir y lo que hace daño, para lanzallo.

nola. Halaber gogoratu Andre Mariaren bakardadea, halako nahigabe eta nekearekin; gero, bestalde, ikasleena.

- [209] *Oharra.* Erreparatu behar da nekaldian gehiago luzatu nahi duenak kontenplazio bakoitzean misterio gutxiago hartu behar dituela; alegia, lehen kontenplazioan afaria bakarrik; bigarren-ean oinak garbitzea; hirugarrenean eukaristia; laugarrenean Kristoren hitzaldia; eta halaber beste kontenplazio eta misterioetan.

Nekaldia bukatzean, har beza ere egun guzti batean nekaldi osoaren erdia, eta bigarren egunean beste erdia, eta hirugarrenean nekaldi osoa.

Aitzitik, nekaldian gehiago laburtu nahi duenak gogora beza gauerdian afaria, goizean baratzea, meza garaian Anasen etxea, bezpera garaian Kaifasen etxea, afalaurreko orduaren ordeztu Pilatosen etxea; halako gisaz non, berriztapenak eta zentzumen-ekartzea egin gabe, egin ditzan egunoro bost jarduera ezberdin, eta jarduera bakoitzean, Kristo gure Jaunaren misterio ezberdina; eta nekaldi guztia horrela amaitu ondoren, egin dezake beste egun batean nekaldi guztia batera, jardun bakarrean edo batzuetan, on handiena aterako duela uste duen bezala.

- [210] ARAUAK AURRERANTZEAN NEURRITSU IZATEKO JATEAN

Lehen araua da ez dela hain beharrezko ogiaz gabetzea, jaki horrek ez duelako gogoa hainbeste ateratzen neurritik, ez eta tentazioak jakietara hainbeste eragiten.

- [211] *Bigarrena.* Ogia jatean baino egokiago dirudi abstinentziak edanean; horregatik, asko begiratu behar da zerk egiten duen on, hartzeko, eta zerk kalte, jaurtitzeko.

- [212] **3ª regla.** La tercera: acerca de los manjares se debe tener la mayor y más entera abstinencia; porque así el apetito en desordenarse como la tentación en investigar son más prompts en esta parte, y así la abstinencia en los manjares para evitar desorden, se puede tener en dos maneras: la una en habituarse a comer manjares gruesos, la otra, si delicados, en poca cantidad.
- [213] **4ª regla.** La quarta: guardándose que no caiga en enfermedad, quanto más hombre quitare de lo conveniente, alcanzará más presto el medio que debe tener en su comer y beber, por dos razones: la primera, porque así ayudándose y disponiéndose, muchas veces sentirá más las internas noticias, consolaciones y divinas inspiraciones para mostrársele el medio que le conviene; la segunda, si la persona se vee en la tal abstinencia, y no con tanta fuerza corporal ni disposición para los ejercicios espirituales fácilmente vendrá a juzgar lo que conviene más a su sustentación corporal.
- [214] **5ª regla.** La quinta: mientras la persona come, considere como que vee a Christo nuestro Señor comer con sus apóstoles, y cómo bebe, y cómo mira, y cómo habla; y procure de imitarle. De manera que la principal parte del entendimiento se ocupe en la consideración de nuestro Señor, y la menor en la sustentación corporal, porque así tome mayor concierto y orden de cómo se debe haber y gobernar.
- [215] **6ª regla.** La sexta: otra vez mientras come, puede tomar otra consideración o de vida de sanctos o de alguna pía contemplación o de algún negocio spiritual que haya de hacer; porque estando en la tal cosa attento, tomará menos delectación y sentimiento en el manjar corporal.
- [216] **7ª regla.** La séptima: sobre todo se guarde que no esté todo su ánimo intento en lo que come, ni en el comer vaya apresurado por el apetito; sino que sea Señor de sí, así en la manera del comer, como en la cantidad que come.

- [212] *Hirugarrena*. Jakietan behar da eduki jan-uzterik handiena eta beteena; zeren gai honetan suspergarriagoak baitira bai jangura neurritik irteten, bai tentaldia ikertzen; eta horregatik jan-uztea jakietan, gehiegikeria uzteko, bitara eduki daiteke: bata, jaki lodiak jaten ohituz; bestea, guriak badira, gutxika janez.
- [213] *Laugarrena*. Gaitzen batean ez erortzeko arreta izanik, zenbat eta gehiago kendu batek egoki zaionetik, hainbat eta lehenago lortuko du jatean eta edatean eduki behar duen erdi-neurria; bi arrazoigatik: lehena, zeren bere buruari horrela prestatuz eta lagunduz, gehiago sentituko baititu askotan barneko berriak, pozaldiak eta jainko-argiak, komeni zaion erdi-neurria erakusteko; bigarrena, zeren, baldin pertsona aurkitzen bada gabezia handian eta ez gogojarduneratako behar adinako gorputz-kemen eta aldartean, aise etorriko baita ikustera bere gorputz-elikadurari gehiena komeni zaiona.
- [214] *Bosgarrena*. Inor jaten ari dela, gomuta beza nola ikusten duen Kristo gure Jauna bere ikasleekin jaten, eta nola edaten duen, eta nola begiratzeko, eta nola hitz egiten duen; eta saia bedi haren antzera egiten. Halako eran non adimenaren zati nagusia ari dadin gure Jaunagan pentsatzen, eta bestea gorputzaren sostenguan, horrela taxu eta erabide hobe izan dezan behar bezala jokatzeko eta gobernatzeko.
- [215] *Seigarrena*. Beste batean, jaten ari dela, egin dezake gogoeta, nahiz santuen bizitzaz, nahiz kontenplazio on batez, nahiz egin behar duen arazo espiritualen batez; izan ere, halako gauza bati adi egonik, atsegin edo gozo gutxiago hartuko dio jan-edanari.
- [216] *Zazpigarrena*. Batez ere ahalegin bedi bere gogo guztia zurt egon ez dadin jaten ari den gauzan, eta jatean ez bedi ibili goseak bultzaturik, baizik izan bedi bere buruaren jabe, bai jateko eran, bai janaren neurrian.

[217] **8ª regla.** La octava: para quitar dessorden mucho aprovecha que después de comer o después de cenar o en otra hora que no sienta apetito de comer, determine consigo para la comida o cena por venir, y ansí consequenter cada día, la cantidad que conviene que coma; de la qual por ningún apetito ni tentación pase adelante, sino antes por más vencer todo apetito desordenado y tentación del enemigo, si es tentado a comer más, coma menos.

[217] *Zortzigarrena*. Eragabea kentzeko on da, bazkalondoan edo afa-londoan edo jateko gogorik ez den beste orduren batean, bere buruarekin erabakitzea hurrengo bazkari edo afarirako, eta hala egunero berdin, zenbat komeni zaion jatea egun bakoi-tzean; eta neurri honetatik ez aurrera ateratzea ezein jateko gogo edo zirikaldigatik; oster-a, hobeki hezteko edozein jangu-ra oker edo etsaiaren zirikaldi, gehiago jateko zirikaturik bada-go, jan beza gutxiago.

CUARTA SEMANA

- [218] LA PRIMERA CONTEMPLACION COMO CHRISTO
NUESTRO SEÑOR APARESCIO A NUESTRA SEÑORA,
NUM. [299].

Oración. La sólita oración preparatoria.

- [219] **1º preámbulo.** El primer preámbulo es la historia, que es aquí cómo después que Christo espiró en la crux, y el cuerpo quedó separado del ánima y con él siempre unida la Divinidad, la ánima beata descendió al infierno, asimismo unida con la Divinidad; de donde sacando a las ánimas justas y viniendo al sepulchro y resuscitado, apareció a su bendita Madre en cuerpo y en ánima.
- [220] **2º preámbulo.** El 2º: composición viendo el lugar, que será aquí, ver la disposición del sancto sepulchro, y el lugar o casa de nuestra Señora, mirando las partes della en particular, asimismo la cámara, oratorio, etc..
- [221] **3º preámbulo.** El tercero: demandar lo que quiero, y será aquí pedir gracia para me alegrar y gozar intensamente de tanta gloria y gozo de Christo nuestro Señor.
- [222] **1º puncto. 2º puncto. 3º puncto.** El primero, 2º y 3º puncto sean los mismos sólitos que tuvimos en la cena de Christo nuestro Señor, núm. [190].
- [223] **4º puncto.** El quarto: considerar cómo la Divinidad, que parecía esconderse en la pasión, paresce y se muestra agora tan

LAUGARREN ASTEA

- [218] LEHEN KONTENPLAZIOA NOLA KRISTO GURE
JAUNA AGERTU ZITZAION
AMA BIRGINARI [299]

Ohizko prestamen-otoitza.

- [219] *Lehen hitzaurrea* istorioa da nola, Kristo gurutzean hil ondoren eta gorputza arimatik banatua eta harekin jainkotasuna elkartua beti gelditu ondoren, jaitsi zen infernura arima don-tsua, hau ere jainkotasunarekin elkartua; handik arima zuzenak atera zituen, eta hilobira etorri, eta berpizturik, Ama dohatsuari agertu zitzaion gorputzez eta arimaz.
- [220] *Bigarrena*: irudipena da tokia ikusirik; hemen hilobi santuaren gertuera begiratu eta batez ere ikusi Andra Mariaren tokia edo etxea eta bere aldeak; baita gela, otoitz-lekua, etab. ere.
- [221] *Hirugarrena*: nahi dudana eskatu; eta hemen izango da grazia biziki pozteko eta atsegintzeko Kristo gure Jaunaren hainbateko alaitasunaz eta pozaz.
- [222] *Lehen, bigarren eta hirugarren* puntu-gaiak Kristo gure Jaunaren azken afarikoak izan bitez [194].
- [223] *Laugarrena*, gogoan hartu nola jainkotasuna, nekaldian ezkutatzen ari zela zirudiena, orain berpizkunde txit santuan hain

miraculosamente en la santísima resurrección, por los verdaderos y santísimos efectos della.

- [224] **5º puncto.** El quinto: mirar el officio de consolar, que Christo nuestro Señor trae, y comparando cómo unos amigos suelen consolar a otros.
- [225] **Coloquio.** Acabar con un coloquio o coloquios, según subiecta materia y un Pater noster.
- [226] **1ª nota.** En las contemplaciones siguientes se proceda por todos los misterios de la resurrección, de la manera que abaxo se sigue, hasta la ascensión inclusive, llevando y teniendo en lo restante la misma forma y manera en toda la semana de la resurrección que se tuvo en toda la semana de la pasión. De suerte que por esta primera contemplación de la resurrección se rija en quanto los preámbulos, según subiecta materia; y en quanto los cinco punctos sean los mismos; y las addiciones que están abaxo sean las mismas; y así en todo lo que resta se puede regir por el modo de la semana de la pasión, así como en repeticiones, cinco sentidos, en acortar o alargar los misterios, etc.
- [227] **2ª nota.** La segunda nota: comúnmente en esta quarta semana es más conveniente que en las otras tres passadas, hacer quatro exercicios y no cinco: el primero, luego en levantando a la mañana; el 2 a la hora de missa o antes de comer, en lugar de la primera repetición; el 3 a la hora de vísperas en lugar de la segunda repetición; el 4 antes de cenar, traiendo los cinco sentidos sobre los tres exercicios del mismo día, notando y haciendo pausa en las partes más principales, y donde haya sentido mayores mociones y gustos spirituales.
- [228] **3ª nota.** La tercera, dado que en todas las contemplaciones se dieron tantos punctos por número cierto, así como tres o cinco, etc., la persona que contempla puede poner más o menos punctos, según que mejor se hallare; para lo qual mucho aprovecha antes de entrar en la contemplación coniecturar y señalar los punctos, que ha de tomar en cierto número.

miragarriri agertzen eta azaltzen den, bere ondorio zinezko eta txit santuei esker.

- [224] *Bosgarrena*, begira eta berdindu nola Kristo gure Jaunak lagunak alaitzeko eginkizuna dakarren eta nola lagunek elkar alaitzen duten.
- [225] *Hizketatxo batez amaitu*, edo gehiagoz, gai bakoitzaren arabera, eta esan Gure Aita bat
- [226] *Lehen oharra*. Hurrengo kontenplazioetan berpizkundeko misterio guztietan ibili behar da ondoren egiten den bezala [227], igokunderaino barne; gainerakoan nekaldiko aste osoan [204] eduki zen eite eta molde berbera edukiz eta eramanez berpizkundeko aste guztian. Halako eran non hitzaurreak edukiko baitira berpizkundeko lehenengo kontenplazioak eskatzen duenez; eta bost puntuak, berberak izan daitezela; eta geroko eranskinak ere berberak [229]; eta horrela geratzen den guztian eduki daitezke nekaldiko astean bezala, adibidez berriztatzeak, bost zentzumenak, misterioak laburtze edo luzatzeak, etab. [204, 205].
- [227] *Bigarren oharra*. Gehienetan, laugarren aste honetan aurreko beste hiruretan baino egokiago da lau jardunak egitea eta ez bost. Lehenengoa, goizean jaiki eta berehala; bigarrena, meza garaian edo bazkalaurrean, lehen berriztatzearen ordezt; hiru-garrena, bezpera garaian, bigarren berriztatzearen ordezt; laugarrena, afalaurrean, egun bereko hiru jardunetan ipiniz bost zentzumenak, geldituz eta geratuz alderik nagusienetan eta mugidarik eta espirituko gozorik handienak nabaritu ditudanetan.
- [228] *Hirugarren oharra*. Kontenplazio guztietan numeroko hainbat puntu eman ziren arren, hiru edo bost, etab., jarduleak ipin ditzake puntu gehiago edo gutxiago, hoberena iritziko dionez; horretarako asko laguntzen du kontenplazioan sartu baino lehen susmatzeak eta markatzeak zenbaki jakin batez hartuko dituen puntuak.

[229] **4ª nota.** En esta 4ª semana en todas las diez addiciones se han de mudar la 2ª, la 6ª, la 7ª, y la 10ª.

La 2ª será luego en despertándome, poner enfrente la contemplación que tengo de hacer, queriéndome affectar y alegrar de tanto gozo y alegría de Christo nuestro Señor.

La 6ª traer a la memoria y pensar cosas motivas a placer, alegría y gozo espiritual, así como de gloria.

La 7ª usar de claridad o de temporales cómodos, así como en el verano de frescura, y en el hibierno de sol o calor, en quanto el ánima piensa o coniecta que la puede ayudar, para se gozar en su Criador y Redemptor.

La 10ª, en lugar de la penitencia, mire la temperancia y todo medio, si no es en preceptos de ayunos o abstinencias que la Iglesia mande, porque aquellos siempre se han de cumplir, si no fuere justo impedimento.

[230] CONTEMPLACION PARA ALCANZAR AMOR.

Nota. primero conviene advertir en dos cosas:

La primera es que el amor se debe poner más en las obras que en las palabras.

[231] La 2ª, el amor consiste en comunicación de las dos partes, es a saber, en dar y comunicar el amante al amado lo que tiene o de lo que tiene o puede, y así, por el contrario, el amado al amante; de manera que si el uno tiene sciencia, dar al que no la tiene, si honores, si riquezas, y así el otro al otro.

Oración. Oración sólita.

[232] **1º preámbulo.** Primer preámbulo es composición, que es aquí ver cómo estoy delante de Dios nuestro Señor, de los ángeles, de los sanctos interpelantes por mí.

[233] **2º preámbulo.** El segundo, pedir lo que quiero: será aquí pedir cognoscimiento interno de tanto bien recibido, para que yo

[229] *Laugarren oharra.* Laugarren aste honetan, hamar eranskinetatik bigarrena, seigarrena, zazpigarrena eta hamargarrena aldatu behar dira.

Bigarrena izango da, esnatu bezain laster, egin behar dudana kontenplazioa aurrean jartzea, Kristo gure Jaunaren hainbesteko atseginagatik eta pozagatik hunkitu eta poztu nahi izanik [221].

Seigarrena, gogora ekarri eta pentsatu atseginera, alaitasunera eta espirituko pozera eragiten duten gauzak, hala nola zoriona.

Zazpigarrena, argitasuna edo denbora erosoak gozatu, adibidez udan hozkirria, eta neguan eguzkia edo beroa, arimak uste dueino edo pentsatzen dueino lagun diezaiokeela bere Egile edo Erosleagan gozatzen.

Hamargarrena, nekea hartu ordez, neurritasuna eta erdia bilatu, Elizak agindutako barau eta barauzaroetan izan ezik; haiek beti bete behar baitira, eragozpen zuzenik ez balitz.

[230] MAITASUNA IRISTEKO KONTENPLAZIOA

Oharra. Lehendabizi bi gauzari errapatzea komeni da.

Lehena da maitasuna gehiago ipini behar dela egintzetan hitzetan baino.

[231] Bigarrena: maitasuna bi parteen erkidetzear datza, hots, maitaleak maiteari ematean eta erkidetzear duena, edo duenetik edo ahal duenetik, eta, aitzitik, maiteak maitaleari; halako eran non batek jakintza badu, ematen baitio ez duenari, baita ohoreak, edo aberastasunak baditu ere, eta berdin bigarrenak lehenari.

Ohizko otoitza.

[232] *Lehen hitzaurrea* irudipena da; hemen ikustea nola nagoen Jainko gure Jaunaren eta negatik otoitz egiten duten aingeruen eta santuen aurrean.

[233] *Bigarrena:* nahi dudana eskatzea da; hemen izango da hartu dudana hainbat ongiren barne-ezagutza eskatzea, nik Jainko

enteramente reconociendo, pueda en todo amar y servir a su divina majestad.

- [234] **1º punto.** El primer punto es traer a la memoria los beneficios rescibidos de creación, redempción y dones particulares, ponderando con mucho afecto cuánto ha hecho Dios nuestro Señor por mí y cuánto me ha dado de lo que tiene y consequenter el mismo Señor desea dárseme en quanto puede según su ordenación divina. Y con esto reflectir, en mí mismo, considerando con mucha razón y justicia lo que yo debo de mi parte offrescer y dar a la su divina majestad, es a saber, todas mis cosas y a mí mismo con ellas, así como quien offresce affectándose mucho: Tomad, Señor, y recibid toda mi libertad, mi memoria, mi entendimiento y toda mi voluntad, todo mi haber y mi poseer; Vos me lo distes, a Vos, Señor, lo torno; todo es vuestro, disponed a toda vuestra voluntad; dadme vuestro amor y gracia, que ésta me basta.
- [235] El segundo mirar cómo Dios habita en las criaturas, en los elementos dando ser, en las plantas vejetando, en los animales sensando, en los hombres dando entender; y así en mí dándome ser, animando, sensando, y haciéndome entender; asimismo haciendo templo de mí seyendo criado a la similitud y imagen de su divina majestad; otro tanto reflitiendo en mí mismo, por el modo que está dicho en el primer punto o por otro que sintiere mejor. De la misma manera se hará sobre cada punto que se sigue.
- [236] El tercero considerar cómo Dios trabaja y labora por mí en todas cosas criadas sobre la haz de la tierra, id est, habet se ad modum laborantis. Así como en los cielos, elementos, plantas, fructos, ganados, etc., dando ser, conservando, vejetando y sensando, etc. Después reflectir en mí mismo.
- [237] El quarto: mirar cómo todos los bienes y dones descenden de arriba, así como la mi medida potencia de la summa y infinita de arriba, y así justicia, bondad, piedad, misericordia, etc., así como del sol descenden los rayos, de la fuente las aguas, etc. Después acabar reflitiendo en mí mismo según está dicho. Acabar con un coloquio y un Pater noster.

handia osoro ezaguturik, denean maitatu eta zerbitzatu ahal dezadan.

- [234] *Lehen puntua* da hartu ditudan ongiak gogora ekartzea –sortua izana, berrerosia eta mesede bereziak–, handietsiz eraspen biziaz zenbat egin duen nigmatik Jainko gure Jaunak eta zenbat eman didan daukanetik, eta gainera Jauna bera eman nahi zait ahal duen bezanbat bere jainko-erabakiaz. Eta hainbestez neure baitara itzuli, neure aldetik hausnartuz Jainko handiari eskaini eta eman behar diodana bidez eta legeez; alegia, neure gauza guztiak eta haiekin batera neure burua, bihotz-bihotzez eskaintzen duenak bezala: Tori, Jauna, eta har ene askatasun osoa, ene oroimena, adimena eta ene nahimen osoa, dudan eta daukadan guztia; zuk eman zenidan; zuri itzultzen dizut, Jauna; dena zurea da; erabilzu nahi duzun bezala; emadazu zeure maitasuna eta grazia, eta hori nahikoa dut.
- [235] *Bigarrena*, begira nola bizi den Jainkoa sorkarietan: gaikietan izatea emanez, landareetan haziaraziz, abereetan sentiaraziz, gizakietan adiaraziz; eta hala nigan izatea, haztea, sumatzea eta aditzea emanez; halaber nigan tenplua eginez, Jainko handiaren antzera eta irudira sortua naizelarik. Berebat neuregan itzulirik, lehenbiziko puntuan esan den eran edo hobetzat joko duen beste batean. Modu bertsuan egingo da ondoko puntu bakoitzean.
- [236] *Hirugarrena*, gogoratu nola lan egiten eta jarduten duen nigmatik Jainkoak lur gainean sortutako gauza guztietan; hau da, langile bat bezala ari da. Adibidez zeruetan, sorkarietan, landareetan, fruituetan, abereetan, etab., izatea emanez, iraunaraziz, haziaraziz eta sentiaraziz, etab. Gero neure baitara itzuli.
- [237] *Laugarrena*, begira nola jaisten diren onura eta mesede guztiak goitik, ene ahalmen makala goiko ahalmen guztizko eta muga-gabekotik jaisten den bezala, eta berebat zuzentasuna, ontasuna, oneraspena, errukia, etab.; eta eguzkitik izpiak, iturritik urak, eta abar jaisten diren bezala. Gero neure baitara itzulirik bukatu, esana den bezala. Azkenean, hizketatxo bat eta Gure Aita.

[238] TRES MODOS DE ORAR, Y 1º SOBRE
MANDAMIENTOS.

La primera manera de orar es cerca de los diez mandamientos, y de los siete peccados mortales, de las tres potencias del ánima, y de los cinco sentidos corporales; la qual manera de orar es más dar forma, modo y exercicios, cómo el ánima se apareje y aproveche en ellos, y para que la oración sea acepta, que no dar forma ni modo alguno de orar.

[239] Primeramente se haga el equivalente de la 2ª addición de la 2ª semana, es a saber, ante de entrar en la oración repose un poco el espíritu asentándose o paseándose, como mejor le parescerá, considerando a dónde voy y a qué: y esta misma addición se hará al principio de todos modos de orar.

[240] **Oración.** Una oración preparatoria, así como pedir gracia a Dios nuestro Señor, para que pueda conoscer en lo que he faltado acerca los diez mandamientos, y assimismo pedir gracia y ayuda para me enmendar adelante, demandando perfecta inteligencia dellos para mejor guardallos, y para mayor gloria y alabanza de su divina majestad.

[241] Para el primer modo de orar conviene considerar y pensar en el primer mandamiento cómo le he guardado, y en qué he faltado, teniendo regla por espacio de quien dice tres veces Pater noster y tres veces Ave María, y si en este tiempo hallo faltas mías, pedir venia y perdón dellas, y decir un Pater noster; y desta misma manera se haga en cada uno de todos los diez mandamientos.

[242] **1ª nota.** Es de notar que quando hombre viniere a pensar en un mandamiento, en el qual halla que no tiene hábito ninguno de pecar, no es menester que se detenga tanto tiempo; mas según que hombre halla en sí que más o menos estropezca en aquel mandamiento, así debe más o menos detenerse en la consideración y escrutinio dél, y lo mismo se guarde en los peccados mortales.

[238] OTOITZ EGITEKO HIRU MODU, ETA LEHENENGOA
AGINDUEN GAINEAN

Otoitz egiteko lehenbiziko modua da hamar aginduen, zazpi bekatu larrien, arimaren hiru ahalmenen eta gorputzaren bost zentzumenen gainean; eta otoitz egiteko modu hau eitea, modua eta jardunak ematea da batik bat, haietan arima atondu eta balia dadin, eta otoitza onartua izan, ez ordea otoitz egiteko eiterik eta modurik emateko.

[239] Lehenik, egin bedi bigarren asteko bigarren eranskinaren ordekoa, alegia, otoitzean hasi baino lehen atsedean pixka bat harbeza espirituak, eserita edo pasieran ibiliz, berak onena iritziko dion eran, nora eta zertara noan oroitzuz. Eta eranskin hau bera egingo da otoitz egiteko modu guztien hasieran [250, 258].

[240] *Prestamen-otoitz bat*: hala nola Jainko gure Jaunari laguntza eskatzea, ezagut dezadan zertan huts egin dudan hamar aginduen gainean; eta grazia eta laguntza ere bai aurrerantzean zuzen nadin, eta haien ezaguera guztiz ona eskatu haiek hobeki betetzeko, eta Jainko handiaren aintzarik eta gorespenik handienerako.

[241] Otoitz egiteko lehen modurako komeni da gogoratzea eta pentsatzea, lehen aginduan, nola bete dudan, eta zertan huts egin; hiru Gure Aita eta hiru agurmaria esan bitartean gutxi gorabehera, eta aldi honetan neure hutsik aurkitzen badut, haien barkamena eskatu, eta Gure Aita esan. Eta modu berean egin bedi hamar aginduetako bakoitzean.

[242] [*Lehen oharra*]. Gizonak ohartu behar du, bekatu egiteko batere ohiturarik ez duen agindu batean pentsatzen jartzen denean, ez duela denbora handirik egon beharrik; baizik konturatzen denean halako agindutan gehiago edo gutxiago oztopatzen dela, han behar du gelditu gehiago edo gutxiago hura gogoratzen eta aztertzen. Eta berdin gorde behar du bekatu larrietan.

[243] **2ª nota.** Después de acabado el discurso ya dicho sobre todos los mandamientos, acusándome en ellos, y pidiendo gracia y ayuda para enmendarme adelante, hase de acabar con un coloquio a Dios nuestro Señor según subiecta materia.

[244] 2º SOBRE PECCADOS MORTALES.

Acerca de los siete peccados mortales, después de la addición, se haga la oración preparatoria, por la manera ya dicha, sólo mudando que la materia aquí es de peccados que se han de evitar, y antes era de mandamientos, que se han de guardar, y assimismo se guarde la orden y regla ya dicha y el coloquio.

[245] Para mejor conoscer las faltas hechas en los peccados mortales, mírense sus contrarios, y así para mejor evitarlos proponga y procure la persona con sanctos exercicios adquirir y tener las siete virtudes a ellos contrarias.

[246] 3º SOBRE LAS POTENCIAS DEL ANIMA.

Modo. En las tres potencias del ánima se guarde la misma orden y regla que en los mandamientos, haciendo su addición, oración preparatoria y coloquio.

[247] 4º SOBRE LOS CINCO SENTIDOS CORPORALES.

Modo. Cerca los cinco sentidos corporales se tendrá siempre la misma orden, mudando la materia dellos.

[248] **Nota.** Quien quiere imitar en el uso de sus sentidos a Christo nuestro Señor, encomiéndose en la oración preparatoria a su divina majestad; y después de considerado en cada un sentido, diga un Ave María o un Pater noster, y quien quisiere imitar en el uso de los sentidos a nuestra Señora, en la oración preparatoria se encomiende a ella, para que le alcance gracia de su Hijo y Señor para ello; y después de considerado en cada un sentido, diga un Ave María.

[243] *Bigarren oharra.* Agindu guztien gainean esandako hitzaldi osoa amaitu ondoren, neure burua salatuz eta aurrerantzean zuzentzeko grazia eta laguntza eskatuz, amaitu behar da hizketatxo bat Jainko gure Jaunari eginez, gaiak eskatzen duenez.

[244] BIGARRENA. BEKATU LARRIEI BURUZ

Zazpi bekatu larriei buruz, egin bedi prestamen-otoitza eranskinaren ondoren, esan den bezala [240], hau bakarrik aldatuz: hemen txuliatu behar diren bekatuez ari garela, eta lehen bete behar ziren aginduez; halaber gorde bedi esandako legea eta araua eta hizketatxoa.

[245] Bekatu larrietan egindako hutsak hobeki ezagutzeko, begira haien aurkakoei; hartara, hobeki txuliatzeko, erabaki eta saia jardun hauen bidez haien aurkako zazpi bertuteak beretzen eta edukitzen.

[246] HIRUGARRENA. ARIMAREN AHALMENEZ

Modua. Arimaren hiru ahalmenetan eduki bedi aginduetako bide eta arau berbera, bere eranskina [239-243], prestamen-otoitza eta hizketatxoa eginez.

[247] LAUGARRENA. GORPUTZAREN BOST ZENTZUMENEZ

Modua. Gorputzaren bost zentzumenei buruz eduki bedi ordena berbera, haien gaia aldatuz.

[248] *Oharra.* Bere zentzumenen erabileran Kristo gure Jaunaren antzeko izan nahi duena, gomenda bekio Jainko handiari prestamen-otoitzean, eta esan beza agurmaria bat edo Gure Aita bat, zentzumena banaka gogoratu ondoren; eta zentzumenen erabileran Ama Birjinaren antzeko izan nahi duena, gomenda bekio hari prestamen-otoitzean, haren Semearen eta Jaunaren eskutik eskerra irits diezaion, eta zentzumena banaka gogoratu ondoren, esan beza agurmaria.

- [249] SEGUNDO MODO DE ORAR ES CONTEMPLANDO LA SIGNIFICACION DE CADA PALABRA DE LA ORACION.
- [250] **Addición.** La misma addición que fue en el primer modo de orar (núm. [239]) será en este segundo.
- [251] **Oración.** La oración preparatoria se hará conforme a la persona a quien se endereza la oración.
- [252] **2º modo de orar.** El segundo modo de orar es que la persona, de rodillas o asentado, según la mayor disposición en que se halla y más devoción le acompaña, teniendo los ojos cerrados o hincados en un lugar sin andar con ellos variando, diga Pater, y esté en la consideración desta palabra tanto tiempo, quanto halla significaciones, comparaciones, gustos y consolación en consideraciones pertinentes a la tal palabra, y de la misma manera haga en cada palabra del Pater noster o de otra oración cualquiera que desta manera quisiere orar.
- [253] **1ª regla.** La primera regla es que estará de la manera ya dicha una hora en todo el Pater noster, el qual acabado dirá un Ave María, Credo, Anima Christi y Salve Regina vocal o mentalmente, según la manera acostumbrada.
- [254] **2ª regla.** La segunda regla es que si la persona que contempla el Pater noster hallare en una palabra o en dos tan buena materia que pensar y gusto y consolación, no se cure pasar adelante, aunque se acabe la hora en aquello que halla, la qual acabada, dirá la resta del Pater noster en la manera acostumbrada.
- [255] **3ª regla.** La tercera es, que si en una palabra o dos del Pater noster se detuvo por una hora entera, otro día quando querrá tornar a la oración, diga la sobredicha palabra o las dos según que suele; y en la palabra que se sigue inmediatamente comience a contemplar, según que se dixo en la segunda regla.
- [256] **1ª nota.** Es de advertir que acabado el Pater noster en uno o en muchos días, se ha de hacer lo mismo con el Ave María y después con las otras oraciones, de forma que por algún tiempo siempre se exercite en una dellas.

- [249] OTOITZ EGITEKO BIGARREN MODUA DA KONTENPLATZEA OTOITZAREN HITZ BAKOITZAREN ESANAIA
- [250] Otoitz egiteko lehen moduko *eranskin bera* [239] izango da bigarren honetan.
- [251] *Prestamen-otoitza* egingo da otoitza zuzentzen zaion pertsonari dagokionez.
- [252] *Otoitz egiteko bigarren modua* da pertsona batek, belauniko edo eserita, zein egoeratan duen otoitz egiteko debozio gehiago, begiak itxita edo toki batean iltzatuak, honat-harat ibili gabe, Aita esan dezala, eta egon dadila hitz hori gogoratuz, berorren esanaia, alderatzeak, gozamenak eta pozaldia aurkitzen ditueino; eta era berean egin dezala Gure Aitaren hitz bakoitzean, edo era berean esan nahiko duen beste edozein otoitzetan.
- [253] *Lehen araua* da ordubete egotea, esan bezala, Gure Aita osoan; eta hura amaitzean, esango du Agurmaria, Sinesten dut, Kristoren arima eta Agur Erregina, ahoz edo gogoz, ohi den bezala.
- [254] *Bigarren araua*, da Gure Aita kontenplatzen ari den pertsonak aurkitzen balu hitz batean edo bitan pentsatzeko gai ederra eta atsegina eta pozaldia, ez dezala izan aurrera joateko ardurarik, nahiz eta dagoen hartan ordubete egon; hura amaitzean esango baitu Gure Aitatik falta dena, ohi duen bezala.
- [255] *Hirugarrena* da, Gure Aitaren hitz batean edo bitan ordubete egon bazen, biharamunean otoitzera itzultzeko gogoia duenean, esan dezala aurreko hitza edo biak, ohitura duenez; eta ondorengo hitzean has dadila kontenplatzen, bigarren arauan esan zen bezala.
- [256] *Lehen oharra*. Ohartu behar da, Gure Aita amaitzean, egun batean edo askotan, gauza bera egin behar dela Agurmariarekin, eta gero gainerako otoitzekin; era honetan jardun dezala beti denboraldi batean honetan edo hartan.

[257] **2ª nota.** La 2ª nota es que acabada la oración, en pocas palabras convirtiéndose a la persona a quien ha orado, pida las virtudes o gracias de las quales siente tener más necesidad.

[258] **TERCER MODO DE ORAR SERA
POR COMPAS.**

Addición. La addición será la misma que fue en el primero y segundo modo de orar.

Oración. La oración preparatoria será como en el segundo modo de orar.

3º modo de orar. El tercero modo de orar es que con cada un anhélito o resollo se ha de orar mentalmente diciendo una palabra del Pater noster o de otra oración que se rece, de manera que una sola palabra se diga entre un anhélito y otro, y mientras durare el tiempo de un anhélito a otro, se mire principalmente en la significación de la tal palabra, o en la persona a quien reza, o en la baxeza de sí mismo, o en la diferencia de tanta alteza a tanta baxeza propia; y por la misma forma y regla procederá en las otras palabras del Pater noster; y las otras oraciones, es a saber: Ave María, Anima Christi, Credo y Salve Regina hará según que suele.

[259] **1ª regla.** La primera regla es que en el otro día o en otra hora que quiera orar, diga el Ave María por compás, y las otras oraciones según que suele, y así conseqüentemente procediendo por las otras.

[260] **2ª regla.** La segunda es que quien quisiere detenerse más en la oración por compás, puede decir todas las sobredichas oraciones o parte dellas llevando la misma orden del anhélito por compás, como está declarado.

[261] **LOS MISTERIOS DE LA VIDA DE CHRISTO NUESTRO SEÑOR.**

Nota. Es de advertir en todos los misterios siguientes, que todas las palabras que están inclusas en paréntesis son del

- [257] *Bigarren oharra* da, otoitza amaitzean, otoitz egin dionagana hitz gutxitan bihurturik, eska ditzala beharrenak direla uste duen onbideak edo eskerrak.

[258] OTOITZ EGITEKO HIRUGARREN MODUA
 DA ARNASAZKO OTOITZA

Eranskina otoitz egiteko lehen eta bigarren moduan bezalaxe izango da [239, 250].

Prestamen-otoitza otoitz egiteko bigarren moduan bezalaxe izango da [251].

Otoitz egiteko hirugarren modua horrela da: arnasaldi bakoi-tzean gogoz (buruz) egin behar da otoitz, Aita Gurearen edo errezatzen den beste otoitzen baten hitz bat esanez. Arnasaldi baten eta bestearen artean hitz bakar bat esan bedi, eta arnasaldi batetik besterainoko uneak diraeino, pentsa bedi batik bat zer esan nahi duen halako hitzak, norekin ari naizen edo zein gauza txikia den nire burua, edo halako pertsona handiaren eta beste halako txikiaren arteko aldea, batez ere Jaungoiko txit handiaren aldean. Eta arau eta bide beretik jarraituko da Gure Aitaren beste hitzetan; eta beste otoitzak, Agurmaria, Kristoren arima, Sinesten dut eta Agur Erregina, ohi duen bezala errezatuko ditu.

- [259] *Lehen araua* da biharamunean, edo otoitz egin nahiko duen beste aldiren batean, Agurmaria erritmoz esatea, eta beste otoitzak, ohi duen bezala, eta horrela egingo da segidan besteekin.

- [260] *Bigarrena* da erritmozko otoitzean gehiago egon nahi duenak esan ditzakeela lehen aipaturiko otoitz guztiak edo haietako batzuk, arnasazko erritmoko ordena bera edukirik, esan den bezala.

- [261] KRISTO GURE JAUNAREN BIZITZAKO MISTERIOAK
Oharra. Ondorengo misterio guztietan, jakin behar da kako artean dauden hitz guztiak, ez kanpokoak, Ebanjeliokoak ber-

mismo Evangelio, y no las que están de fuera; y en cada misterio por la mayor parte hallarán tres puntos para meditar y contemplar en ellos con mayor facilidad.

[262] DE LA ANNUNCIACION DE NUESTRA SEÑORA
ESCRIBE SANT LUCAS EN EL PRIMERO CAPITULO,
V.26-38.

1º El primer punto es que el ángel Sant Gabriel, saludando a nuestra Señora, le sinificó la concepción de Christo nuestro Señor. (*Entrando el ángel adonde estaba María, la saludó, diciéndole: Dios te salve, llena de gracia; concebirás en tu vientre y parirás un hijo*).

2º El segundo: confirma el ángel lo que dixo a nuestra Señora, significando la concepción de Sant Joán Baptista, diciéndole: (*Y mira que Elisabet, tu parienta, ha concebido un hijo en su vejez*).

3º El tercio: respondió al ángel nuestra Señora: (*He aquí la sierva del Señor; cúmplase en mí según tu palabra*).

[263] DE LA VISITACION DE NUESTRA SEÑORA A ELISABET DICE SANT LUCAS EN EL PRIMERO CAPITULO,
V.39-56.

1º Primero: como nuestra Señora visitase a Elisabet, Sant Joán Baptista, estando en el vientre de su madre, sintió la visitación que hizo nuestra Señora: (*Y como oyese Elisabet la salutación de nuestra Señora, gozóse el niño en el vientre della, y llena del Espíritu Sancto, Elisabet exclamó con una gran voz y dixo: bendita seas tú entre las mugeres, y bendito sea el fructo de tu vientre*).

2º Segundo: Nuestra Señora canta el cántico diciendo: (*Engrandece mi ánima al Señor*).

3º Tercio: (*María estuvo con Elisabet quasi tres meses, y después se tornó a su casa*).

takoak direla; eta misterio bakoitzean, gehienetan hiru puntu aurkituko dituzte haietan errazkiago hausnartzeko eta kontentplatzeko.

[262] ANDRE MARIARI JESUSEN GIZAKUNDEA
IRAGARTZEA.
SAN LUKAS 1, 26-38

Lehen puntua da, San Gabriel aingeruak Andre Maria agurturik, Kristo gure Jaunaren gizon egitea adierazi ziola: «Aingeruak, Maria zegoen lekuan sartu eta hitz hauekin agurtu zuen: Jainkoak agur, graziaz bete hori; sabelean haurra sortuko duzu eta seme bat izango».

Bigarrena: aingeruak Andre Mariari esana baiesteko, San Joan Bataiatzailearen jaiotza agertzen dio: «Horra, zure lehengusu Isabelek semea izango du zahartzaroan».

Hirugarrena: aingeruari Andre Mariak erantzun zion: «Hona hemen Jainkoaren mirabea; gerta bekit zuk esana».

[263] ANDRE MARIAREN IKUSTALDIA
ELISABETI.
SAN LUKAS 1, 39-56

Lehen. Andre Maria Elisabetengana heldu eta, San Joan Bataiatzailea bere amaren sabelean baitzegoen, Andre Mariak egindako agurra sumatu zuen: «Eta Andre Mariaren agurra entzutean Isabelek, pozez gain egin zion bere sabeleko haurrak; eta orduan Isabelek honela hots egin zuen Espiritu Santuak eraginda: Bedeinkatua zu andreen artean eta bedeinkatua zure sabeleko semea».

Bigarrena. Andre Maria kantari hasi zen esanez: «Ene arimak Jauna handiesten du».

Hirugarrena. «Maria Elisabetekin hiru hilabete-edo egon zen, eta gero etxera itzuli».

[264] DEL NACIMIENTO DE CHRISTO NUESTRO SEÑOR
DICE SANT LUCAS EN EL CAPITULO II, V.1-14.

1º Primero: Nuestra Señora y su esposo Joseph van de Nazaret a Bethlén: *(Ascendió Joseph de Galilea a Bethlén, para conocer subiección a César con María su esposa y muger ya preñada).*

2º 2º: *(Parió su Hijo primogénito y lo embolvió con paños y lo puso en el pesebre).*

3º 3º: *(Llegóse una multitud de ejército celestial que decía: gloria sea a Dios en los cielos).*

[265] DE LOS PASTORES ESCRIBE SANT LUCAS EN EL
CAPITULO II, V.8-20.

Primero: La natividad de Christo nuestro Señor se manifiesta a los pastores por el ángel: *(Manifesto a vosotros grande gozo, porque hoy es nascido el Salvador del mundo).*

2º: Los pastores van a Bethlén: *(venieron con priesa y hallaron a María y a Joseph y al Niño puesto en el pesebre).*

3º: *(Tornaron los pastores glorificando y laudando al Señor).*

[266] DE LA CIRCUNCISION ESCRIBE SANT LUCAS EN EL
CAPITULO II, V.21.

1º Primero: circuncidaron al Niño Jesús.

2º 2º: *(El nombre dél es llamado Jesús, el qual es nombrado del ángel ante que en el vientre se concibiese).*

3º 3º: tornan el Niño a su Madre, la qual tenía compassión de la sangre que de su Hijo salía.

[267] DE LOS TRES REYES MAGOS ESCRIBE SANT MATHEO EN EL CAPITULO II, V.1-12.

1º Primero: los tres reyes magos, guiándose por la estrella, vinieron a adorar a Jesús, diciendo: *(Vimos la estrella dél en Oriente y venimos a adorarle).*

[264] KRISTO GURE JAUNAREN JAIOTZAN.
SAN LUKAS 2, 1-14

Lehena. Andre Maria eta Jose senarra Nazaretetik Belenera joan ziren. «Igo zen Jose Galileatik Belenera, Zesarri mendetasuna aitortzera, bere emazte haurdun Mariarekin.

Bigarrena. «Bere lehen-sortua haur egin zuen, eta oihalez bildu eta askan ezarri zuen».

Hirugarrena. «Aingeru-talde handia etorri zen zerutik, Aintza zeruetan Jainkoari kantatuz».

[265] ARTZAINEN BERRI.
SAN LUKAS 2, 8-20

Lehena. Kristo gure Jaunaren jaiotza aingeruak azaltzen die artzainei: «Poz handia agertzen dizuet, gaur jaio baita munduko Salbatzailea».

Bigarrena. Artzainak Belenera doaz: «Presaz etorri ziren eta aurkitu zituzten Maria eta Jose, eta Haurra askan».

Hirugarrena. «Artzainak Jauna goratuz itzuli ziren».

[266] ERDAINKETAZ.
SAN LUKAS 2, 21

Lehena. Erdaindu zuten Jesus Haurra.

Bigarrena. «Jesus izena ipini zioten, aingeruak sabelean sortu baino lehen ezarri ziona».

Hirugarrena. Amaren besoetara itzultzen dute Haurra, Semetxoari zerion odola Amak atsekabez ikusten zuelarik.

[267] HIRU ERREGE MAGOEN GAINEAN.
SAN MATEO 2, 1-12

Lehena. Hiru errege magoak, izarrak gidaturik, Jesus gurtzera heldu ziren, esanez: «Haren izarra ikusi dugu Sortaldean, eta gurtzera gatozkio».

2º 2º: le adoraron y le offrescieron dones: (*Prostrándose por tierra lo adoraron y le presentaron dones, oro, encienso y mirra*).

3º 3º: (*Rescibieron respuesta estando dormiendo que no tornasen a Herodes, y por otra vía tornaron a su región*).

de la tierra puede amar en sí, sino en el Criador de todas ellas. Asimismo quando lanza lágrimas motivadas a amor de su Señor, agora sea por el dolor de sus peccados, o de la pasión de Christo nuestro Señor, o de otras cosas derechamente ordenadas en su servicio y alabanza; finalmente, llamo consolación todo aumento de esperanza, fee y caridad y toda leticia interna que llama y atrae a las cosas celestiales y a la propia salud de su ánima, quietándola y pacificándola en su Criador y Señor.

- [317] **4ª regla.** La quarta de desolación spiritual: llamo desolación todo el contrario de la tercera regla; así como escuridad del ánima, turbación en ella, moción a las cosas baxas y terrenas, inquietud de varias agitaciones y tentaciones, moviendo a infidencia, sin esperanza, sin amor, hallándose toda perezosa, tibia, triste y como separada de su Criador y Señor. Porque así como la consolación es contraria a la desolación, de la misma manera los pensamientos que salen de la consolación son contrarios a los pensamientos que salen de la desolación.
- [318] **5ª regla.** La quinta: en tiempo de desolación nunca hacer mudanza, mas estar firme y constante en los propósitos y determinación en que estaba el día antecedente a la tal desolación, o en la determinación en que estaba en la antecedente consolación. Porque así como en la consolación nos guía y aconseja más el buen espíritu, así en la desolación el malo, con cuyos consexos no podemos tomar camino para acertar.
- [319] **6ª regla.** La sexta: dado que en la desolación no debemos mudar los primeros propósitos, mucho aprovecha el intenso mudarse contra la misma desolación, así como es en instar más en la oración, meditación, en mucho examinar y en alargarnos en algún modo conveniente de hacer penitencia.
- [320] **7ª regla.** La séptima: el que está en desolación, considere cómo el Señor le ha dexado en prueba en sus potencias naturales, para que resista a las varias agitaciones y tentaciones del enemigo; pues puede con el auxilio divino, el qual siempre le queda, aunque claramente no lo sienta; porque el Señor le ha

ak botatzen dituenean, nahiz bere bekatuen minagatik, nahiz Kristo gure Jaunaren nekaldiagatik, nahiz haren zerbitzu eta gorespenerako zuzen doazen beste gauzengatik. Azkenik, deitzen diot pozaldi itxaropenaren, fedearen eta maitasunaren edozein berpizteri, eta bere Egilearengan eta Jaunarengan baretuz eta baketuz, zeruko gauzetara eta norberaren arimaren osasunera deitzen eta ekartzen duen barneko edozein poztasuni.

- [317] *Laugarrena* espirituko lehorraldikoa da. Hirugarren arauaren guztiz kontrakoa lehorraldia deitzen dut, hala nola arimaren ilunpea, gogo-nahastea, gai purtzil eta lurkoietarako lera, zenbait nahasketa-tentaldiren ezinegona, fede-ezaren dardarizoa, itxaropenik gabe, goi-maitasunik gabe, arima guztiz nagi, epel, goibel eta bere Egileagandik eta Jaunagandik bakartua bezala. Zeren, nola pozaldia lehorraldiaren kontrakoa den, era berean pozalдитik sortzen diren pentsamenduak lehorralditik sortzen direnen kontrakoak baitira.
- [318] *Bosgarrena*. Lehorraldi garaian aldakuntzarik ez egin, baizik sendo eta gogor iraun lehorraldi bezperan edo aurreko pozaldian zeunden erabaki eta asmoetan. Bada, pozaldian espiritu onak gehiago gidatzen eta aholkatzen gaituen bezala, hala lehorraldian gaiztoak; eta honen kontseiluekin ezin dezakegu asmatzeko biderik har.
- [319] *Seigarrena*. Lehen hartutato erabakiak lehorraldian aldatu behar ez ditugun bezala, on da aitzitik norbera bortizki aldatzea lehorraldiaren beraren aurka; on da, halaber, otoitz gehiago egitea, gehiago hausnartzea, sarri aztertzea eta modu egokian penitentziak luzatzea.
- [320] *Zazpigarrena*. Lehorraldian dagoenak gogoan eduki beza Jainkoak bere izatezko indar hutsetan utzi nahi izan duela, etsaien astinaldiei eta tentaldiei oldar dakien; izan ere, Jainkoaren laguntzaz badezake, beti berekin baitu, nahiz eta beti ez nabarmen sentitu; Jaunak kendu diolako irakite

abstraído su mucho hervor, crecido amor y gracia intensa, quedándole tamen gracia sufficiente para la salud eterna.

- [321] **8ª regla.** La octava: el que está en desolación, trabaxe de estar en paciencia, que es contraria a las vexaciones que le vienen, y piense que será presto consolado, poniendo las diligencias contra la tal desolación, como está dicho en la sexta regla.
- [322] **9ª regla.** La nona: tres causas principales son porque nos hallamos desolados: la primera es por ser tibios, perezosos o negligentes en nuestros exercicios espirituales, y así por nuestras faltas se alexa la consolación spiritual de nosotros; la segunda, por probarnos para cuánto somos, y en cuánto nos alargamos en su servicio y alabanza, sin tanto estipendio de consolaciones y crecidas gracias; la tercera, por darnos vera noticia y cognoscimiento para que internamente sintamos que no es de nosotros traer o tener devoción crecida, amor intenso, lágrimas ni otra alguna consolación spiritual, mas que todo es don y gracia de Dios nuestro Señor, y porque en cosa ajena no pongamos nido, alzando nuestro entendimiento en alguna soberbia o gloria vana, atribuyendo a nosotros la devoción o las otras partes de la spiritual consolación.
- [323] **10ª regla.** La décima: el que está en consolación piense cómo se habrá en la desolación que después vendrá, tomando nuevas fuerzas para entonces.
- [324] **11ª regla.** La undécima: el que está consolado procure humiliarse y baxarse quanto puede, pensando cuán para poco es en el tiempo de la desolación sin la tal gracia o consolación. Por el contrario, piense el que está en desolación que puede mucho con la gracia sufficiente para resistir a todos sus enemigos, tomando fuerzas en su Criador y Señor.
- [325] **12ª regla.** La duodécima: el enemigo se hace como muger en ser flaco por fuerza y fuerte de grado, porque así como es propio de la muger, quando riñe con algún varón, perder ánimo, dando huída quando el hombre le muestra mucho rostro; y por el contrario, si el varón comienza a huír perdiendo ánimo, la

handia, maitasun bizia eta grazia sutsua, gelditzen zaiolarik betiko bizitzarako grazia nahikoa.

- [321] *Zortzigarrena*. Lehorraldia duena ahalegin bedi pazientzia izaten; hori etorriko zaizkion bihozminen kontrakoa da, eta pentsa beza laster izango dela alaitua, lehorraldiaren kontra ahaleginak egiten baditu, seigarren arauan esan bezala.
- [322] *Bederatzigarrena*. Hiru arrazoigatik izaten ditugu batik bat lehorraldiak: lehenengoa da epelak, alferrak edo zabarrak garelako geure gogojardunetan, eta horrela geure hutsengatik alde egiten du gugandik espirituko pozaldiak; bigarrena, horrenbeste pozaldi eta sari eta goi-grazia gabe zenbaterainoko garen aztertu nahi duelako, eta zenbat luzatzen garen haren zerbitzuan eta gorespenean; hirugarrena, zinez jakinarazi eta ezagutarazi nahi digulako eta barrenean sentiarazi, jaiera bizia izatea edo maitasun sutsua, malkoak edo espirituko beste edozein pozaldi izatea ez dela gure meritua, baizik osoro Jainko gure Jaunaren dohaina eta grazia; eta ez dezagun egin habia geurea ez den tokian, nolabaiteko harrokerian edo hantustean jasoz geure adimena, eta geure buruari egotziz debozioa edo pozaldi espiritualeko beste alderdiak.
- [323] *Hamargarrena*. Pozaldian dagoenak pentsa beza nola ibiliko den gero etorriko zaion lehorraldian, orduko hartuz indar berriak.
- [324] *Hamaikagarrena*. Pozaldian dagoenean egin beza ahalegina umiltzen eta ahal adina eraisten, pentsatuz zein gauza gutxirako den lehorraldi garaian, graziarik eta pozaldirik gabe gelditzean. Aitzitik, lehorraldian dagoenak pentsa beza Jainkoaren grazia nahikoaz asko dezakeela bere etsai guztiei aurka egiteko, bere Egile eta Jaunarengan indarrak hartuz.
- [325] *Hamabigarrena*. Etsaia emakumea bezala da: ahula bortxaz hartuz gero, harroa samurrez hartuz gero. Izan ere, gizonarekin errietan egitean, emakumea ihesa hartu eta kikildu egiten da, aurpegi haserrea jartzen diotenean; eta aitzitik, senarra kikilduz ihes egiten hasten bada, emaztearen sumina, mende-

ira, venganza y ferocidad de la muger es muy crescida y tan sin mesura; de la misma manera es propio del enemigo enflaquecerse y perder ánimo, dando huída sus tentaciones, quando la persona que se exercita en las cosas spirituales pone mucho rostro contra las tentaciones del enemigo haciendo el oppósito per diametrum; y por el contrario, si la persona que se exercita comienza a tener temor y perder ánimo en sufrir las tentaciones, no hay bestia tan fiera sobre la haz de la tierra como el enemigo de natura humana, en prosecución de su dañada intención con tan crecida malicia.

[326] **13ª regla.** La terdecima: assimismo se hace como vano enamorado en querer ser secreto y no descubiert: porque así como el hombre vano, que hablando a mala parte requiere a una hija de un buen padre, o una muger de buen marido, quiere que sus palabras y suasionen sean secretas; y el contrario le displace mucho, quando la hija al padre o la muger al marido descubre sus vanas palabras y intención depravada, porque fácilmente collige que no podrá salir con la impresa comenzada: de la misma manera, quando el enemigo de natura humana trae sus astucias y suasionen a la ánima justa, quiere y desea que sean recibidas y tenidas en secreto; mas quando las descubre a su buen confessor o a otra persona spiritual, que conosca sus engaños y malicias, mucho le pesa: porque collige que no podrá salir con su malicia comenzada, en ser descubiertos sus engaños manifestos.

[327] **14ª regla.** La quatuordécima: assimismo se ha como un caudillo, para vencer y robar lo que desea; porque así como un capitán y caudillo del campo, asentando su real y mirando las fuerzas o disposición de un castillo, le combate por la parte más flaca; de la misma manera el enemigo de natura humana, rodeando mira en torno todas nuestras virtudes theologales, cardinales y morales; y por donde nos halla más flacos y más necesitados para nuestra salud eterna, por allí nos bate y procura tomarnos.

kua eta basakeria guztiz handiak dira eta neurrigabeak; era berean etsaia mirrindu egiten da eta uzurtu eta tentaldiek alde egiten dute, gauza espiritualetan ari den pertsonak etsaiaren tentaldiei mutur beltza ipintzen dienean, diametralki kontrakoa eginez; eta aitzitik, sutsua den pertsona izutzen hasten bada eta tentaldiak jasateko kemena galtzen, ez da lurbira guztian giza naturaren etsaiaren pareko basapiztirik bere intentzio galgarriari hain zitalki jarraituko dionik.

[326] *Hamahirugarrena*. Gainera etsaia sasimaitalearen modura ari-tzen da, isilik ibili nahirik eta inoiz ez agerian. Bada, baldin gizon lotsagabea aita on baten alabari edo senar on baten andreari lizun esaka ariko balitzaio, inoizko berriketak isilik eduki nahiko lituzke, noski, eta ez luke buruko min txikia har-tuko, alabak aitari edo andreak gizonari haren txorakeria uste-lak eta intentzio okerra agertuko balizkio, bai bailekike hasita-ko lan horretan ez lukeela gauza onik aterako. Era berean, giza naturaren etsaiak bere maltzurkeriak eta ustekeriak arima zin-tzoari ekartzen dizkionean, nahi izaten du isilpean hartzea eta edukitzea; baina bere aitorle zintzoari edo beste pertsona espi-ritual bati zabaltzen dizkionean, haren bilaukeria zitalak eza-gutzeko, min handia hartzen du, laster antzematen baitio bere gezurkeriak haizatuz gero, ez duela hasitako txarrean azken onik izango.

[327] *Hamalaugarrena*. Era berean buruzagi baten antzeko bihur-tzen da, azpiratzeko eta harrapatzeko nahi duena; izan ere, gudu-zelai bateko buruzagiak bere etzauntza ezarri eta gaz-telu baten indarra eta prestamena ikusiz, alderdi ahulenetik erasotzen dio; modu berean giza naturaren etsaiak ondoren eta inguruan ibiliz, begiratzen ditu gure bertute guztiak, bai Jainkoaganakoak, bai bertute nagusiak, bai ohitura onak, eta geure betiko salbamenerako makalena eta behartsuena aurki-tzen gaituen aldetik astintzen gaitu eta saiatzen da mendera-tzen.

[328] REGLAS PARA EL MISMO EFECTO CON MAYOR DISCRECIÓN DE SPIRITUS, Y CONDUCEN MAS PARA LA SEGUNDA SEMANA.

[329] **1ª regla.** La primera: propio es de Dios y de sus ángeles en sus mociones dar verdadera alegría y gozo espiritual, quitando toda tristeza y turbación, que el enemigo induce; del qual es propio militar contra la tal alegría y consolación espiritual, trayendo razones aparentes, sotilezas y assiduas falacias.

[330] **2ª regla.** La segunda: sólo es de Dios nuestro Señor dar consolación a la ánima sin causa precedente; porque es propio del Criador entrar, salir, hacer moción en ella, trayéndola toda en amor de la su divina majestad. Digo sin causa, sin ningún previo sentimiento o conocimiento de algún obieto, por el qual venga la tal consolación mediante sus actos de entendimiento y voluntad.

[331] **3ª regla.** La tercera: con causa puede consolar al ánima así el buen ángel como el malo, por contrarios fines: el buen ángel, por provecho del ánima, para que crezca y suba de bien en mejor; y el mal ángel para el contrario, y adelante para traerla a su dañada intención y malicia.

[332] **4ª regla.** La quarta: propio es del ángel malo, que se forma sub angelo lucis, entrar con la ánima devota, y salir consigo; es a saber, traer pensamientos buenos y sanctos conforme a la tal ánima justa, y después, poco a poco, procura de salirse trayendo a la ánima a sus engaños cubiertos y perversas intenciones.

[333] **5ª regla.** La quinta: debemos mucho advertir el discurso de los pensamientos; y si el principio, medio y fin es todo bueno, inclinado a todo bien, señal es de buen ángel; mas si en el discurso de los pensamientos que trae, acaba en alguna cosa mala o distractiva, o menos buena que la que el ánima antes tenía propuesta de hacer, o la enflaquece o inquieta o conturba a la ánima, quitándola su paz, tranquilidad y quietud que antes tenía, clara señal es proceder de mal espíritu, enemigo de nuestro provecho y salud eterna.

[328] ARAUAK ONDORIO BERERAKO ESPIRITUEN BEREIZ-
KETA HANDIAGOZ. BIGARREN ASTERAKO JARRIAK
DIRA BEREZ

- [329] *Lehena*. Jainkoak eta bere aingeruek, beren eraginaldietan, zinezko alaitasuna eta poz espirituala ematen dute, etsaiak eragiten duen tristura eta asaldura oro uxatuz; honen egitekoa baita alaitasun eta pozaldi espiritual horren aurka borrokatzea, itxurazko arrazoiak, zorrozkeria eta azpikeria pilo bat ekarriz.
- [330] *Bigarrena*. Jainko gure Jaunak bakarrik eman diezaioke ari-mari pozaldia aurreko arrazoirik gabe; bada, Egilea baka-rrik sar daiteke eta irten ariman, barrena ukituz eta Jainko handiaren maitasuna gainezka ezarriz. Kausarik gabe diot, hots, aurretik ezer sentitu edo sumatu gabe, harengatik etortzeko pozaldi hura bere adimenezko eta borondatezko egiteez.
- [331] *Hirugarrena*. Zerbait dela-eta pozaraz dezakete arima aingeru onak bai txarrak, asmo desberdinez; aingeru onak, arimari on egiteko, onetik hobera hazi eta igo dadin; aingeru txarrak, bere asmo ustel pozoitsuaz arima galtzeko txarrez.
- [332] *Laugarrena*. Aingeru gaiztoa zero-argiaz jantzi ohi da eta arima zintzoari arrazoa ematen hasten zaio, gero berearekin ateratzeko; alegia, pentsamendu zuzen eta santuak ekarri arima zintzoaren arabera, eta gero pixkanaka irteten saiatu, bere asmo zital ezkutu galgarrietara arima ekarriz.
- [333] *Bosgarrena*. Arretaz begiratu behar diogu pentsamenduen ibi-liari; eta baldin hasiera, erdia eta bukaera ona bada, dena eta on guztira makurtua, aingeru onaren seinale da; baina baldin dakarren pentsamenduen ibilian gauza okerren edo galgarriren batean bukatzen bada, edo ez arimak hasieran egin uste zuen bezain onean, eta zimeldu eta aztoratu eta larritu egiten badu arimari lehen zedukan bakea, lasaitasuna eta gelditasuna ostuz, seinale argia da espiritu txarretik datorrela, gure onuraren eta betiko osasunaren etsaiarengandik.

[334] **6ª regla.** La sexta: quando el enemigo de natura humana fuere sentido y conocido de su cola serpentina y mal fin a que induce, aprovecha a la persona que fue dél tentada, mirar luego en el discurso de los buenos pensamientos que le truxo, y el principio dellos, y cómo poco a poco procuró hacerla descender de la suavidad y gozo spiritual en que estaba, hasta traerla a su intención depravada; para que con la tal experiencia conocida y notada, se guarde para adelante de sus acostumbrados engaños.

[335] **7ª regla.** La septima: en los que proceden de bien en mejor, el buen ángel toca a la tal ánima dulce, leve y suavemente, como gota de agua que entra en una esponja; y el malo toca agudamente y con sonido y inquietud, como quando la gota de agua cae sobre la piedra; y a los que proceden de mal en peor, tocan los sobredichos spíritus contrario modo; cuya causa es la disposición del ánima ser a los dichos ángeles contraria o símile; porque quando es contraria, entran con estrépito y con sentidos, perceptiblemente; y quando es símile, entra con silencio como en propia casa a puerta abierta.

[336] **8ª regla.** La octava: quando la consolación es sin causa, dado que en ella no haya engaño por ser de solo Dios nuestro Señor, como está dicho, pero la persona spiritual, a quien Dios da la tal consolación, debe, con mucha vigilancia y atención, mirar y discernir el propio tiempo de la tal actual consolación, del siguiente en que la ánima queda caliente, y favorecida con el favor y reliquias de la consolación passada; porque muchas veces en este segundo tiempo por su propio discurso de hábitos y consecuencias de los conceptos y juicios, o por el buen espíritu o por el malo forma diversos propósitos y paresceres, que no son dados inmediatamente de Dios nuestro Señor; y por tanto han menester ser mucho bien examinados, antes que se les dé entero crédito ni que se pongan en efecto.

- [334] *Seigarrena*. Giza naturaren etsaiari bere suge-isatsagatik eta azken txarra eragiteagatik igartzen eta sentitzen zaionean, hark zirikatu duen pertsonak on du ondoren pentsatzea ekarri zizkion pentsamendu onen ibilian eta haien hastean, eta nola pixkanaka saiatu zen lehen zeukan gozotasuna eta espirituko gozoa eraisten, ekarri arte bere asmo usteleraino; bere aztura ezagutu eta sumatu horretaz gorde zedin betiko bere iruzur ohituetatik.
- [335] *Zazpigarrena*. Gero eta hobeki dabilzanengan aingeru onak arimari gozoki, arinki eta leunki ukitzen dio, belaki batean sartzen den ur-tantak bezala; eta txarrak zorrozki, soinuaz eta kexaduraz, ur-tanta harri gainean erortzen denean bezala; eta okerretik okerrera dabiltzanei esandako espirituek kontrako modura ukitzen diete. Horren arrazoia da arimaren prestaera aingeruen kontrakoa edo aldekoa izatea; bada, kontrakoa denean, burrunbaz eta istiluz sartzen dira, agirika; eta antzekoa denean, isilik sartzen da, norberaren etxean bezala, atea zabalik.
- [336] *Zortzigarrena*. Pozaldia funtsik gabea bada, ez da amarrurik bertan, Jainko gure Jaunarena bakarrik delako, esan dugun bezala [330]; baina pozaldi hori pertsona espiritual bati ematen dio Jainkoak, ardura eta arreta handiarekin begiratu eta bereizi behar du oraingo pozaldiaren denbora bera hurrengotik; hemen arima berotua eta ondua gelditzen baita lehengo pozaldiaren opariz eta hondakinez; askotan, izan ere, bigarren aldi honetan norberak bere burutasunen eta iritzien, ohituren eta ondorioen diskurtso beragatik, bai espiritu onak, bai txarrak eraginda ere, Jainko berak emandako asmo eta iritzi batzuk hartzen ditu; eta, horregatik, zorrozki aztertu behar dira sinetsi eta egitez ezarri baino lehen.

[337] EN EL MINISTERIO DE DISTRIBUIR LIMOSNAS SE DEBEN GUARDAR LAS REGLAS SIGUIENTES.

[338] **1ª regla.** La primera: si yo hago la distribución a parientes o amigos o a personas a quien estoy aficionado, tendré quatro cosas que mirar, de las quales se ha hablado en parte en la materia de elección. La primera es que aquel amor que me mueve y me hace dar la limosna, descienda de arriba, del amor de Dios nuestro Señor; de forma que sienta primero en mí que el amor más o menos que tengo a las tales personas, es por Dios, y que en la causa porque más las amo reluzca Dios.

[339] **2ª regla.** La segunda: quiero mirar a un hombre que nunca he visto ni conocido; y deseando yo toda su perfección en el ministerio y estado que tiene como yo quería que él tuviese medio en su manera de distribuir, para mayor gloria de Dios nuestro Señor y mayor perfección de su ánima; yo haciendo assí, ni más ni menos, guardaré la regla y medida que para el otro querría y juzgo seer tal.

[340] **3ª regla.** La tercera: quiero considerar como si estuviesse en el artículo de la muerte, la forma y medida que entonces querría haber tenido en el officio de mi administración; y reglándome por aquella, guardarla en los actos de la mi distribución.

[341] **4ª regla.** La quarta: mirando cómo me hallaré el día del juicio, pensar bien cómo entonces querría haber usado deste officio y cargo del ministerio; y la regla que entonces querría haber tenido, tenerla agora.

[342] **5ª regla.** La quinta: quando alguna persona se siente inclinada y afficionada a algunas personas, a las quales quiere distribuir, se detenga y rumine bien las quatro reglas sobredichas, examinando y probando su affección con ellas; y no dé la limosna, hasta que conforme a ellas su dessordenada affección tenga en todo quitada y lanzada.

[343] **6ª regla.** La sexta: dado que no hay culpa en tomar los bienes de Dios nuestro Señor para distribuirlos, quando la persona es lla-

[337]

ESKUPEKOAK EMATEAN ARAU
HAUEK BETE

- [338] *Lehena*. Ondasunak neure ahaideei edo adiskideei edo lotua nagoen pertsoneri neronek banatzen badizkiet, lau gauzari begiratu beharko diet, zeinak aukeraz mintzatzean aipatu diren [184-187]. Lehena da ni bultzatzen nauen eta eskupekoa emenarazten didan maitasuna goitik jaitsi dadila, Jainko gure Jaunaren maitasunetik, eta horregatik halako pertsoneri didan maitasuna, dena dela, Jainkoagatik dela sentitu behar dut aurrena neuregan, eta maitatzeko dudan arrazoiari Jainkoa distira dadila gehiena.
- [339] *Bigarrena*. Inoiz ikusi ez eta ezagutu ez dudan gizon bat ikusi nahi dut; eta hari bere lanbidean eta bizibidean bikaintasun guztia opa diot; berak ere, bere eskupekoa banatzean, modua izatea nahiko nukeen bezala Jainko gure Jaunaren aintzarik handienerako eta bere arimaren onerako; eta nik huraxe eginenez, ez gehiago ez gutxiago, bestearentzat on zela iritzi duen arau eta neurri bera gordeko dut.
- [340] *Hirugarrena*. Hiltzeko zorian banengo bezala pentsatu nahi dut ea nolako tailua eta neurria eduki izan nahiko nukeen orduan neure eskupeko banatze-lanean; eta huraxe harturik arautzat, beteko nuke neure lagintze-lana.
- [341] *Laugarrena*. Azken judizioan nola aurkituko naizen ikusiz, pentsatu ongi nola nahiko nukeen bete izan orduan eskupeko banatze-lan hau; eta orduan eduki izan nahiko nukeen araua, orain eduki.
- [342] *Bosgarrena*. Norbaitek eskupekoak eman nahi dizkien pertsonetik bihotz-zaletasuna sentitzen badu, itxaron beza eta hausnartu ongi lehen esandako lau arauak [184-187], haiekiko eraspena aztertuz, eta ez biezaie eskupekorik eman haiekiko nahikeria erabat kendu eta bota arte.
- [343] *Seigarrena*. Ez da okerrik egiten Jainko gure Jaunaren ondasunak banatzeko berak deitu duenean pertsona bat eginbide

mada de nuestro Dios y Señor para tal ministerio; pero en el cuánto y cantidad de lo que ha de tomar y aplicar para sí mismo de lo que tiene para dar a otros, hay duda de culpa y exceso; por tanto, se puede reformar en su vida y estado por las reglas sobredichas.

- [344] **7ª regla.** La séptima: por las razones ya dichas y por otras muchas, siempre es mejor y más seguro, en lo que a su persona y estado de casa toca, quanto más se cercenare y diminuyere, y quanto más se acercare a nuestro summo pontífice, dechado y regla nuestra, que es Christo nuestro Señor. Conforme a lo qual el tercero concilio Carthaginense (en el qual estuvo sancto Augustín) determina y manda que la suppeléctile del obispo sea vil y pobre. Lo mismo se debe considerar en todo modos de vivir, mirando y proporcionando la condición y estado de las personas; como en matrimonio tenemos exemplo del Sancto Joaquín y de Sancta Anna, los quales partiendo su hacienda en tres partes, la primera daban a pobres, la segunda al ministerio y servicio del templo, la tercera tomaban para la substentación dellos mismos y de su familia.

[345] PARA SENTIR Y ENTENDER ESCRUPULOS Y SUASIONES DE NUESTRO ENEMIGO, AIUDAN LAS NOTAS SIGUIENTES.

- [346] **1ª nota.** La primera: llaman vulgarmente escrúpulo, el que procede de nuestro propio juicio y libertad, es a saber, quando yo líberamente formo ser peccado lo que no es peccado; así como acaece que alguno después que a pisado una cruz de paja incidenter, forma con su propio juicio que a pecado; y éste es propiamente juicio erróneo y no proprio escrúpulo.
- [347] **2ª nota.** La segunda: después que yo he pisado aquella cruz, o después que he pensado o dicho o hecho alguna otra cosa, me viene un pensamiento de fuera que he peccado; y por otra parte me parece que no he peccado, tamen siento en esto turbación; es a saber, en quanto dudo y en quanto no dudo; éste tal es proprio escrúpulo y tentación que el enemigo pone.

horretarako, baina besteei emateko daukanetik izan liteke errua eta gehiegikeria zenbat hartu eta gorde behar duen bereztat eta zenbat eman; beraz, zuzen lezake bere bizitza eta bizibidea lehen esandako arauen bidez.

- [344] *Zazpigarrena*. Esandako arrazoiengatik, eta beste askogatik, beti hobe eta seguruago da, norberarentzat eta bere bizibiderako, ahal duen gehiena murriztea eta gutxitzea eta ahal duen gehiena hurbiltzea Kristo gure Jaunari, hau baita gure aita santu, eredu eta ispilu. Horregatik, Kartagoko hirugarren kontzilioak (non egon baitzen san Agustin) eabakitzen eta agintzen du apezpikuaren gainsoinekoa izan zedila itsusia eta landerra. Gauza bera pentsatu behar da bizimodu guztietan, norberaren izakerari eta bizibideari dagokiona begiraturaz. Honela dugu eredu Joakin eta Ana santuen ezkontza. Hauek beren ondasuna hiru zatitan banaturik, lehenbizikoa behartsuentzat ematen zuten, bigarrena tenpluko lanbide eta zerbitzurako, eta hirugarrena beren buruak eta beren etxeak mantentzeko hartzen zuten.

[345] GURE ETSAIAREN KEZKAKERIAK ETA ZIRIKETAK
SENTITZEKO ETA ULERTZEKO, OHAR HAUEK
LAGUNTZEN DUTE

- [346] *Lehena*. Arrunki kezakakeria deitzen da geure iritzitik eta gogotik sortzen dena; alegia, nik neure gogoz bekatu ez dena bekatu bihurtzen dut; gertatzen den bezala batek ustekabeen lastozko gurutze bat zapaltzea eta bere buruari iriztea bekatu egin duela; hau berez iritzi okerra da eta ez kezakakeria.
- [347] *Bigarrena*. Niri, gurutze hura zapaldu ondoren, edo beste zerbait pentsatu, esan edo egin ondoren, kanpoko pentsamendua datorkit bekatu egin dudala eta, bestalde, iruditzen zait ez dudala egin, baina honetan nahasketa sentitzen dut, alegia, baietz ala ezetz uste horretan: hau da etsaiak jartzen duen benetako kezakakeria eta tentaldia.

[348] **3ª nota.** La tercera: el primer escrúpulo de la primera nota es mucho de aborrescer, porque es todo error; mas el segundo de la segunda nota, por algún espacio de tiempo no poco aprovecha al ánima que se da a spirituales exercicios: antes en gran manera purga y alimpia a la tal ánima, separándola mucho de toda apariencia de peccado, juxta illud Gregorii: bonarum mentium est ibi culpam cognoscere, ubi culpa nulla est.

[349] **4ª nota.** La quarta: el enemigo mucho mira si una ánima es gruesa o delgada; y si es delgada, procura de más la adelgazar en extremo, para más la turbar y desbaratar; verbi gracia, si vee que una ánima no consiente en sí peccado mortal ni venial ni apariencia alguna de peccado deliberado, entonces el enemigo, quando no puede hacerla caer en cosa que parezca peccado, procura de hacerla formar peccado adonde no es peccado, assí como en una palabra o pensamiento mínimo; si la ánima es gruesa, el enemigo procura de engrossarla más, verbi gracia, si antes no hacía caso de los peccados veniales, procurará que de los mortales haga poco caso, y si algún caso hacía antes, que mucho menos o ninguno haga agora.

[350] **5ª nota.** La quinta: la ánima que desea aprovecharse en la vida spiritual, siempre debe proceder contrario modo que el enemigo procede, es a saber, si el enemigo quiere engrossar la ánima, procure de adelgazarse; asimismo si el enemigo procura de attenuarla para traerla en extremo, la ánima procure solidarse en el medio para en todo quietarse.

[351] **6ª nota.** La sexta: quando la tal ánima buena quiere hablar o obrar alguna cosa dentro de la Iglesia, dentro de la inteligencia de los nuestros mayores, que sea en gloria de Dios nuestro Señor, y le viene un pensamiento o tentación de fuera, para que ni hable ni obre aquella cosa, trayéndole razones aparentes de vana gloria o de otra cosa, etc.; entonces debe de alzar el entendimiento a su Criador y Señor; y si vee que es su debido servicio o a lo menos no contra, debe hacer perdiametrum contra

- [348] *Hirugarrena*. Lehen oharreko lehen kezakakeria oso gorrotagarria da, guztia gezurra delako; baina bigarren oharreko bigarrenak ez dio aldi batez mesede txikia egiten gogojardunetan ari den arimari; baizik handizki txukuntzen eta garbitzen du arima, bekatu itxura guztitik asko aldenduz, San Gregoriok esan bezala: «Bihotz garbiak errurik ez den lekuan, errua azaltzen du».
- [349] *Laugarrena*. Etsaiak asko begiratzen du arima bat lasaia den ala estua; eta estua baldin bada, are gehiago estutzen saiatzen da, gehiago aztoratzeko eta apurtzeko; esate baterako, ikusten badu arima batek ez duela beregan onartzen bekatu larririk ez arinik, ez eta onartuko bekaturen itxurarik, orduan etsaiak, ezin badu zirriztarazi bekatua dirudien ezertan, bekatu-kezka jartzen dio bekatua ez den tokian; esate baterako, hitz edo pentsamendurik txikienean. Arima lasaia bada, etsaia gehiago lasaitzen saiatzen da; adibidez, hasieran bekatu arinen axolarik ez bazuen, orain larrien arreta gutxi izan dezan ahaleginduko da, eta lehen ezeren axolarik hartzen ez bazuen, orain har deza-la askoz gutxiago edo batere ez.
- [350] *Bosgarrena*. Espiritu-bizitzan aurreratu nahi duen arimak, etsaiak egiten duenaren alderantziz egin behar du beti; alegia, etsaiak arima loditu nahi badu, ahalegin bedi mehartzen; era berean, larregira ekartzeko etsaia mehartzen ahalegintzen bada, arima erdian sendotzen saia bedi guztien baketzeko.
- [351] *Seigarrena*. Elizaren barnean eta nagusien iritziari dagokionez, arima zintzoak Jainko gure Jaunaren aintzarako den zerbait esan edo egin nahi duenean, honelakorik ez esan edo ez egiteko gogamen edo tentaldiren bat etorriko balitzaio, harrokeriaren edo beste zerbaiten beldur izan behar delako aitzakiaz, orduan bere Egile eta Jaunagana jaso behar du adimena; eta ikusten badu haren zerbitzurako komeni dela edo kaltegarri ez dela, honelako tentaldiaren kontra-kontrakoa egin behar du,

la tal tentación, iusta Bernardum eidem respondentem: nec propter te incepi nec propter te finiam.

[352] PARA EL SENTIDO VERDADERO QUE EN LA IGLESIA MILITANTE DEBEMOS TENER, SE GUARDEN LAS REGLAS SIGUIENTES.

- [353] **1ª regla.** La primera: despuesto todo juicio, debemos tener ánimo aparejado y prompto para obedescer en todo a la vera sposa de Christo nuestro Señor, que es la nuestra sancta madre Iglesia hierárchica.
- [354] **2ª regla.** La segunda: alabar el confessar con sacerdote y el rescibir del sanctíssimo sacramento una vez en el año, y mucho más en cada mes, y mucho mejor de ocho en ocho días, con las condiciones requisitas y debidas.
- [355] **3ª regla.** La tercera: alabar el oír missa a menudo, asimismo cantos, psalmos y largas oraciones en la iglesia y fuera della; assimismo horas ordenadas a tiempo destinado para todo officio divino y para todas oración y todas horas canónicas.
- [356] **4ª regla.** La quarta: alabar mucho religiones, virginidad y continencia, y no tanto el matrimonio como ningunas destas.
- [357] **5ª regla.** La quinta: alabar votos de religión, de obediencia, de pobreza, de castidad y de otras perfectiones de supererrogación; y es de advertir que como el voto sea cerca las cosas que se allegan a la perfección evangélica, en las cosas que se alejan della no se debe hacer voto, así como de ser mercader o ser casado, etcétera.
- [358] **6ª regla.** Alabar reliquias de sanctos, haciendo veneración a ellas, y oración a ellos: alabando estaciones, peregrinaciones, indulgencias, perdonanzas, cruzadas y candelas encendidas en las iglesias.
- [359] **7ª regla.** Alabar constituciones cerca ayunos y abstinencias, así como quaresmas, quatro témporas, vigilijs, viernes y sábado; assimismo penitencias no solamente internas, mas aun externas.

Bernardo santuak erantzun zuenez: «Ez nauk hiregatik hasi, eta ez diat hiregatik bukatuko».

- [352] ELIZA BORROKALARI HONETAN EDUKI BEHAR DUGUN ZENTZU ONERAKO, GORDE BITEZ ONDOKO ARAU HAUEK
- [353] *Lehena*. Iritzi guztiak bazterturik, borondate prestu eta bizia eduki behar dugu Kristo gure Jaunaren emaztea obeditzeko, hori baita gure ama santa Eliza hierarkikoa.
- [354] *Bigarrena*. Apaizarekin aitortzea goratu eta eukaristia txit santua urtean behin hartzea, eta askoz hobe hilean behin, eta are hobeto zortzi egunez behin, behar diren prestamenak beterik.
- [355] *Hirugarrena*. Meza sarri entzutea goratu; baita kantikak, salmoak eta otoitz luzeak egitea ere, elizan eta elizatik kanpo; goratu, berebat, Jainkoarentzat eliz otoitzak, beste otoitzak eta ordu kanoniko guztiak errezatzeko aldizka berezi diren garaiak.
- [356] *Laugarrena*. Erljioak, birjintasuna eta bihotz-garbitasuna asko goratu; ezkontza, horiek adina ez.
- [357] *Bosgarrena*. Erljio-zinitzak –mendetasuna, pobrezia eta garbitasuna– goratu eta aginduez gaindiko beste perfekzio-botoak ere bai; eta, jakina, botoek ebanjelioko perfekzioaren inguruko gauzei ukitzen dietenez gero, hortik urruntzen diren gauzetan ez da botoa egin behar; adibidez, saltzaile edo ezkondua izateko.
- [358] *Seigarrena*. Santuen gorpuzkinak goratu, gorpuzkinak agurtuz eta santuei otoiztuz; goratu ere elizaren egonaldiak, erromeriak, barkapenak, gurutze-buldak eta elizetako argizari piztuak.
- [359] *Zazpigarrena*. Goratu barauak eta haragi-uzte legeak, gari-zuma, lau-arao aldiak, bijili egunak, ostiralak eta larunbat; gora ditzagun ere penitentziak, bai barrukoak bai agirikoak.

- [360] **8ª regla.** Alabar ornamentos y edificios de iglesias; assimismo imágenes, y venerarlas según que representan.
- [361] **9ª regla.** Alabar, finalmente todos preceptos de la Iglesia, teniendo ánimo prompto para buscar razones en su defensa y en ninguna manera en su ofensa.
- [362] **10ª regla.** Debemos ser más promptos para abonar y alabar assí constitutiones, comendaciones como costumbres de nuestros mayores; porque dado que algunas no sean o no fuesen tales, hablar contra ellas, quier predicando en público, quier platicando delante del pueblo menudo, engendrarían más murmuración y escándalo que provecho; y assí se indignarían el pueblo contra sus mayores, quier temporales, quier spirituales. De manera que así como hace daño el hablar mal en ausencia de los mayores a la gente menuda, así puede hacer provecho hablar de las malas costumbres a las mismas personas que pueden remediarlas.
- [363] **11ª regla.** Alabar la doctrina positiva y escolástica; porque assí como es más propio de los doctores positivos, assí como de Sant Hierónimo, Sant Agustín y de Sant Gregorio, etc., el mover los afectos para en todo amar y servir a Dios nuestro Señor; assí es más propio de los escolásticos, assí como de Sancto Thomás, Sant Bonaventura y del Maestro de las sentencias, etc., el diffinir o declarar para nuestros tiempos de las cosas neccessarias a la salud eterna, y para más impugnar y declarar todos errores y todas falacias. Porque los doctores escolásticos, como sean más modernos, no solamente se aprovechan de la vera intelligencia de la Sagrada Scriptura y de los positivos y sanctos doctores; mas aun siendo ellos iluminados y esclarecidos de la virtud divina, se ayudan de los concilios, cánones y constitutiones de nuestra sancta madre Iglesia.
- [364] **12ª regla.** Debemos guardar en hacer comparaciones de los que somos vivos a los bienaventurados passados, que no poco se yerra en esto, es a saber, en decir: éste sabe más que Sant Agustín, es otro o más que Sant Francisco, es otro Sant Pablo en bondad, sanctidad, etc.

- [360] *Zortzigarrena*. Goratu ere meza-jantziak eta eliz etxegintzak; baita ere santuen irudiak, agurtuz adierazten dutena.
- [361] *Bederatzigarrena*. Goratu azkenik elizaren agindu guztiak, haren aldeko arrazoiak aurkitzeko beti prest egonik, eta inola ere ez aurkakoak.
- [362] *Hamargarrena*. Nagusien aginduak, esanak eta ohiturak ones-teko eta goratzeko prest egon behar dugu beti; izan ere, batzuk ez badira ere, edo ez balira ere halakoak, haietaz gaizki mintzatzeak bai sermoi agirietan bai berriketan jende xehearen aurrean, mar-mar eta gaizbide gehiago sortuko luke on egin baino; hala herria sumindu egingo litzateke bere nagusiekin, bai lurrekoekin bai espiritukoekin. Eta jende heldua aurrean egon gabe jende helduak gaizki hitz egiteak jende xumeari gaitz egiten dion bezala, hala on egin lezake ohitura txarrez hitz egiteak zuzen litzakeen jende berari.
- [363] *Hamaikagarrena*. Doktrina positiboa eta eskolastikoena goratu; izan ere, doktore positiboei, San Jeronimori, San Agustini, San Gregoriori eta abarri bezala, gehiago dagokie bihotzak eragitea, gauza guztietan Jainko gure Jauna maitatzeko eta zerbitzatzeko; era berean gehiago dagokie San Tomasi, San Buenaventurari, *Sententiarum*-en Maisuari eta abarri erabakitzea eta adieraztea gure garaiotarako eta betiko osasunerako behar ditugun gauzak; baita ere gehiago jazartzeko eta azaltzeko oker eta gezur guztiak. Bada, doktore eskolastikoez, modernoagoak izanik, ez dute onura bakarrik hartzen Eskritura Sakratuaren zinezko adierazteaz eta doktore positiboez eta santuez, baizik direlarik jainko-ahalmenez argituak eta garbituak, gure Eliza ama santaren kontzilioez, kanonez eta konztitutzioez ere baliatzen dira.
- [364] *Hamabigarrena*. Ez dugu behin ere bizi garenon eta hildakoen arteko konpaziorik egin behar; oker askotxo egiten baita horretan esanik, adibidez: Honek San Agustinek baino gehiago daki, beste San Frantzisko da edo gehiago, beste San Pablo da on izatean, santu izatean.

- [365] **13ª regla.** Debemos siempre tener para en todo acertar, que lo blanco que yo veo, creer que es negro, si la Iglesia hierárchica assí lo determina, creyendo que entre Christo nuestro Señor, esposo, y la Iglesia su esposa, es el mismo espíritu que nos gobierna y rige para la salud de nuestras ánimas, porque por el mismo Spíritu y Señor nuestro, que dio los diez Mandamientos, es regida y gobernada nuestra sancta madre Iglesia.
- [366] **14ª** Dado que sea mucha verdad que ninguno se puede salvar sin ser predestinado y sin tener fe y gracia, es mucho de advertir en el modo de hablar y comunicar de todas ellas.
- [367] **15ª** No debemos hablar mucho de la predestinación por vía de costumbre; mas si en alguna manera y algunas veces se hablar, assí se hable que el pueblo menudo no venga en error alguno, como algunas veces suele, diciendo: Si tengo de ser salvo o condenado, ya está determinado, y por mi bien hacer o mal, no puede ser ya otra cosa; y con esto entorpeciendo se descuidan en las obras que conducen a la salud y provecho spiritual de sus ánimas.
- [368] **16ª** De la misma forma es de advertir que por mucho hablar de la fe y con mucha intensión, sin alguna distincción y declaración, no se dé ocasión al pueblo para que en el obrar sea torpe y perezoso, quier antes de la fe formada en caridad o quier después.
- [369] **17ª** Assimismo no debemos hablar tan largo instando tanto en la gracia, que se engendre veneno para quitar la libertad. De manera que de la fe y gracia se puede hablar quanto sea possible mediante el auxilio divino, para maior alabanza de la su divina majestad, mas no por tal suerte ni por tales modos, mayormente en nuestros tiempos tan periculosos, que las obras y líbero arbitrio resciban detrimento alguno o por nihilo se tengan.
- [370] **18ª** Dado que sobre todo se ha de estimar el mucho servir a Dios nuestro Señor por puro amor, debemos mucho alabar el temor de la su divina majestad; porque no solamente el temor filial es cosa pía y sanctísima, más aun el temor servil, donde otra cosa mejor o más útil el hombre no alcance, ayuda mucho

- [365] *Hamahirugarrena*. Orotan beti asmatzeko etsita egon behar dugu nik zuria ikusten dudana beltza dela, Eliza hierarkikoak hala irakasten badu, pentsatuz Kristo gure Jaunaren, senarra-
ren, eta bere emazte Elizaren artean espiritu berak gobernatzen eta eraentzen gaituela gure arimen osasunerako, bada hamar aginduak eman zituen Espiritu eta jaun berak agintzen eta era-
entzen du Eliza ama santa.
- [366] *Hamalaugarrena*. Egia handia denez gero ez daitekeela inor salba predestinatua izan gabe eta sinesmenik eta graziarik gabe, izan dezagun kontu handia gauza horietaz guztietaz hitz egitean eta erkiditzean.
- [367] *Hamabosgarrena*. Ohituraz ez dugu asko mintzatu behar pre-
destinazioaz; hala ere, noizbait eta nolabait hitz egingo balitz, hitz egin bedi herri xehea okerren batean ez erortzeko eran, inoiz gertatzen den bezala, esanez: salbatu behar dudana ala damnatu, iada erabakia dago eta, nik ongi egin edo gaizki, ezin da aldatu; eta horrekin trakesturik, zabartzen dira osasunera eta arimen espiritu-onurara daramaten egintzetan.
- [368] *Hamaseigarrena*. Berebat ohartu behar da asko eta asmo han-
diaz hitz egiteagatik fedez, ez zaiola herriari bide eman behar bere egintzetan traketsa eta alferra izan dadin deus berezi eta argitu gabe, nahiz fedea maitasunez sendotu baino lehen, nahiz jantzita gero.
- [369] *Hamazazpigarrena*. Halaber, ez dugu hain luzaz mintzatu behar esker-graziaz, askatasunaren aurkako pozoia sortzerai-
no. Fedez eta graziaz Jainkoaren laguntzaz ahal den guztia hitz egin daiteke, Jainko handiaren gorespenik handienerako; ez, ordea, gure garai arriskugarri hauetan bezala, gizonaren egintzak eta aukerapenak ezereztzat hartzeraino.
- [370] *Hamazortzigarrena*. Orogen gaindik aintzat hartu behar denez gero Jainko gure Jaunari maitasun hutsez bizi-
ro zerbitzatzea, Jainko handiaren beldurra ere asko goretsi behar dugu, zeren ez baita seme-beldurra bakarrik gauza ona eta guztiz deuna, baita morroi-beldurra ere; eta gizonak gauza hoberik iristen ez due-

para salir del peccado mortal; y salido fácilmente viene al temor filial, que es todo acepto y grato a Dios nuestro Señor, por estar en uno con el amor divino.

A. M. D. G.

nean, asko laguntzen du bekatu larritik irteteko; eta, handik ateratzean, aise dator seme-maitasuna; hau guztiz atsegin zaio Jainko gure Jaunari, jainko-maitasunarekin bat egina dagoelako.

Aurkibidea

HITZAURREA..... 7

OHARRAK..... 27

OHARPENAK..... 31

LEHEN ASTEA..... 47

BIGARREN ASTEA..... 81

HIRUGARREN ASTEA..... 119

LAUGARREN ASTEA..... 133

ARAUAK..... 185

